


Ebaristo Bustintza
Kirikiño

ABARRAK

Sarrera eta
edizinoa:
Miren Atutxa



SUTONDOAN SORTA
LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

Ebaristo Bustintza *Kirikiño* mañarriarra idazlerik oparoenetakoa dogu gure artean. *Euzkadi* egunkarian batez be, eta beste aldizkari batzutan be, artikulu, ipuin, kronika eta era guztietako kazetari-lanak asko be asko idatzi izan ditu. Honezkeru hainbat atera izan dira bilduma honetan bertan, baina orain arte *Abarrak* falta izan da, *Kirikiño*ren lanik ezagunena.

Liburu honetan kontakizun, pasadizu eta antzekoak estilo bizi-bizian eta euskera gozatsuan aurkituko ditu irakurleak.

Ganera, bizkaierari begira, idazle eredugarria dogu, euskalkia barrubarrutik ezagutu eta berez-berez erabiltzen dauena. Edizino honetan ahalegin apartekoa egin da gaur eguneko erispideetara ekarten eta irakurleari ereduzko idazkerea eskintzen.

EBARISTO BUSTINTZA

Kirikiño
ABARRAK

EBARISTO BUSTINTZA

Kirikiño

Abarrak

Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

BILBAO

2005

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Gestingraf S.A.L.

Lege Gordailua: BI-1514-05
ISBN: 84-89816-28-X

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoko edo mekanikoko, fotokimikoko, magnetikoko, elektrooptikoko, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

«Kezka nagusiaren arantzea bihotzean josita euki dabenetarikoa izan zan.

Euzkotarren gogoia, matazarik mataza, belaunik belaun, aldiak eten barik darabilen goruan jarri zan. Eta bertatik abenda gogoak, bere ele eder zuhurgarria, urre hutsezko haria atera eban. Eskurik esku, gogorik gogo, bihotzik bihotz igaroten zan urrezko haria...

Baina abendeak, ez aldia baizen ernaia, ez maitasuna baizen nekatxa, gorua bere eskuetatik jausten ixten eban... Ez eban berton bere gogoia iminten; asabakandiko hari aldintsuba lagatzen eban. Horra ele eder bardinbako honen estuntzea eten zorian egoala...

Eta orduan, heuk be, Bustintzatar Ebaistak, heure gogoan kezka nagusiaren zartadea hartu heuan.

Eta zartada mina barruraino sartu jakalako, heure bizitaldi osoan heure adimenaren mataza aldintsuak goru nekatxari ekarten inardun eban, egunoroko lan argitsuari, ele maite berezia sendotuteari ekiten eta ekiten...

Lo egik gentzaz, heriotza loa, Bustintzatar Ebaista, heure eskuetaz urrezko haria igarotean, heure bizitzaz, heure adimenaren argiaz eta heure bihotzaren maitasun sutsuaz apaindu heualako; heure eskuetaz sendotu, leundu, argitu heualako, eta holan euskaldunen bihotzetan euskal maitasun-garra piztu heualako.

Esker ona heuri heure lanaz eta heure adorea, galdu zorian egoan pitxi ederra iraungo dalako. Eta orain geure bihotzeko kezka-mina ez da hain zorrotza.»

*Euzkerea, II, I-1929**

* E. Bustintza, *Kirikiko*, hil eta lasterrera argitaratu zan artikulu hau, 1929ko zezeilaren 15ean.

Testuaren grafia editoreak moldatuta dago.

AURKIBIDEA

SARREREA. <i>Miren Atutxa</i>	11
ABARRAK	
<i>Irakurleentzako oharra</i>	61
I. Zerutar bat	65
II. Deun izateko bidean	69
III. Azeri azartuak oiloa daroa (jazorikoa)	73
IV. Aurrerapen ikaragarri bat osakuntzan (jazorikoa)	79
V. Peru <i>Makur</i>	85
VI. Ituxurak zinaldari	91
VII. Garagarrilean edurra	109
VIII. Aratoste	113
IX. Urtebarri, barri	117
X. Kukua entzuten	121
XI. Zinaldari arteza	125
XII. Tximistargi barria (jazorikoa)	127
XIII. Gizon zuhurrak ondo erabagi (jazorikoa)	131
XIV. Baltz euskalduna (jazorikoa)	137
XV. Jatorria	145
XVI. Alkar aitu hobe da alkar hil baino (jazorikoa)	149
XVII. Hor dozu ospea eta betoz diruak! (jazorikoa)	153
XVIII. Azeriari, azeria	157
XIX. «Beharrak beharra eragin» (jazorikoa)	163
XX. Ardaozaleak poltsea galdu (jazorikoa)	169
XXI. Atxuriko <i>milagroa</i> (jazorikoa)	175

SARREREA

«Al dogun lekutik ekin» (*Euzkadi*, II, IV-1905).

«Al danari eldu gakioan gogoí, alegindu gaizan, alegiña egiten dabenak zerbait beti ataraten dau» (*Euzkadi*, II, IV-1905).

«Nai dan lez?... Aal dan lez» (*Gure Herria*, IV, 1924).

Ebaristo Bustintza *Kirikiñoren* idatziei erreparau ezkeru, «ahal», «ahalegin», «ekin» eta antzeko berbak eurrez eta barra-barra darabilzala ikusi leiteke. Euskaldunoi heldu eragin gura deuskun mezuaren kakoa be horreexek berbok emoten deuskue: euskaldun guztiok egin daigula euskerearen alde zeozer, bakotxak ahal dauen ginoan, eta ezari-ezarian, geldiro-geldiro bada be, tin-ko eta sendo jokatu daigula.

Izan be, E. Bustintzaren testuak leidu ahala, ikasbide bera behin eta barriro susmetan dala esan geinke. Eta bera bizi zala urtetxo batzuk igaro diran arren, gaur egun be ha mezua gogora ekartea ez da inondik inora alperreko kontua. Helburu berbera dario gaurkoan dakargun beharraren izenburuari be: *Abarrak*. E. Bustintzaren literatura ibilbidean argi agertzen jaku herritarrak euskeraz irakurtera hultzatu ezeze, idaztera be adoretu gura eba-zala. Erronka mardula berea, baina neurri handi baten lortu egin ebana, ezertariko duda barik.

Jarraitu deiogun ba, irakurle, guk geuk be *Kirikiñoren* ikasbi-deari: ahal dan lekutik ekin deiogun euskeraz berbetan, irakurten

eta idazten. Berak inoan lez, su handia egiteko, abarretatik hasi behar.

0. Aurkezpena

Euskal herrietan gitxi izango da, hurrean, Ebaristo Bustintza Lasuen *Kirikiño* (1866-1929) idazlea nor zan ez dakiana. Gogoratzea baino ez dago *Abarrak* haren liburua euskeraz idatzi diran liburuen artean irakurrienetako dogula.

Egin-eginean be, *Kirikiñoren* bizitzaren eta lanen inguruko gorabeherak hainbat biderrez idatzi dira; halanda be, sarreratxo honetan hiru-lau zertzelada aitatzeari egoki eretxi deutsagu. Horretara egitea pentsau dogu, batez be nor zan berbara ekarri eta bide batez euskerearen eta euskal literaturearen alde egin ebana goratu daigun. Jakingura hori daukanarentzat dago zuzenduta ba, ondoko orrialdeetan adierazoko doguna. Hagaitik, eta beste ingurumari barik, lotu gakiozan ataza horri.

1. Bizitza

Ebaristo Bustintza Lasuen 1866ko urriaren 26an jaio zan Bizkaiko Mañaria herrian, *Etxanoa* izeneko etxean. Karlos Bustintza eta Juliana Lasuen ebazan gurasoak. Zazpi urte eukazanean, aitak kale berean egoan *Zumelaga* izeneko etxea erosi eta haraxe aldatu zan familia osoa.

Lehen mailako ikasketak Mañarian bertan egin ebazan eta gero Durangon jardun eban ikasten. Hamabi urte zituala, Alman-sara (Albacete) joan zan familia osoagaz batera, osabarenera, eta hantxe egin ebazan batxiler-mailako kursoak. Gazte zuhurra zan eta ikasketa guztiak ezelako arazo barik aurrera atera zituan.

Hamazazpi urtegaz Madrilera joan zan, bide-ingeniaria izateko egin beharreko ikasketak burutu guran. Irakaskuntzan egin zan aldaketa sakona zala-ta, ostera, asmo horri uko egin eta Zientzieta-ko Fakultadean Fisika eta Matematikako ikasketak egin ebazan.

Horretan buru-belarri ebilela be, bere adimen argiagaitik nabarmendu zan. Ez zan baina, horrezaz inoiz harroputz agertu, arabere gehiago, beti azaltzen eban bere burua zintzo eta apal. Esan leiteke ikasketa horreen lizentziaturea 1895ean lortu ebala —beste hainbat idatzitan horren erreferentziatzat 1891ko bagilaren 17ko data agertu arren—, R. M.^a Azkueri Bustintzak berak idatzi eutsan gutun baten¹ adierazoten deusana aintzat hartzen badogu, behinik-behin.

Madrilen bizi zan bitartean Aita Marin frantsesaren etxean egon zan ostatur, beste zazpi lagunegaz batera. Horreen artean, geroago gobernuburu izentauko eben Miguel Primo de Rivera eta Marzelo Torrontegi euskalzalea be egon ziran. Azken horregaz hamaika osteratxo egin ohi zituan *Kirikiñok*, eta alkarregazko berbaldiotan txitean-pitean euskerearen eta euskalzaletasunaren gorabeherak azaltzen ei ziran. Ikasketak amaitu eta gero, Siguenzako Unibersidadera joan zan irakasle.

Nahi-ta luzaroan Euskal Herritik kanpora bizi izan, ez jakon inoiz euskalzaletasuna galdu, ezta arean gitxitu be. Izan be, guztiz kontrakoa jazo jakon, urteak aurrera joan ahala euskereaganako garra biztuaz eta berotuaz joiakon eta. Halanda ze, XIX. mendearen azken denporaldian, Almansan egin ebazan opor batzuetan, R. M.^a Azkueren *Euskal Izkindea* (1891) eskuetara heldu jakon, eta barrero be ama-hizkuntza ondo jakiteko eta ezagutzeko guraria etorri eta, hari gutun bat agintzea otu jakon². Sasoi horretan hasi zan, hatan be, Azkue eta *Kirikiñoren* arteko idatzizko hartu-emona. Estreinako eskutitz horretan euskerearen gose eta egarria asetzeko ze liburu erosi eta irakurri eikean itandu eutsan Azkueri. Horrezaz ganera, anaia batek esanda Bilbon *Euskalzale*³

¹ ABA-RMA/106-262 (*Kirikiño*-Azkue gutuneria). Euskaltzaindiaren jautzapeko dokumentuak, *Azkue Bibliotekan* konsultagai. Testu-txatalok grafia gaurkotu barik transkribidu doguz.

² *Ibidem*.

³ *Euskalzale* aldizkaria Bilbon atera zan 1897tik 1899ra bitartera. Hasiera baten, euskera hutsean eta 1899ko irailaren 27tik abenduaren 24ra bitartera, gobernuaren aginduaz, euskeraz eta gaztelaniaz argitaratu zan.

izeneko aldizkaria ateraten zala jakitun egoala-ta, haxe eskuratu eta irakurteari zer eritxan be itandu eutsan. Astekari horrexetan aterako da argitara, berriz, 1899ko zezeilaren 9ko data daroan alean, Ebaristo Bustintzaren lehenengo idazlana, «Zerutar bat» izenburupean. Idatzi horretarako, eta orobat astekari horretan argitaratu ebazan ganerako lan guztietarako, *Maiñari* goitizena erabili eban.

Harik aurrera, eta bere irakasle-zereginak baztertu barik, aldian-aldian lantxoak bialtzen zituan, aldizkaria desagertu zan arte.

Kirikiñori buruz idatzi diran hainbat testutan, Bilbora 1899 inguruan etorri zala adierazoten dan arren, pentsau leiteke ez zala 1901 urtea baino lehenago itzuli, Azkueri idatzitako gutunetan dinoanari erreparetan badeutsagu. Aurreragoko lanak Almansatik edo Siguenzatik postaz agindu zituan, harenbaten.

Azkuek aspaldirik igarri eban *Kirikiñok* euskalzaletasunaren alde egingo eban ekarpena oparoa eta joria izango zana, eta hagaitik, Bilbora ekarri gura eta beharra be eskini eutsan. Halanda be, ezin izan zan artez etorri, gaixotasun batek jota egoan eta horrek atzeratu egin ebalako haren etorrerea. Betiko moduan, umore zolia erabiliaz, holan inotsan Almansatik 1901eko zezeilaren 26an idatzitako eskutitz baten:

«Mi estimado amigo Azkue; se me figura ver a usted diciendo “pero qué hace ese hombre”, “viene o cuándo piensa venir o qué es de él”; pues este hombre, en vista de que la cojera amenaza quedarse de temporal, ha encargado una muleta propia y presentable, con la cual piensa aparecer por Bilbao hecho un cojo oficial y auténtico»⁴.

⁴ ABA-RMA/106-262.

Bilbora itzuli zanean, orduko Gran Vía-n egoan *Sociedad Minera de San Antonio de Montellano* izeneko lantegian hasi zan beharrean; bulegari-lan hori euskerazko atazakaz tartekatu eban beti. 1913ra arte jardun eban han.

Kanpotik etorri zanik eta gehiago Bilbon bizi izan zan azken urtera arte. Oporraldiak ostera, Mañarian, bere jaioterrian, igaroten zituan lasai eta baketsu.

1888an Azkuek Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako euskerazko katedrea irabazi eban Bilboko eskola baten. Ekarri daigun burura katedra horretara Sabino Arana eta Miguel de Unamuno be aurkeztu zirala, eta lehiaketa horrek baktaxaren ibilbidearen nondik norakoak baldintzatuko zituala bete-betean. Ez dogu gai horretan lar sakondu gura, baina ezta gertaera hori estarian itxi be, inguruko zehetasunak ondo ulertzeko beharrezkoa da eta. Euskerazko katedra hori Azkuek irabazi eban baina, euskal literatura eta musika arloko ikerketek dedikazino handia eskatzen eutsien; bestetik, hiztegia be prestetan ebilen eta ezin eban arduraguztia bere lepoan eroan. Hori zala-ta, Bustintzak berak ordezkatu eban irakasle-zereginetan lau urtean. Gero Foru Aldundiko presidentea zan Luis de Salazarrek, hatan be, betebehar horrextarako izentau eban eta hogeitau urtean bete eban egiteko hau eten barik.

1899ko abenduaren 24an *Euskalzale* astekariaren azken alea argitaratu bazan be, Azkueren helburuen artean baegoan beste aldizkariaren bat ateratea. Halan, agintarien oztopo batzuk gainditu eta ostean, *Ibaizabal* izeneko astekari barria sortu zan 1902an. *Kirikiño* egin eben horren zuzendari be.

Eginkizun horretan inarduala hil jakon Almansan aita, Karlos Bustintza Olaso, 1902ko apirilaren 24an.

1909ko irailaren 25ean lobeia eban Basili Bustintza Ozerinegaz ezkondu zan baina ez eben familiarik ekarri. Antza, Azkuek ondo eretxi ez-edo ezkontza horri eta, arean hotzitu zan bera eta *Kirikiño*ren arteko hartu-emona (Azkuek Diana bere arrabeagaz ezkondu eiten gura eban, erregular).

1913ko zezeilaren 1ean Euzko Alderdi Jeltzalearen ideologia-ri loturiko *Euzkadi* izenburuko egunerokoa hasi zan argitaratzen Bilbon. Eguneroko horrek «Euskal atala» eukan eta horren zuzendari izentau eben Bustintza. *Euzkadiren* atal horren zuzendari-beharretan jardun eban beste hamasei urtean. Orduantxe egin zan guztiz entzutetsu *Kirikiño* ezizena, eta handik atxina, goitizen horrexegaz ezagutu izan da gure literaturan. Baina urteak aurrera joiazan eta osasuna be geroago eta makalagoa eukan. Halan, 1928an betebehar hau itxi egin behar izan eban. Harik aurrera Nikolas Ormaetxea *Orixe* idazleak ordezkatu eban eginkizun horretan.

Urte berean Mañarira itzuli zan, zahartzaroko egunak ahalik eta baketsuen igaroteko asmoaz, baina atsedanak ez eutsan luzaroan lagundu. Etxe osteko ortuan izandako jausiera baten ondorioz eta lehendik eukan arterio-esklerosiak jota, 1929ko urtarilaren 31n hil zan:

«Baiña urteak parkatzen ez... Eta bein Bilbao'n eukan lantegia utzi ta Mañari'ra joan zitzaigun *Kirikiño*, zartzaroko egunak atsedan goxoan igarotzeko asmoz. 1928'garren urteko iraillaren 6'an zan. Nekaturik ere ba zegoen bear bada, ala eriotzaren urbiltasuna somatzen ote? Dana dalarik, Goiko Jaunak betiko atsedenera eramman zigun. 1929-1-31'an, Mañari'n, bere etxe Zumelaga'n il zan gure gizaseme zangarra. Egun batzuk lenago, etxosteko baratzean zebilela arri batean laban egiñik erori ta ortik il zan Elizakoak artu ondoren. Kristau ta euskaltzale bizi, kristau ta euskaltzale il»⁵.

Euskaldun askoren antzera, mendizale amorratua zan *Kirikiño*; inguruko mendi eta tontor guztiak txokoz txoko eta goitik

⁵ S. Onaindia: *Euskal literatura III*, Bilbao, 1974, 117 or.

behera ezagutzen ebazan. Baserritartzat eukan bere burua betebetan eta kanpoan luzaroan bizi izan bazan be, ez eutsan baserrikotasun horri uko egin egundo be. Hatan be, holantxe gogoratu eban Manuel Ziarsolo *Abeletxe* idazleak:

«Bai, Mañari'ko baserritarra. Bein, bere azalpen sakon eta yakintsuak entzuten egozan batzuk esan ei eben:

—Yaun au baserritar dala nok esango leuke?

—Baita izan be —erantzun ei eutsen *Kirikiño*ok—. Begiratuko daustazuen alde guztietatik baserritarra naz ni: Baserritar utsa. Baserritarrak izan ziran nere gurasoak eta neure gurasoen gurasoak, belaunik belaun. Eta baserrian jayo nintzan neu be. Beraz baserritar izate au eztot nik iñun ez iñoz aztuko»⁶.

Apaltasuna zan *Kirikiño*ren ezaugarri nagusietariko bat. Apala eta zintzoa, bera bihotz onekoa, inor izatekotan; harropuzkeria zer zan be ez ei ekian. Hagaitik, ez eban onartu bera bizi zala ezelako omenaldirik egin ekion, euskerearen alde egin eban lana ona eta ugaria izanagaitik.

«*Kirikiño* apala zan, apal-apala zan *Kirikiño*! Ondiño bixirik zala, norbaiteri, bere aintzazko jayen bat egitia otu yakon, alpefik baña, bixirik zan arte, alako jairik egiten ezaban laketu-eta.

Andik laster txu il zan baña *Kirikiño*, andik beinguan beste ludiratu zan Bustintza'tar Ebaista, eta orain, bere bigarren urteu'ena dala bide, Bilbao'ko Euzko-Gastedi'kuak dei eginda garaiz iraga'riko dan egunen baten eus-

⁶ M. Ziarsolo, *Abeletxe*: «Oroitzapen txiki bat», *Zeruko Argia*, 191 zenbakia, 1966.

kotař aldra aundijak, —J. L.— Mañari'ratuko gara, gure *Kirikiño* aundijari, bixirik zala ezetarabe laketuko ezeuskun bere omenezko euzkel-jai bat egifera, *buñori* ta *añnabañezko* idazkun edeřak, era jayo ta il zan etxie-tako ate-buruetan iminřera»⁷.

Ataltxo hau amaitzeko, *Abeletxe* ekarriko dogu barriro gogora, *Kirikiño*ren deskripzino labur baten bitartez ezin hobeto adierazoten deuskulako zelakoa zan:

«Aretxa lez sendo ta lerden. Bizar politez oso serioa. Betaurreko biribillen ordeř, ilgoran illargi erdiak izaten daben irudikoak eroazan. Gure korbatearen lekuan, lazo bat txori eginda. Soñez, yakituriz, izakeraz, bere bizikoa zan»⁸.

2. Lana

Aurreko puntuan aitatu doguz daborduko *Kirikiño* egindako lan batzuk. Horraitino, merezidu dau oraingoan be haren produktinoa azpimarratzea, esandakoak sakondu daiguzan alde batetik, eta esan barik gelditu diranak esateko, bestetik.

Arlo hau modu argiaz garatzeko, azpipuntu batzuk eginda antolatuko dogu.

2. 1. *Kirikiño*, irakaslea

Lehenengo Azkueren ordeřko lez eta ostean izentazinodun irakaslea izanda, guztira hogeta lau urtean jardun eban *Kirikiño* irakasle, eten be egin barik. Zeregin horretan gehien azaleratu

⁷ I. Uribitarte: «*Kirikiño* zanaren bigařen urteuřena», *Euzkerea*, XXXVI, III-1931.

⁸ M. Ziarzolo, *Abeletxe*: Ibidem.

behar dan ezaugarria ikasleakaz sortu eban hartu-emon estua, sendoa eta zintzoa dogu. Irakatsi beharrekoa irakatsiaz ganera, ikasleakan hurkotasuna sortzen ekian, hareekaz bat egiten. Horren testigu doguz *Kirikiñoren* maisu-lana goralduten eban hainbat eta hainbat ikaslek idatzitako aitamen ugariak.

Azken baten, *Kirikiñoren* zereginik garrantzizkoena irakas-kuntza izan zala esan geinke. Eskolako mutilak laguntzat zituan ikasletzat baino, eta horrek mesede handia egin eutsan alkarre-gazko tratuari. Halanda ze, haren eskoletan euskeraz tautik jakin barik azaldu ziran batzuk hizkuntza horretan berba egiteko beste jakitea lortu eban; beste batzuk, ostera, idaztera be bultzatu eba-zan. Horren adibide dogu, esate baterako, Manuel Ziarsolo *Abe-letxe* idazlea bera:

«Baña laster uxatu eustazan kezkak eta lotsak, bere yardun atsegingarriarekin. Irakurten ikasi baneban, idazten be ikasi bear nebala esan eustan, errezago zala-ta. Adorez bete nindun eta zirriborro batzuk egiten aste-ko esan, berak orraztuko eustazala-ta. Bakotxak berak al dauen neurrian alegindu ezkeru, euskera berpiztuko genula.

Olantxe asi nintzan ta berari eskerrak nozu gaur nazan idazle apurtxo. Badakit, nirekin ebana beste eun-dazekin ba egin ebala, beste ainbeste idazle sortuaz.

Iñoiz ausnartu dot, bera izan ezpazan, bear bada, gure izkuntzari buruz ardurabako bat izango nintzala.

Eskerrak egin bearrean naz ba gure irakasle izan zan *Kirikiño* maiteari. Ain yakintsu ta apal izan zan yaun agurgarriari»⁹.

⁹ Idem.

Ikasleakaz eukan lotura prestu eta jator hori azpimarratu eban S. Onaindiak be beste hausnarketa baten:

«Egia osorik aitortzeko, auxe dugu Bustintza'ren lanik aipagarriena: euskara irakatsiz, bilbotarren biotzak euskal maitasunean ixiotu. Ori zan barruan zerabilen izatezko deiaren su-miin zolia, ta dei horrerri jarraituaz arek egiñiko lan ixil gozoaren ondorena ezta errez neurriaren ertz-barruan jartea. Ikasleak maite zuten; eura-kin etzan egundo ere irakasle, adiskide barruko baizik. Ikasle-irakasle arteko maitasun lokarri onen ezaugarri egiazkoak ditugu jaiero eta, ikastaro azkeneruntz batez ere, Bizkai'ko erri askotara egin oi zituzten ibiltaldi aiztu-eziñak; auetan agertzen omen zan *Kirikiño* iñoizkorik gizon txeratsu bioztunen, autu ezti pozkorrean lagun biotz-adimenak alaitu ta argiturik»¹⁰.

Ikusi geinken moduan, ikasturte bukaeran osteratxoak be egiten ebezan Bizkaiko herrietatik eta holakoetan alkarrizketa gozokak eukiten ei ebezan, lagun zintzoen antzera.

*Kirikiño*ren lana ez zan, ezelan be, euskerea irakastera mugatu. Arabere gehiago, badakigu ikasleak euskeraz berba egitera kinatu ezeze, euskeraz irakurtera eta euskeraz idaztera be egin zituala. Ekin eta ekin ibiltan ei jaken eta atzenean, eginahalean ibilte hori ez zan alperrekoa izan, ekinaren porasuz hainbat gauza lortu eban eta. Eskoletan ibilitako ikasle piloak idatzita itxi ebenak horretara erakusten deusku.

Txeraz eta begi onez hartzen zituan idazle gazteak; euskerearen aldekoak baziran, barriz, bere eskuetan egoan guztia egiteko prest, edozertan laguntzeko gertu agertzen zan beti. Besteek egingdako testuak zuzendu eta orraztu egiten zituan, pozarren beti be;

¹⁰ S. Onaindia: *Ibidem*, 115 or.

ikasleek euskera kontuetan euki eikiezan zalantzak, lotsak eta enparaduak kentzen be egundoko ahaleginak egiten ebazan, eta holan inoan:

«Badira abeñtzale euskaldunak geure izkeran iratzi leienak, batzuk ondo ta gañbi, beste batzuk nik legez moñdoloka, ta guztiak iratzi beañ leukee geldi egon barik. Bilduñez josirik ezkaizan egon esaten: “Esango dabe au eztala euskera gañbia, bañe egingo deuste, beronen utsak baten batek ipiñiko dauz agirian.”... Ez oñen bilduñ izan, lenengo gitxik irazten dabelako uts barik euskeraz nai eñderaz, eta bigañen uleñtuko direan legez gauzak esan ezkeron naikoa dalako; gizonak daukan eskañ edo grazia itzegiteko edo irazteko ezta txarño-esalai atsegiña emoteko, noberen gogoa besteai jakin azoteko baño, ta ulertuten badeuskue eginda dago geurea. Beraz, iratzi aldaie-nak iratzi daijala; ikusi daigula euskaldunak emengo albistarietan ikusten dogun baño irazki geiago euskeraz. Ezkaizan egon, gizonak, etzunda, ta negaña dariola “ezin dogu” esaten. Al danari eldu gakioan gogoñ, alegindu gai-zan, alegiña egiten dabenak zerbait beti ataraten dau»¹¹.

Ikasbide bera da *Kirikiñok*, ikasleak bitarteko, euskaldunon artean zabaldu gura ebana, eta *apostolua* bailitzan, mezua zabaltzen ahalegindu zan han-hor-hemen. Adolfo de Larrañagak halan inoan:

«Entre los indios hubiera sido un brahamañ de sabiduria apacible; entre los cristiaños fue un creyente que dio frutos de ejemplaridad, y entre los euzkeldunes un apóstol»¹².

¹¹ E. Bustintza, *Kirikiñok*: «Al dana egin beañ», *Euzkadi*, II, IV-1905.

¹² A. de Larrañaga: «Un recuerdo de *Kirikiñok*», *Euzkerea*, II, I-1929.

2. 2. Kirikiño, idazlea

Nahi-ta denpora asko Euskal Herritik kanpora egin, euskerea eta herria ez ebazan inoiz, ez gogotik, ez burutik kendu. Ezta hurrik be, euskaldun peto-petotzat eukan-eta bere burua. Siguenzatic Azkueri idatzitako gutun baten halan dino, barriz:

«Durante las épocas de vacaciones, excepto dos veranos que pasé en Mañaria, siempre he vivido en Almansa, primero con mi tío y hermanos, después con mis padres, los cuales a la muerte de aquel viéronse obligados a trasladarse desde Bizcaya. En honra de los míos debo consignar que el idioma *oficial* del hogar nuestro ha sido siempre y continúa siendo el éuskaro, y solo con esto comprenderá usted que no hay nada de particular en que yo haya resultado, a pesar de tan larga ausencia de esa tierra, un bizcainazo tan auténtico y tan castizo como el pastor que con más garbo zarandea las abarcas por entre los peñascales de Mañaria»¹³.

Siguenzatic bertatik hasi zan agintzen bere idatzizko lantxoak, *Euskalzale* astekarian agertu ziranak *Maiñari* ezizenaz izenpetuta. Harik aurrera naro idatzi eban *Kirikiñok*. Izan be, euskal idazleen artean, *Orixegaz* batera, gehien idatzi dauen idazlea dogu, eta hori ez da meritu makala. Hasiera baten, euskeraz idazteko erreparuak-edo euki bazituan be, *Kirikiñok* lan itzela egitea lortu eban euskera arloan.

— *Euskalzale (1897-1899)*

R. M.^a Azkuek euskera hutsezko aldizkari biren sorreran parte hartu eban modu zuzenean: *Euskalzalen (1897-1899)* eta *Ibai-*

¹³ ABA-RMA/106-262.

zabalen (1902-1903). Jakina danez, aldizkari bi horreek euskal kazetaritzaren historian berebiziko garrantzia dabe. Lehenengoaren hasierako alea 1897ko urtarrilaren 3an agertu zan. Astekaria zan (*Astean asteango albistaria*, izenaren azpian ekarren moduan). Beste gauza batzuen artean, hau asterokoau hizkuntzari eta batez be neologismoei buruz eukazan ideak zabaltzeko bide bihurtu zan. Zeregin horreetarako eleizgizonen laguntza euki eban batez be, garai haretan, bere ustez, eurak ziralako euskerea ondoen gordeten ei ebenak eta erderearen kutsadurarik gitxien eukienak.

Lehenengotan astekari hori euskeraz baino egiten ez bazan be, gobernuak halan idatzita egitea galarazo eta horren ondorioz 1899ko irailaren 27tik aurrera euskeraz eta gaztelaniaz be argitaratzen hasi zan. Debeku horrezaz ganera, orduko ehun pezeta-ko isuna be jarri eutsen. Dana dala, ez eban modu horretan luzaro irauin eta urte horretako abenduaren 24an atera zan azken alea.

Astekari horretan Ebaristo Bustintzaren ondoko idazlanak azaldu ziran, guztiak *Maiñari* ezizenaz izenpetuta eta, itxura guttien arabera, Siguenzatik edo Almansatik bialduta, hondino Bilbora etorri barik egoalako urte hatan:

- «Zerutar bat» (1899ko zezeilaren 9an).
- «Donetasuneko bidean» (1899ko martiaren 16an).
- «Kontuz irrilariakaz» (1899ko apirilaren 6an).
- «Azeri azartuak oilloa daroa» (1899ko maiatzaren 4an).
- «Aurrerapen ikaragarri bat osakuntzan» (1899ko bagilaren 1ean).
- «Izkirimiriak» (3) (1899ko maiatzaren 18an, 25ean eta bagilaren 8an).
- «Itozurak lekukotzat» (zatika argitaratua: 1899ko abuztuaren 24an, 31n, irailaren 7an eta urriaren 15ean; azken hau euskeraz eta gaztelaniaz).
- «Eskutitz polit bat» (1899ko irailaren 7an).

— *Ibaizabal (1902-1903)*

Esan dogun moduan, *Euskalzale* astekaria desagertu arren, Azkuek baerabilen buruan beste aldizkari bat kaleratzeko gogo bizia, eta astiro-astiro eskini egiten izan eutsan ardura horren zuzendaritza *Kirikiñori*. Horrek, hasiera baten ezinezkotzat joten eban eginkizun hori aurrera eroatea, batez be, ez ebalako bere burua ikusten kazetari-beharrak egiten.

«Pasando a lo que me toca personalmente, doy a usted muchas gracias por la honra que me hace ofreciéndome el cargo de director, pero no puedo aceptar por la sencilla razón de que no he sido nunca periodista, ni de cerca ni de lejos, ni sé con qué se guisa eso.

Lo único que en mi vida he escrito para el público son los chascarrillos más o menos estirados que envié a usted para *Euskalzale* y costándome mucho trabajo ponerlos en un vascuence relativamente decente.

No sabe usted lo que siento dar esta negativa; pero no puedo hacer otra cosa, porque sería un absurdo y en mí una temeridad vana sentar plaza de maestro en una profesión completamente desconocida para mí, y con el aditamento de no dominar, como es debido, el idioma que habría de manejar; sería indudable el fracaso»¹⁴.

Baina Azkue be burugogor, eta ez zan ezezko hori entzunda geldi eta mutu gelditu; ez zan ezelan be kikildu. Arabere gehiago, behin eta barriro opetsi eutsan zeregin hori eta azkenean, ekin eta ekin ebilkola-ta ikusita, *Kirikiñok* baiezkoa emon eban, umoretsu beti lez:

¹⁴ Ibidem.

«Albistarian ganean dinotzut euki naizula azaldari nagusitzat edo zeuk nai dozun maillakotzat: len legez orain bere nago nire burua eztalakoan gauza, orrelango arloetarako; baiña zu lango gizon bati bigarren ezetza emoteko eztaukat biotzik, eta beraz, nazana nazala, aurrera, joango naz da Iaungoikoak laguntasun andia (berarizkoa gero) emoten ezpadauzku, atarako dogu nire nagusitasunagaz iru ankako ollaskoren bat»¹⁵.

Holan, *Kirikiño* bera izan zan *Ibaizabal* astekariaren zuzendaria 1902ko urtarrilaren 5ean argitaratzen hasi zanetik 1903ko abenduaren 27an azken alea atera zan artean. Bere bizi guztian kazetaritza arloan egin eban lana egundokoa da, hain ona ze, bera da esparru horretan euskereak dauen zutaberik sendoenetarikoa. Eta idatzi be, jarraian idatzi zituan *Kirikiñok* astekari horretan izkirimiriak, igarkizunak, ipuinak, pasadizuak, artikulua eta beste garaitikoak be. Sasoi horretan *Bloa* (bere abizenen lehenengo hizkiez osaturik, hau da, «Bustintza Lasuen Olaso Agirre»-ren akrostikoa), *Boldro*, *Zumelaga* eta beste goitzen batzuk erabili ebazan. Hamaikatxo idatzi, sinatu barik be, argitara emon eban.

Ebaristo Bustintza kazetaritza arloan esperientzia urrikoa zan eta, azken baten, zeregin hareetan barria; hainbat aholku emon eutsazan Azkueri berari, baina. Puntu baten baino gehiagotan, ganera, azken horrek jaramon be egin eutsan. Horreotariko puntuen artean euskerearen erabilerea bera egoan. Esan dogu lehen-
txoago Azkuek *Euskalzale* astekaria hizkuntzari eta neologismoei buruz eukazan ideak zabaltzeko bidetzat erabilten ebala. Bustintzak, ostera, ahalik eta irakurlé kopururik gehien lortu gura eban eta horretarako *Euskalzalen* erabilien berbetea ez ei zan, haren eretxian, ez zuzenena, ezta egokiena be:

¹⁵ Ibidem.

«Sobre la ortografía creo que sería mejor no chocar con el pueblo, y escribir de modo que la mayoría pudiera leer de corrido o sin esfuerzo desde un principio; porque habrá muchos, sin duda, que desmayarán si les cuesta trabajo enterarse de lo que leen. A propósito de esto, recuerdo que el vascongado que dio noticia a mi hermano de la existencia de *Euskalzale*, dijo que el vascuence de este era *sui generis*, que no era el que hablábamos todos, sino uno inventado para su uso particular por los que tenían afición a estudios filológicos. Ni mi hermano ni yo dimos crédito a lo que dijo; él seguramente leyó alguna vez la revista, y al ver alguna dificultad en la lectura, arrojó sin más ni más el periódico y formó su juicio con tanta ligereza. De estos creo yo que habrá muchos, y será menester atraerlos dándoles el alimento en forma que lo puedan digerir, como al niño recién destetado se le dan papillas y sopas en vez de un plato de *tripacallos*, por ejemplo»¹⁶.

Ibaizabal astekarian gerora *Abarrak* liburuan argitaratuko ziran hiru irakurgai azaldu ziran:

- «Peru *Makur*» (zatika argitaratua, 1902ko garagarriaren 20an eta 27an, eta *Bloa* goitizenagaz izenpeturik).
- «Azeriari, azeria» (zatika argitaratua, 1903ko garagarriaren 5ean eta 12an).
- «Aurrerapen ikusgarri bat osakuntzan» (1903ko abenduarien 27an; lehenago *Euskalzale* astekarian be argitaratua).

— *Euzkadi*

1913ko zezeilaren 1ean *Euzkadi* egunkaria argitaratzen hasi zanetik eta 1928an ataza horri itxi eutsan arte «Euskal Atala»

¹⁶ *Ibidem*.

eritxanaren zuzendari egon zan Bustintza; egunean-egunean azaltzen ziran haren lanak. Garai horretan egin eban guztiz entzutetsu *Kirikiño* goitizena, aurreragotik beste batzuk erabili bae-bazan be, ikusi dogun moduan.

Urte batzuk lehenago Azkueri bere burua ez ebala kazetari-landetan ikusten esan eutsan baina, hamen egundoko kazetari-jardunean beste hamasei urtean (1913-1928). Egunkari horretan atera zituan artikuluetan arlo askotako gaiak jorratu zituan: eguneroko gertakizunak, pasadizuak, euskal gaiak, etab.

Bertan, geroago *Abarrak* liburuan batuta agertu ziran beste sei ipuin be argitaratu zituan: «Aratoste», «Urtebarri, barri», «Kukua entzuten», «Zinaldari arteza», «Tximistargi barria» eta «Alkar aitu hobe da alkar hil baino».

Esan daigun *Kirikiño*ren lanik gehienak adierazo doguzan hiru argitalpen horreetan agertu ziran arren, badirala beste idatzi asko han-hor-hemenka beste aldizkari batzuetan be: *Euzko-Deya*, *Gure Herria* edo *Euzkadin*, berbarako.

2. 3. *Kirikiño, hizlaria*

Kirikiño hizlari bikaina be izan zan, berba-jario onekoa. Haren berbaldietan zein mitinetan entzuleak piloan-piloan batzen ziran, eta emon gura eban mezua ezari-ezarian hareen bihotz barruetara sartzen ei zan. Berba gozoak erabili ohi zituan eta dotoreziaz jarduten eban.

Euskal jaietan mintzalari sutsu agertzen zan; Bizkaian, batez be, euskalzaletasuna zindotzea lortu eban.

«Habló a los niños en euzkera. Fué una sencilla plática ungida con la gracia nobilísima de un apostolado. Recuerdo, que los niños le miraban extáticamente. Entonces, ante aquellas palabras cálidas, candorosas, simples como rayos de sol, pensé que estábamos frente a un maestro elegido del Señor. (...) El sentimiento que

dejó en el alma de aquellos niños ávidos de hablar, como hablaron sus abuelos, fué tan grande, que algunos lloraban, y yo me sentí niño por el ambiente (...)¹⁷.

Sarritan esan eta entzun izan da hartzaileari mezuren bat heldu dakion gura badogu, lehenengo eta behin bialtzaileak berak sinistu egin behar dauela hori mezuori. Eta zentzun horretatik, *Kirikiñok* bihotz-bihotzetik ateraten zituala berbak esan behar dogu, sentidu egiten ebazalako eurok banan-banan. Etorri handiko hiztuna zan, eta hatakotzat eukien ordukoek be: hunkitu egiten zituan guztiz entzuleak, ume eta heldu, txiki eta handi, berbak polito eginda danen bihotzetara zirrara eta emozinoa ekarten ekialako.

2. 4. *Kirikiño, olerkaria*

Egia esanda, ez dakigu benetan *Kirikiñok* bertsoetan egin eban inoiz, bai baina bertsolariak eurak zirikatzen eta txalotzen sarritan ibili zana. Eta idatzi be, nahikoa poemarik idatzi eban.

1915ean Euzkeltzale-Bazkunak argitaratutako euskal kantuen hiru liburutxoetan be haren hainbat olerki azaldu zan. Horreetako batzuk ospe handia izan dabe, esaterako: «Aitonaren esana», «Lora polita ontzijan», «Jagi, jagi!», «Ama zeu barik larri», «Ene aberri, polit ederra», «Zetara ator ona?», «Gertu gagoz», «Anton Aizkorri», «Negarrez ikusten zaut», «Oi txori polita!», «Abestu biar dogu», «Mendijan axia», «Deun-jonaz», «Len baño len itxartu zaiz», etab.

Barriro be, sentiera fina, dardara eta gogo sutsua dariez olerkioi; orduan euskera garbiagoa eta landuagoa erabili eban egileak.

1901eko abuztuaren 26an Bilbon egin ziran Lore Jokoetan, eta Miguel de Unamuno artezle egoala, Bustintzaren «Fides» ize-neko olerkia saritu zan.

¹⁷ A. Larrañaga: *Ibidem*.

Handik urte batzuetara, 1924an hain zuzen be, *Gure Herria* hilerokoak euskal kopia lehiaketa antolatu eban lau sailetan bananduta: 1) *Olerki arin laburrak*; 2) *Kopla batzuk euskaldunen ohitura eta jokoz*; 3) *Euskal Herria eta euskera berariz goستن dituzten olerkiak* eta 4) *Jainkoaz eta Andra Mariaz*. Sariak Ramon Marurik, Klaudio Sagartzazuk, Kepa Enbeitak eta Juan Garbizuk jaso ebezan, hurrenez hurren. *Kirikiñok* be berea («Nai dan lez?... Aal dan lez»)¹⁸ bialdu eban, baina sail berezi baten eta, hagaitik, sariketatik kanpora geratu zan. Lehiaketaz ate egotearren ez eutsien saririk emon, baina ha-ta guzti be aitamen berezia egin eutsien:

«Bertzalde, sail berezi batean ezarri ditugu *Kirikiño* aipatuaren neurthitzak, gai berezi batekoak direlaketz. Saririk ez diogu eman *Kirikiño*’ri, bainan gure adiskideak nahiko du onhartu, orhoitzapentzat bederen, helarazi gogo dakogun Aipamen Ohorezkoa»¹⁹.

Badira, beste alde batetik, *Kirikiñok* idatzi ebazan eta gaur egun be oso entzutetsuak diran kantu edo koplak, Santa Ageda kantak, esate baterako:

*Aintzaldu daigun Agate Deuna
bizar da ba, Deun Agate.
Etxe honetan zorijon utsa
betiko euko al dabe...*

1909an Lourdesera egin zan peregrinazinoan be, berak orraztu, egokitu eta osatu eban Andra Mariari abestu eutsien kantea:

¹⁸ Tradizinoan antzeko errefrauak oso entzunak dira. Besteak beste, *Refraanes y Sentencias* (1596) bildumako 127 errefraua dakarsku horrek burura: «Al daigun legez, ta ez nai degun legez».

¹⁹ S. Onaindia, *Euskal literatura* III, Bilbao, 1974, 121 or.

*Aguí, Josu'ren ama,
Neskutz matetsuba,
Aguí, Itxasoko ixar,
Geure jabolia...*

2. 5. Beste lan batzuk: antzerkigintza, itzulpenak eta egokitzape- nak

Azal-azaletik baino ez bada be, ezinbestekotzat deritxagu *Kirikiñok* egindako lan edo jorratutako beste arlo batzuk be azal-
tzeari.

Antzerkigintzan, barbarako, esan behar da «Azerijari, azeri-
ja» eritxan ipuina antzerkira egokitu ebalá, *Anton Berakatz* izen-
burupean. 1914an antzeztu zan lehenengo bakarrizketa hori eta
handik atxina egundoko itzala izan eban.

Beste alde batetik, Alfredo Etxabe ertilariaren *Lelo* hiru eki-
taldiko antzerkia euskerara bihurtu eban. Horrezaz ganera biz-
kaieraz egokitu zituan Jose Elizondoren *Txomin-Arayo* eta Abeli-
no Barriolaren *Meza Barriya* izeneko ekitaldi bateko antzerkiak
be.

Kirikiñok egindako itzulpenak be, labur nahi luze, ugariak eta
oparoak dira, eta sinatu bakoak askotan: ezteguak, bateoak, lehe-
nengo jaunartzearen gomutagarriak, hileta-inskripzioak, eta
beste hamaikatxo arlo landu ebazan.

Azkenik, ez daigun ahaztu R. M.^a Azkueri be laguntza handia
eskini eutsala bere *Diccionario trilingüe vasco-español-francés*
izenburuko hiztegia prestetan: herritik hartzen zituan makina bat
berba, esaera, etab. pitean-pitean agintzen eutsan hari, hiztegian
sartu eizan.

3. *Kirikiñoren lanen argitalpenak*

Orixegaz batera euskal idazleen artean gehien idatzi daueneta-
rikoa izan arren, bera bizi zala liburu bakarra atera zan argitara:

Abarrak (Bilbao, 1918), Grijelmoren alargun eta semeen moldizte-
gian; eta horixe da gaurko honetan edizino honetarako dakargun
testua be. Gerotxoagoko atal baten arean gehiago aztertuko badogu
be, komenidu da ezertan hasi orduko, orain artean egin izan diran
argitalpenak berbara ekartea, iraisean behinik behin.

3.1. *Abarrak* (1918)

Guztira 21 ipuin dira. Idazleak berak sarreratxoan dinoan
moduan, batzuk benetan jazorikoak dira, asaba zaharrakandik
ahorik harakoak; beste batzuk, herrian bertan entzunak eta gero
idatziak; eta azkenik, badira asmatutakoak be. Euskera arin eta
bizian idatzita dagoz. Arrakasta handia izan eban liburuak, nahi-
ta berak irabazi handirik koiu ez salmenteagaz:

«Adueñose de las entrañas del pueblo, y adueñóse no
para seguir las bajas pasiones del dinero, sino para el
bien de la familia vasca. Hombre bueno, si los hay,
humilde, callado, incapaz de despreciar a nadie, que solo
al dinero y al rico sabía fruncir el entrecejo. Su libro se
vendió por miles, sin que él llegara a percibir o a pedir ni
una peseta por él»²⁰.

Izan dira liburu honen beranduagoko beste edizino batzuk be,
osorik zein zatika, bai bizkaieraz, bai batuaz argitaratuta.

3.2. *Bigarrengo Abarrak* (Zornotza, 1930)

Kirikiño hil eta ostean, Euzko Pizkundera erakundeak eginda-
ko argitalpena, *Jaungoikozaleren* moldiztegian. Liburuan 43
ipuin eta 3 olerki dagoz.

²⁰ S. Onaindia: «Evaristo de Bustinza *Kirikiño* (1866-1929)» *La Gran Enci-
clopedia Vasca*, t. II, Bilbao, 1979, 432 or., (E. de Aranzadiren berbak dira).

3.3. *Abarrak... eta abar* (Bilbao, 1966)

Gráficas Bilbao-n inprimidua eta Aita Santi Onaindiaren ardurapean eginiko edizinoa da. Bertan aurreko argitalpen bietan azaltzen diran testuak eta *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarietan agertutako idazlanak batu ziran. Lau atal eginda bananduta dagoz liburu horretako artikulua: a) *euskera*, b) *jakingarriak*, c) *bertsoak eta izkirimiriak* eta d) *albisteak*.

Gorago aitatu dogun lez, egin dira ipuinen beste argitalpen batzuk be, zatika baino ez bada be, baina hondino *Euzkadi* egunkarian 1913tik 1928ra bitartera eten barik idatzi zituan lanen argitalpena falta da. Guztiak ditu Xabier Perea kirikiñozeleak pilotuta hamasei tomotan. Horreetariko batzuk argitaratu ditu Labayru Ikastegiak.

3.4. *Egunekoa* (Bilbao, 1981)

Euzkadi egunkariaren lehen orrian «Egunekua» eritxan atalean argitaratutako idazkien txorrea da. Era askotako gaiak dagoz hor: egunekoak (politikaren edo euskeraren ganekoak), jaien ingurukoak (San Antonio, San Martin, Donibaneak, Gabonak, etab.), gure historiaren pasadizuak (batez be, Karlistaden ingurukoak: jazoerak eta kontakizunak), etab. Gehienbat, ahoz aho batutako barriak dira.

3.5. *Edo geuk edo inork ez. Euskeraren alde* (Bilbao, 1984)

Liburu honetan azaltzen diran testuak be *Euzkadi* egunkarietik hartuta dagoz. Izenburuak berak erakusten deuskun moduan, gai nagusi biren gorabeherak azaltzen ditue lanok: euskerea eta euskotarren aberria. Liburu honi esker jakin geinke, hatan be, nogino eta zelan maite ebazan *Kirikiño*k euskaldunon berbetea eta aberria: bihotz-bihotzetik, mun-munetik.

«Euskerea da euskotarren gauzarik euskotarrena, berau da ba garbi ta zeatz bananduten gaituana atzerri-
tar guztiakandik»²¹.

3.6. *Guda nagusia (1914-1918)* (Bilbao, 1989)

Guda Nagusiko kronikak azaltzen dira liburu honetan. Batzuk kronika luzeak dira; beste batzuk, ostera; barri laburrak. Azken honeen adibidetzat doguz guda hasiereari eta guda osteari jagokezan barriak.

4. *Kirikiñoren idazkerea: garbizaletasuna eta herrikoitasuna buztarturik*

XIX. mendearen azken hamarkadan euskal kulturearen berbizkundera sortu zan eta horregaz batera abertzaletasuna zabaldu. Gizarte- eta kultura-izartze horrek Bizkaian, batik bat, euki eban indarrik gehien. Euskereak berebiziko garrantzia hartu eban eta gure hizkuntzaz idatzitako lanak, itzulpenak, sariketak eta lehiaketak sano ugaritu ziran. Gogoratu daigun, esate baterako, giro horretan argitaratu zala euskeraz egindako lehenengo elaberritzat jo izan dan obrea: Txomin Agirrek idatzitako *Auñemendiko Lorea*²².

Baina, sasoi berean aldaketa ideologikoa be egon zan. Holan, 1901etik aurrera Euzko Alderdi Jeltzalea sortu zan, Sabiño Arana Goiri buru zala. Nazionalismoak hizkuntza eta euskal literatura sendotzeko ahaleginak egin zituan, ahalegin handiak, eta bide horretatik euskera garbiaren aldeko indarrak gogor nagusitu ziran: nahaste bako euskerea gura eben. Horretarako, beste berbeta batzuetatik eratorritako berbak baztertu egin ebezan eta

²¹ E. Bustintza, *Kirikiño: Euzkadi*, II, I-1913.

²² *Auñemendiko lorea* 1897an argitaratu zan lehenengoz, *Euskalzale* aldizkarian. Hurrengo urtean atera zan liburu moduan.

horreen ordean barriak asmau. Asmautako edo sortutako hitz barriotarik, batzuk onarpen sutsua izan eben, eta erraz zabaldu ziran; baina horrenbeste berba ezezagun, barri erabilteak neurri handi baten testua ilundu be egiten eban eta betiko euskaldun «garbiek» ulertu ez egiten eben.

Sabino Arana eta R. M.^a Azkue mobimentu ideologiko eta filologiko horren aurrelariak izan ziran. Askotan alkarreganik urrun ipini dira, baina alderdi batzuetan oso bateratsu azaltzen jakuz historian zehar, biak, bakotxa bere neurrian, hizkuntzan denporak garrenean gorpuztu izan diran aldaketen eragile nagusiak doguzalako. Halanda ze, aparteko balioa eta eragina izan dabe Azkueren *Euskal Izkindeak* (1891) eta *Diccionario trilingüe* (1905-1906), alde batetik, eta Sabino Aranak eta honen jarraitzaileek²³ proponidu ebezan berba garbizaleek, bestetik. Lehentxoago esan dogun moduan, euskerazko katedrea Azkuek irabazteak lehiakideen ibilbidea batera edo bestera eroan eban. Arabere gehiago, katedra hori dala-ta (hak lortu ebalako batzuk, besteak eurak irabazleak izan ez ziralako), hain sustraitu zan hareen artean alkarregazko gogo txarra, non batak zeozer esatea nahikoa zan besteak kontrakoa adierazoteko. Hortxe hasi ziran euren arteko tirabirak, konponduezinak eta haserreak. Irakurri daigun Itziar Lakak horren ganean dinoskuna:

«Azkue eta Aranaren arteko harremani zegokiene-tan, Katedrarako lehiaketak abiapuntu gaizto bat ezarri zuela esan daiteke; erakusten saiatuko garenez, Aranari ez zitzaion zuzenedia begitandu Aldundiak hartu zuen erabakia (Azkueren alde, jakina denez); ondorioz, bere irabazleaganako jarrera ez zen esparik gabeko gertatu. Honela, bada, gaitzondo antzeko zerbeit nabari daiteke

²³ Sabino Aranaren jarraitzaileen artean Luis Eleizalde (1878-1923) eta Imanol Arriandiaga (1876-1947) nabarmendu ziran batez be.

Arana Goirik Azkueri egiten dizkion kritika zorrotzetan, eta esan daiteke badela Aranarengan aurreritzirik Azkueren proposamen guztiak, edo gehienak behintzat arbuizatzean. Dagoeneko ikusia dugunez, Aranak kasik sistematikoki baztertzen zituen Azkueren eskutik zetozen berrikuntzak, nahiz sarri askotan, hoiien sustraietan zeutzan hipotesiekin bat etorri. Jokabide hau azal dezakeen bide nagusienetako bat euskalari bion arteko harremanen zernolakotasuna litzateke gure ustez; katramilaz eta eztabaidaz beteriko harremanak, iturria hain zuzen 1888.eko lehiaketa honetan luketenak»²⁴.

Kirikiño be euskalzaletasunezko aldatze eragingarri horren guztiorren erdian daukagu. Haren idazkeran, Azkueren eta Aranaren eragina agirikoa da; bien eragina barruntau geinke, ez bion batera, baina. Azpimarratzekoa dala uste dogu, urteen joanean adierazten dauen eboluzino argia. Holan, 1899-1910 urteetan, esate baterako, Azkueren eragina garbia da, bai aditz sisteman, bai joskeran eta hiztegian be; ez dakigun ahaztu denporaldi horretan, nagusien, *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarietan idatzi ebala. Baina handik aurrera Sabino Aranaren eskolako hizkuntza eretxietara hurreratu zan gehiago. Egin-eginean be, *Kirikiñok* Sabino Aranari jarraitu eutsan, maila politikoan zein euskerearen erabilereari jagokonean be. Hizkuntz arloan, berak be berba barri bat baino gehiago bururatu eban:

«No obstante, fue siempre *Kirikiño* un purista entusiasta del resurgimiento del Euzkera, seguidor de la escuela renacentista, poeta culto y profundo, admirador de la obra de Arana Goiri, y euzkerálogo creador de neo-

²⁴ I. Laka: «Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra», ASJU XXI-2, 1987b.

logismos tan preciosos como *oteundegi*, *ikin* ('motor') y otros que salieron de su pluma»²⁵.

Batek baino gehiagok kontraesana dala pentsauko dau baina *Kirikiñok* euskaldun arruntakanaino, herriko euskaldun petoakanaino be heldu gura dau. Umore zorrotzaz esaten eban berak ez ebalá idazten handik ehun urtera izango ziran euskaldun jakituentzat, ezpabere bere garaiko euskaldunentzat. Hori jokabideori euki eban bere bizi guztian; izan be, herritarrok zituan hainbat esakune, berba, kontakizun etabarren iturri, eta eurok be iturri horren helburu. Zentzun horretan, hartzailea zan ginoan emoilea be bazala ikusten dogu. Eta herritarrakana heltzeko, testu argiak, arinak eta zoliak erabilten zituan; berba gozoak parra-parra euskera garbian, danok ulertzeko modu errazean. S. Onaindiak esaniko berbek azaltzen deuskue *Kirikiñoren* idazkerearen nondik norakoak:

«Amasei urtean bere arazorik beiñena etzan besterik izan euskeraz idatzi ta euskeraz erakutsi baiño. Bizkor, errez, gozo ta errikoi agertzen yaku beti; idurimen ariñekoa, olako gazigezaz ta gatz-ozpin beroz gozatzen ebazan bere lanak. Asi zanetik gero elburu bat eukan aurrean: erriarentzat idatzi; orixegaitik, errikoi uts-utsa da bere idazkera. Erriak esakun bizi-biziak daukaz, danok dakigunez; baita beste batzuk euskal usain izpirik bakoak be. *Kirikiño*'k, osterá, areik eta oneik erabilten zituan: euskal kutsuko esakera dotoreak, baita iñoizka erdel jazkerakoak be. Eta au? Bere asmoari jarraitzearren; erriari euskeraz irakurten erakutsi naiez ebillelako. Erriari,

²⁵ Z. Jemein, *Jadarka*: «Otros aspectos de *Kirikiño*. Poeta y purista», *Euzkerea*, II, I-1929.

baiña, euskal irakurtzale egiteko, berari atsegin yakon lez idatzi bear»²⁶.

Horregaitik guztiagaitik, *Kirikiñori* buruz askotan esan da gai arinak erabilten zituala, kontakizun laburrak eta herriak arazo barik ulertzeko modukoak idazten ebazala. Baina hori egia bada be, ez da egia osoa behin baino gehiagotan gai sakonak, eta «herrikotasunatik» baino harago doazan hizpide eta sujetuak be erabili zitualako. Eta horreexetan, hain zuzen be, agertzen dira gehiagotan berba barriak eta testu mamintsuagoak.

Ez zan, ez, zeregin erraza joera biak batzea, berak maisutatsunez buztartzen jakin eban arren. Herriarentzat kontakizunak, pasadizuak eta ganetikoak idazten zituanean be euskera apartekoa eta garbia erabilten eban; horreetan herriaren ahotik bertatik entzundako berba zahar asko zokondotik atera eta naturaltasun osoaz erabilten jakin eban:

«Idazkeran etzan mordoillo zalea, ezta itz-barri zale-egia be; bai, ostera, bien arteko, ta garbi-zalea, nik esango neuke. Ikusi ta irakurri bere lanak. Zenbat itz len erri baztarretan erdi-aizturik egonak, gaur, *Kirikiño*'ri eskerak, zabal dabilta. Askotan erriz erri ta plazaz plaza ibilli zan, baserritarren agotik itzak jasoten. Orrela jasoriko askorik darabiltza idazle trebe onek bere ipuin eta osterantzeko lanetan; itz zarrak jantzi barritan apaindu, baita barriak asmatu be, erriaren senari jarraituaz»²⁷.

Orain arte esandakoak erakusten deusku *Kirikiño* euskera kontuetan jakituna zala. Euskalkien arloan, konturako, gehienbat bizkaieraz idatzi eban, baina baditu gipuzkeraz eta lapurteraz

²⁶ S. Onaindia, «*Kirikiñoren idazkera*», *Zeruko Argia*, 191 zenbakia, 1966.

²⁷ Idem.

idatzitako lanak be. Jakintasun hori hizkuntzaren erispide mailaraino be heltzen da, esan gura da, E. Bustintzak baeukala alderdi kritikoa be eta horren ganean zeozer esan gura dogu hurrengo atalera joan orduko.

Berba barrien inguruan, esate baterako, urliak asmau ezkerero harrera ona emon eta berendiak egin ezkerero, ostera, baztertu egiten zirala inoan eta horren kontra agertu zan erabat. Adibide moduan, ikusi daigun zelan ekarri ebezan haren berbak gogora, hori auzia dala-ta, 1929ko *Euzkerea* aldizkarian:

«El 24 de julio del pasado año, medio antes de su muerte, escribía en *Euzkadi* esto que traducimos literalmente: “Ese *bidarri* también, en su tiempo, fué neologismo, compuesto torcidamente, malformado y... ahí está recogido en los diccionarios, solamente porque es más antes inventado: pero el actual *abixena*, palabra nueva, en lugar de *apellidu*, algunos no lo quieren ni oír. Para unos tanta manga ancha, para otros tan corta (...). ¿Quién lo ha formado? ¿Fulano? ¡Bien está! ¿Zutano? ¡Fuera de ahí! ¡Ut! Ese es el mundo»²⁸.

Kritiko azaldu zan eta eztabaida gogortxoak izan zituan 1919an Euskaltzaindia eratu zanean be. J. M. Oyarbidek —G. Muxikaren goitizena— erakundea goratu eban eta hizkuntzari buruz harek hartuko zituan ebatziei men egin behar jakela adierazo eban. *Kirikiño* ez etorren horregaz bat, eta kritikoa izateko eskubidea aldarrikatu eban. Erakundeak hartutako ebatziak izanda be, lehenengo eta behin aztertu egin beharko zirala inoan, itsu-mutsuan eta bete-betean onartu beharrean. 1921ean be, orduan Euskaltzaindian idazkari egoan P. Lhandegaz be tirabira

²⁸ Z. Jemein, *Jadarka*: Idem.

bat edo beste euki eban²⁹. Jarrera horrek erakundearen ateak itxi eutsazan, R. M.^a Azkuek bertan parte hartu egiala gura izan arren (halantxe proponidu eban berak). Ha-ta guzti be, ez eutsan Euskaltzaindikoakaz batera etorri ezak kalte handirik ekarri, euskaldunon artean entzute handiko idazlea izatera heldu jakun eta.

5. *Abarrak* (1918)

Egileak liburuaren berbaurrean bertan dinosku metafora ederra eginaz zein dan bere asmoa liburu horregaz: «Irakurgaitxu honeek be gogo askotan sortu leie euskeraz irakurteko zaletasuna. Txikiak, meheak, arin-arinak, errazak, barru gitxidunak, gehienak barre batzuk eragitekoak izanik, euskeraz irakurten bape zalea ez danak honakoxeak atseginez hartu leiz, eta eurok, abarrak lez, bere gogoan sua biztu». Behin baino gehiagotan esan dogu eginahalak egin zituala orduko euskaldunek euskeraz irakurri egien; horretarako testu arinak eta errazak hautu ebazan.

Kirikiñok franko batu nahi ditu irakurleak bere lanaren bitartez, mezua ahal dan eta lagunik gehienakana zabaldu daiten. Gurari horrek, liburuan erabili eban euskera motan eragin eban zuzen-zuzenean. Aukeratu eban generoa, horraitino, literatura genero txikia izan zan; kasu honetan, umorezko ohiturazko literatura. Mueta horretako literaturan bere burua lekututa, egileak gizartearen errealidadearen kanpoko irudia eta arketipoak deskribidu ebazan, testuaren eta kontakizunaren arintasuna nagusi dala; bizkortasun horri laguntzeko teknika desbardinakaz baliau zan, alkarrizketa ugariakaz, esate baterako. Ohartu bedi irakurlea honakoetan egileak ahozkotasunera joten dauela argi eta garbi, euskera biziaren erretratu zehatza eginda: hikako formak,

²⁹ Ikusi *Euzkadi* 1919ko irailaren 22, 27, 28 eta 29ko aleak; *Gure Herria* 1921 eta *Euzkadi* 1921eko martiaren 22koa.

laburdurak, bustidurak, etab., eskubeteka erakutsi ebazan alkarriketotan.

Irakurleen adimenari, arretari eusteko, teknika edo baliabide estilistiko ugari erabili ebazan egileak: hiperboleak, antitesiak, ironia, berben arteko jokoak, tono aldaketak (orain harridurak, orain itaunak), etab. Teknika horreek, asko eta asko behintzat, ahozko herri literaturatik ekarrita dagozala esan geinke, eta egilearen helburua lortzeko erazkoak dirala oso.

Kontakizunok ohikotasuna erakusten dabe eta hagaitik sinisgarri egiten jakuz. Edozeini eta edonon jazo lekikiguzan kontuak dira, eguneroko bizimoduan izaten diranak. Alde horretatik, errealdade ikutua garbia da. Sinisgarritasun bera agertzen deuskue baita Madrilen kokatuta dagozan kontakizun batzuk be. Eurok irakurrita ikusi geinke ondo ezagutzen ebazala hango ohiturak eta bizimodua —ez dakigun ahaztu uri horretan ikasi ebala, hain zuzen be, egileak—.

Ipuinik gehienen giltza umorea eta barrea dira; halan, umorezko narrazioetan idazleek erabili daroezan teknikak eta topikoak ekarri ditu *Kirikiñok* be *Abarrakera* hamaika biderrez. Baina badagoz beste batzuk, barre eragitekoak barik, hausnarrean eragiteko diranak be, moralidade kutsua daukienak, giza-jokabideren bat aitatzen dabenak edota ikasbideren bat erakusten deuskuenak.

Estiloari jagokonez, eta esanak esanda, *Kirikiñok* idazkera garbizalea darabilela esan behar dogu. Askotxo dira Aranaren eskolako berba barriak: *argitaldu*, *izparringi*, *ingurti*, *ludi*, *gokaxoki*, *notin*, etab. Halanda be, eta horreek berbok testuaren ulermenari ekarri leikion iluntasuna argitu guran, egileak berak azaltzen eban askotan berba barri edo asmautako horren esanahia. Apurka-apurka herritarrentzat ezezagunak ziran berbak zabaldu gura ebazan idazleak eta horretara, hareen euskerea «garbitu».

Aditz sintetikoan kasuan be, eurak berreskuratzeko asmoa agertzen eban egileak. Izan be, ipuinak irakurriaz-irakurriaz, gero

eta jas horretako aditz gehiago darabilela konturatuko da irakurlea; baina edozein kasutan be, ilunenak edo gitxien erabilienak azaldu egiten ebazan, ulertzeko arazorik txikienik be euki ez egien testua leiduko eben herritarrek.

Personaiak dirala-ta, batzuetan izenik aitatu be ez dala egiten konturatuko gara: *mutil bat, mutiko zoztor pilotxo bat...*; beste batzuetan, barriz, euskerazko tradizioan oso erabiliak eta entzuznak diranak agiri dira: *Peru, Mari, Txomin*, etab. Aurreratxoago berbatu dogun umorearen errekursoari bidea emoteko, ezizenak be darabilz pitean-pitean: *Peru Makur, Prakerre, Motroilo, Txomin Porru, Purtoaso, Anton Berakatz*, etab.

Beraz, eta labur esanda, kontakizunotako protagonisten deskripzioa —baita espazio eta denporearen tratamentua be— eredu klasikoaren arabera egiten dau egileak, eta ohiturazko literaturan egin ohi dan modu berean.

6. Testua eguneratzeko erispideak

Beste sasoi bateko edozein testu gaurkotu orduan, ohikoa da zalantzak eta eretxi desbardinak egotea, batez be eguneratze prozesu horretan erabili behar diran erispideen ganeko auzietan.

Alde batetik, egilearen jatorrizko testuari zor deusagun begirunea dago, eta bestetik, euskerearen, eta oraingo honetan bizkai euskerearen, eredu jagiari autortu behar jakon agindua. Bien arteko dendu zentzuzkoa jadestea ez da bape lan erraza.

Abarrak eguneratzeko erispideak ebazterakoan, batzuetan argi ikusi dogu aldatzeko edo egokitzeko beharrezana; beste batzuetan, ostera, zalantzak euki ditugu, eta ez gitxi. Baina, batera edo bestera egin behar dala-ta, akabuan ebatzi baten edo besteren alde egin beharra egon da... Dana dala, gaurko irakurleak buruan daukaguzala egin dogu hainbat moldaketa, irakurleek esku artean testu argia eta arteza euki dagien gura izan dogulako, *Kiviki-ñok* berak be, ipuinak idatzi zituanean, horixe bera gura izan eban moduan.

Ez daitela esan barik egon, Labayru Ikastegiaren ardurapean garatu dogula behar hau, erakunde horren Hizkuntza Arloak zehaztutako argibideei jarraitu, ostean egindako oharrak aintzat hartu eta berorren azkeneko oneretxia daukagula.

6. 1 *Grafiak*

Egileak erabili eban grafia sistemea ez dator bat gaurkoagaz, haren sistemea euskera biziari begira eratuta dagoalako, herriko bizkaierearen ahoskatze garbiaren espilua dalako.

Letra bakotxaren ostean ze fonema dagoan ikusita, edo berbentzat ezarrita dagozan idazte-moduak kontuan eukita, grafia-aldaketak eta -eransketak egin behar izan doguz haonetara:

6.1.1. Kontsonanteak

— Neutralizazioak eta nahasteak: «s», «z» eta «ts», «tz»

Hurrengo hots leherkariak neutralizauta, [s] + [t] batu diranetan jatorrizko testuan «st» daukagu, «zt» egon beharrekoan.

Adibideak: *gastelar* > *gatzelar*, *gusti* > *guzti*, *sostor* > *zoztor*, etab.

Bestetik, berba batzuk «ts»-a barik «tz»-a dakarre, afrikari biok nahastuta.

Adibideak: *santsoka* > *zantzoka*, *altso* > *altzo*, etab.

— Bustidura edo palatalizazioa: «x» > «iz», «tx» > «itz», «ll» > «il» eta «ñ» > «in»

Bustiduraren eraginaz, [i] + [s̺] edo [s], eta [i] + [ç] edo [ç] moltsoetan egileak «ix» (diptongoetan «i» barik) eta «tx» egin dau ia beti. Horreen lekuan, guk «is» edo «iz», eta «ts» edo «tz» ipini dogu, berbearen arabera.

Adibideak: *ixuri* > *isuri*, *ixango* > *izango*, *bixi* > *bizi*, *gixon* > *gizon*, *elexa* > *eleiza*, *baxen* > *baizen*, etab.

Eta, *itxu* > *itsu*, *jarraitxen* > *jarraitzen*, *bixitxa* > *bizitza*, etab.

Bardin esan behar dogu «ñ» sudurkari eta «ll» saiheskariei buruz. Holakoak «in» eta «il»-etara ekarri doguz, jakina.

Adibideak: *baña* > *baina*, *oñordeko* > *oinordeko*, *otseñak* > *otseinak*, *zeñetatik* > *zeinetatik*.

Eta, *zaintzallia* > *zaintzailea*, *malla* > *maila*, *ollo* > *oilo*, *arrapatzalliak* > *harrapatzaileak*, *ibilli* > *ibili*, *urdalletara* > *urdailetara*, etab.

Salbuespenak dira, «ñ»-aren kasuan, toponimo, persona-izen eta gaztelaniatik etorritako berba banakak; eta «ll»-ari jagokonez, gaztelaniatik hartutako berbak be.

Adibideak: *Mañaria*; *Iñigo*, *Begoña*; *malagueña*, etab.

Eta, *silla* > *silla*, *patilla* > *patilla*, etab.

— Kontsonante epentetikoak: «b» eta «j» > Ø

Hiatoan etorritako bokalen arteko kontsonante epentetikoak diran «b» eta «j» grafiak kendu egin doguz; egilea zehatz-zehatza da barriz eurok erabili orduan, [u] + [e] > «ube», eta [i] + [a] > «ija» egiten dituala.

Adibideak: *batzubetan* > *batzuetan*, *eskubetan* > *eskuetan*; *aldijetan* > *aldietan*, *andijak* > *handiak*, *gustijan* > *guztian*, *erri-jan* > *herrian*, *nausijak* > *nagusiak*, *ekijanak* > *ekienak*, etab.

— Galerak: «g», «r» eta «d»

Bokalen arteko kontsonante ozenak jausi edo desagertu egiten dirala-ta berbaz, egileak be horretara idatzi dau hainbat berba. Guk osotu egin doguz.

Adibideak: *nausi* > *nagusi*, *ezaun* > *ezagun*, *jaon* > *jagon*; *beroi* > *berori*, *mutiloi* > *mutilori*; *aizkide* > *adiskide*, *añiketa* > *arineketa*, etab.

— Ordezkapena: «p» > «f»

Azpieuskalki batzuetako ezaugarria da, [p] ahoskatu beharrean [f] egitea, gaztelaniatik etorritako berbetan, gehienbaten.

Horreek gaurko idazte-moduetara tolestu doguz guk, *Kirikiñoren* euskeraz ugariak badira be oso.

Adibideak: *pardel* > *fardel*, *ponda* > *fonda*, *Apirka* > *Afrika*, *Parantzia* > *Frantzia*, etab.

— Grafia zaharra: «y» > «i» eta > «j»

Bokal biren artean edo berbearen hasieran dagoan yod hotsa, «y» grafia zaharraz azaldu du egileak. Gaurko grafia-sistema barriak ostera, «i»-z edo «j»-z idatzi behar dogula dinosku, berbea edo moltso grafikoa zein dan ikusita.

Adibideak: *epaya* > *epaia*; *yok* > *jok*, *bayakiat* > *bajakiat*, etab.

— Grafia barria: «h» < Ø

Gaurkotu egin dogu «h» grafiaren erabilerea, edo erabili eza, hobeto esanda. Ha-ta guzti be, *legor* edota *zugatz* moduko berbak gorde egin dira, bizkaierazko tradizino idatzian zein ahozkoan daukien garrantziagaitik.

6.1.2. Bokalak

— Irekidurak eta itxidurak

Bokalen itxidurak eta irekidurak be ugariak dira testuan eta horreek gaurko erabilera ereductara ekarri doguz.

Adibideak: *txikar* > *txiker*; *bidar* > *bider*; *eskar* > *esker*, *ospatsu* > *ospetsu*, *atsakabe* > *atsekabe*; *bixer* > *bizar*, etab.

— Akaberako posizinoan: «o» > «u» eta «u» > «o»

Bizkaieraren eredu literario estandarrari begira, egin behar izan dogu aldaketaren bat edo beste amaierako «o» eta «u»-akaz, ez asko baina.

Adibideak: *banko* > *banku*; *astronomu* > *astronomo*, etab.

— Osotzea: *ta* > *eta*.

1) Emendiozko juntagailu moduan agertu izan danetan, berbazkoa dan *ta* formea osotu egin dogu, *eta* idatzizko formara bihurtuaz.

Adibidea: ...*bata makala ta bestia zorbatzik bakua dira* > ...*bata makala eta bestea sorbatzik bakoa dira*.

Moltsotasuna edota askotasuna adierazten dauenean be bai (ikusitu puntuazinoaren atala be).

Adibidea: ...*eta barrero aitagana juanda dirua eskatu eutsonean biderako-ta, aitak erantzutson barreka:...* > ...*eta barrero aitagana joanda dirua eskatu eutsonean biderako-eta, aitak erantzun eutsan barreka:...*

2) Bardin egin dogu kausazko lokailu lez azaldu danean, aurreko aditz laguntzaileak *-(e)la* atzizkia daroanean izan ezik, halakoak bizkaieraz *-(e)la-ta* behar dauelako.

Adibideak: ...*geruago jakin biar dan gauzea da ta* > ...*gero-ago jakin behar dan gauzea da eta*.

Baina, ...*gaur andijenetaikua egin biar dala ta* > ...*gaur handienetarikoa egin behar dala-ta*.

3) Azkenik, *eta* horrek denporazko edo moduzko esaldiak sortzen dituan egituretakoa be aitatu gura dogu. Partizipioari lotuta datorren lez, unidate foniko bakarra egiten dabe *eta* haurretara itxi dogu, dagoan-dagoana. Adibideren baten-edo batu be egin behar izan doguz partizipioa *eta* juntagailua, horri kriterioorri eutsi guran.

Adibideak: *Aguriak eta ikaslarijak alkarri labankeri andijak eginda gero, asi ziran...* > *Agureak eta ikaslariak alkarri labankeria handiak eginda gero, hasi ziran...; ...zerutarrak alde-eginda gerotxuago, agertu zan...* > *zerutarrak alde eginda gerotxuago agertu zan...*

Eta, Ameriketean urte bi edo iru ibilli ta gero, ta erriko ardanetxian igande arrastei baten... > *Ameriketean urte bi edo hiru ibilita gero, eta herriko ardanetxean igande arrastegi baten...*

6. 2. Deklinabidea

Esparru honetan egin diran aldaketak fonetika kontuetakoak, forma arkaikoen erabilereari jagokonak eta idazlearen sistema nahastu edo plurala argitzeko helburuaz egin dira. Gorago esan dogun moduan, ataza horreetan hartu izan dogun bideak bizkaieraren eredu estandarraren alde jo dau, hau da, forma bateratuei on eretxi deutsegula eta euroi indarrrik gehien emon.

6.2.1. Harmonia bokalikoa

— *-ia > -ea*: *zalia > zalea, irudimenian > irudimenean, arlotiari > arloteari, guria > gurea, emaztia > emaztea, aberia > aberrea, aizkidia > adiskidea*, etab.

— *-ua > -oa*: *besua > besoa, ollua > oiloa, soñekuak > soinekoak, sendua > sendoa, onduan > ondoan*, etab.

Eta, *-uok > -ook*: *alakuok > halakook, gixajuok > gizajook, amaseikuok > hamaseikook*, etab.

— *-ie- > -ee-*: *semien > semeen, irakurlientzat > irakurleentzat, nastietan > nahasteetan, amandrien > amandreen, gastien > gazteen, auteskundietan > hauteskundeetan*, etab.

6.2.2. Erabilera bereziak

— Mugatzaile hurbila

Sarritxo darabil egileak, ipuin batzuetan besteetan baino gehiago. Askotan hitzari lotuta azalduko jakuz, baina ez guztietan. Horreek identifiketan ahalegindu gara eta berbeagaz bat eginda egon ezean, zuzendu egin doguz, bai hurrekotasuna adierazten dabelako, bai atributu bokatiboak diralako: *mutilau, balzau, mutilori, aiteori, arraiorrek*, etab.

Adibideak: *Gure mutilau bere aitari...*; *Gizon hotza da benetan aiteori*; *Hantxe daukak lekurik egokiena, astotzar arraiorrek!*; etab.

— Mugatu pluraletan: *-ek-* > *-ak-*

Mugatu plurala egiterakoan, deklinabide kasu baten baino gehiagotan (adlatiboan, ablatiboan, motibatiboan, etab.), egileak *-ak* formadun atzizkiez ganera, *-ek-*dunak be darabilz: *-ekana*, *-ekaitik*, *-ekaz*, *-ekandik*, etab. Bardindu eta guk horreen ordean, *-ak* morfemearen ganean eregitako bizkaierazko deklinabidearen pluraletako atzizki arautuak ipini ditugu. (Ikusi, halanda be, beherago, kasurik kasu joanda osotu dan txatalean, ergatiboari eta datiboari buruz esandakoa.)

Adibideak: *semetxoekaz* > *semetxoakaz*, *gurasoekandik* > *gurasoakandik*, *azerikerijekaz* > *azerikeriakaz*, *dirubekana* > *diruakana*, *lagunekana* > *lagunakana*, *ikaragarrijekaitik* > *ikaragarriakaitik*, etab.

— Arkaismoak

«Peru *Makur*» izeneko ipuinean, *Errege* agiri da izen berezitzat hartuta, mugagabeen. Tradizino handiko joerearen aurrean gagoz eta, horregaitik halantxe itxi dogu geuk be: *Erregek*, *Erregeri*, etab.

— Galera: *-a* organikoa (*-keri* > *-keria*)

Osatu-edo egin doguz atzizki horri itsatsita datozen berbak.

Adibideak: *astakeririk* > *astakeriarik*, *tentelkeri* > *tentelkeria*, *diabrukeri* > *diabrukeria*, *labankeri* > *labankeria*, etab.

6.2.3. Kasurik kasu

— Ergatiboa

Ergatibo pluralerako, egileak modu bi darabilz jatorrizko tes-tuan, behin *-ak*, behin *-ek*. Gure edizino honetan be, egileak dakar-zan modu-moduan itxi doguz bitzuok, bata zein bestea agertu.

Adibideak: *mandazainek*, *hurrengokoek*, *mutilek*, etab.

Baina, *zartadak*, *guztiak*, *sendikoak*, etab.

— Datiboa

Datiboaren mugatu pluralerako be, bardin esan behar dogu: *-ai* eta *-ei* formen alternantzia dago. Lehenengo formea da berez bizkai euskereari jagokona baina egileak berak dakarzan atzizki bioi eutsi egin deutsegu guk.

Adibideak: *eskuei, gurasoei, lehenagokoei, mutikoei, bidaztiei*, etab.

Baina, *lagunai, zugatzai, etxeikoai, baltzai, enborrai*, etab.

— Genitiboa

Edutezko genitiboaren formak osotu egin behar izan dira behin baino gehiagotan, ahozko erabileraren erduetatik eredu formaletara ekarteko.

Adibideak: *andien bat > handiren bat, zatijen bat > zatiren bat, erretzinean > erretxinearen*, etab.

Pluraleko morfeman egin dogun aldaketa hauxe da: *-oen > -on* eta *-aen > -en*: *danoen > danon, gauzaen > gauzen*, etab.

— Ablatiboa

Gaur egungo ablatibo arruntaren pluraleko atzizkiaren ondoran, ablatibo zaharrarena be badarabil, esan gura da, *-etatik* baina, baita *-etarik* be.

Adibideak: *ezpanetatik, hodeietatik, begietatik*, etab.

Eta, *lohietarik, igalietarik, euretarik*, etab.

— Instrumentala

Kasu hau dala-ta, *-tzaz* atzizkiaren ganean berba egin behar da, *Kirikiñok* bera darabilelako hainbat biderrez. Guk, gure edizino honetarako, betiko bereizketa egin dogu, zeinak erakusleak batetik, eta izen arruntak bestetik hartzen dituan: erakusleetan *-tzaz* horren ordean, *-zaz* ipini dogu; izenetan, ostera, *-az* edo *-ez* egin dogu.

Adibideak: *orretzaz* > *horrezaz*, etab.

Baina, *gauzetaz* > *gauzez*, *damutasuntaz* > *damutasunaz*, *erijotzeatzaz* > *heriotzeaz*, etab.

Nahastea dagoala esan geinke berba batzuetan, soziationen barik instrumentalez-edo deklinauta dakarzalako. Beharrezko eretxi deutsegunean, zuzendu be egin doguz, euretako asko *-agaz* soziationen singularreko atzizkiari jausitako *-g-* interbokalikoaren eraginaz sortutako formak baino ez dira eta.

Adibideak: *tresnaaz* > *tresnakaz*; *sendi gustijaz* > *sendi guztiagaz*, *bere koñatuaz* > *bere koinatuagaz*, etab.

6. 3. Erakusleak

6.3.1. Singularra

Idazleak sistema bikotxa hautu dau eta jokabide bera errespetau dogu guk bete-betean; orduan, *hak* eta *harek* edota *hari* eta *hareri*.

6.3.2. Plurala

Pluralaren kasuan, barriz, nahastean darabilz *Kirikiñok* askotan, eta testua argiagoa eta zuzenagoa izan daiten, eurok batu gurago izan dogu, *honeek*, *horreek* eta *hareek* formen arabera danak idatzita.

6. 4. Aditza

6.4.1. Fonetika kontuak

— Sarri-sarri aditz laguntzaileei menpeko esaldien atzizkia eransteko lokarizko bokala ipini behar izan deutsegu. Beste batzuetan, gehitu ez baina, idazleak berak azaldutako bokala aldatu beharra egon da; *-a-* > *-e-* eginaz, bizkaieraren eredu estandarrek halan agindu deuskulako.

Adibideak: *daun* > *dauen*, *dagola* > *dagoala*, *nagola* > *nagoala*, *etab*.

Eta, *dabilan* > *dabilen*, *etorran* > *etorren*, *ekarran* > *ekarren*, *etab*.

— Adizkietako ez adberbioa eta aditz laguntzailea moltso foniko bat eginda datoz, ahozko erregistroan dan modu-moduan. Guk banandu eta bereiz idatzi izan doguz: *-z + d-* < *-zt-*, eta *-z + z-* < *-tz-*.

Adibideak: *eztok* > *ez dok*, *eztago* > *ez dago*, *eztaitezan* > *ez daitezan*, *eztaukok* > *ez daukak*; *etzarrie* > *ez zarrie*, *etzan* > *ez zan*, *etzarala* > *ez zarala*, *etab*.

— Aditz nagusia eta laguntzailearen arteko ahozko erabilera-ko katigatze estuak forma laburtuak sortzen ditu. Horreek gaurko idazte arautuetara bihurtu doguz.

Adibideak: *artukuz* > *hartuko doguz*, *egitsoen* > *egin eutsien*, *erantzutan* > *erantzun eustan*, *etab*.

6.4.2. *Ba-* aurrizkia

Egileak *ba-* aurrizkia barik, sarritan *bai-* forma dakar marratxo eta guzti. Aldatu egin doguz holakoak gaurko idatz sistemara.

Adibideak: *bai-neban* > *baneban*, *bai-dagozala* > *badagozala*, *bai-ziran* > *baziran*, *bai-diñotso* > *badinotso*, *etab*.

6.4.3. Aditz faktitiboak

Bizkaieraz aditz faktitiboak sortzeko modu bi dagoz: aditz erroa + *-arazo*, eta partizipioa + *eragin*. Aditz erroari *arazo* aditza ganeratuta sortzen dan aditz faktitiboa da eredu jagian edo estandarrean onarpenik handiena daukana. Halanda ze, partizipioagaz batera lotzen dogu *-arazo* aditza berbaz, eta *-arazo* horren ordean *-azo* erabilten dogu: *hartuazo*, *etorriazo*, *olgauazo*, *janazo*, *etab*.

Kirikiñok erazo aldaerea darabil gehienbat aditz faktitiboak egiteko. Aditz nagusiagazko loturea modu bitara egiten dau, erroa-

ri erantsita, lexikalizazio handiko aditzetan (*adierazo* eta *galera-
zo*, esaterako), eta partizipioari ganerakoetan, eta haganik banan-
duta: *aditu erazo*, *gelditu erazo*, *sinistu erazo*, etab. Txitean-pitean
eragin be darabil aditz akusatiboak sortzeko, “egin” bigarren ele-
mentua daben aditz lokuzinoetan ezeze, osterantzekoetan be: *negar
eragin*, *igesi eragin*, *gogait eragin*, etab.; baina *jakin eragin*. Gure
edizinoan egileak berak dakarzan moduan gorde doguz aditz araz-
le guztiok, baina oin-oharretan forma bakotxari bizkaiera jagian
behar daben idatzizko formea ezarri deutsagu, edozelan be.

6.4.4. Aditz alokutiboak

Kirikiñok, orduko beste hainbat idazleren antzera, erruz dara-
bilz aditz alokutiboak. Irakurleak ikusiko dauenez, sistema biko-
txa dauka; batetik, mendebaldeko bizkaierearen adizkiak dara-
bilz, bestetik ekialdeko bizkai berbetearenak... Dana dala, bata
zein bestea ekarri, guk dagoan moduan itxi dogu, mendeko esal-
dietan izan ezean, horreetarikoak aditz neutroak egin ditugu eta.

Adibideak: *neiok* (mendebaldeko bizkaierearen aditz siste-
mea) baina, *gaiabiltzak* (ekialdeko bizkaiera), etab.

Esaldi menderatuetan: *balitzok* > *balitz*, *ballok* > *baleu*,
ezpa'yautsok > *ez badeutso*, etab.

6.4.5. Datiboa: persona markak

— *Zer-nori-nork* saileko aditz laguntzaileetan, hirugarren
personari jagokozan datibo morfemakaz honetara jokatu dogu:

-*tso* («hak hari»), baina -*tso-* (-*a*-duna, «hari nik, hik, guk,
zuk edo zuek»). Adibideak: *dautsozube* > *deutsazue*, *dautsot* >
deutsat, etab.

-*tse* («hak hareei»).

-*tsie'* («hareek hari»).

-*tsee* («hareek hareei»).

Hagaitik ba, aldatu edo egokitu egin behar izan doguz ba-
tzuk-batzuk.

— Hirugarren personari barik, lehenengoari, singularrari zein pluralari, jagokozan aditz laguntzaileetan, beste modu honetako zuzenketa egin dogu: ahoz oso indartsu dabilzan *-st-* eta *-sku-* datibo morfemak, eredu zaharrago eta normatiboetara iruli doguz, *-da-* eta *-gu-* eginda.

Adibideak: *daistala* > *deidala*, *esaistak* > *esaidak*; *eiskuzu* > *eiguzu*, etab.

— Datibotasunaren erakuslea dan *-e-* morfemaz trukatu behar izan dogu *zer-nori-nork* saileko aditz laguntzaileetako *dau-* (indikatio orainaldikoa) eta *dag-/dai-*, (subjuntibo orainaldikoa) formatako adizkiak, *deu-* eta *deg-/dei-* eginda.

Adibideak: *dautsot* > *deutsat*, *dautsie* > *deutsie*; *dagijola* > *degiola*, *daistala* > *deidala*, etab.

6.4.6. Aditz moduak

— Indikatiboa: alegiazkoa

Egungo bizkaiera jagiaren ereduaren arabera zuzendu doguz indikatiboaren alegiazko *-ke-*dun adizkiak. Egileak, beste askotan lez, forma laburtuak darabilz.

Adibideak: *litvake* > *litzateke*, *nintzake* > *nintzateke*, *gintzakez* > *gintzatekez*, *litvakek* > *litzatekek*, etab.

— Subjuntiboa

Subjuntiboaren aditz laguntzaileetan esateko modukoa da hiru bokal batzen diran kasuetan hartu izan dogun ebatzia: eutsi egin deutsagu egileak berak be dakarren *-g-*interbokalikoari.

Adibideak: *dagian*, *degion*; *egiala*, *egion*, *egien*, etab.

— Ahalera

Ahaleraren alegiazko nahi iraganeko adizkiak be, gaurko bizkaiera arautura bihurtu doguz.

Adibideak: *gindekez* > *geintek*, *nindeke* > *neintek*; *eiteken* > *eitekean*, etab.

6.4.7. Forma bereziak

— Sintetiko edo trinkoak

Sasoi hatan usua zan moduan, idazleek jo egiten eben aditz sintetikoetara, eurok euskera on, garbi eta zaharraren aztarnak ziralakoan eta. *Kirikiñok* be erakusten dau horretarako zaletasuna eta inoiz sortu be egiten dau tradizino bako aditz trinkoren bat. Irakurleei ulergatx egingo ete jaken edo, holako aditzei oin-oharra emon deutsegu esangurea azaltzeko, edo kendu be egin dira testutik inoiz, euren sidurria oin-oharren atalerako, barriro be, itxita.

Adibideak: *erakusen* ('erakusten eben', oin-oharretan), *ez dantzut* ('ez dot entzuten', oin-oharretan); baina, *deskatsuegu* (> 'eskatzen deutsuegu', testuan), etab.

— Azpieuskalkienak

Batez be esanahi berezia daukiela uste izan dogunean, personaien iruzkina egiteko, edota alkarrizketei bizitasuna emoteko, itxi egin dogu azpieuskalkietako forma bereziren bat: *daure*, *euren*, etab.

6. 5. *Lexikoa*

Puntu honetan batez be oin-oharretarako erabili doguzan erispideak azpimarratu edo argitu behar doguz. Oin-oharrok, egon be, modu desbardinetan emonda dagoz: egileak berak egingdakoak dira batzuk, geuk sartutakoak besteak... Eta guk erantsitako horreetan be, danetarikoak dira: zehaztapen edo argitasunen bat dakarrela, jatorrizko testukoa vs. edizino honetakoa kontrajarrita dagozala edo bizkaierearen eredu jagiari aitamena egiten deusiela ikusiko dozuz oin-oharrok sarri. Azaldu daiguzan ba, banan-banan.

6.5.1. Ohartu bedi irakurlea oin-oharretan, pitean-pitean, kursibaz idatzi doguzan laburdura bi azaltzen dirala: *J. t.* laburdureak

jatorrizko testuan berba hori zelan idatzita dagoan dinosku; halan aditzera emoten dau aldaketa edo moldaketaren bat egin egin dogula gure edizinoarako. Besteak, ostera, *E. j.* esan deutsagunak, bizkaiera arautuari edo estandarri, hau da, bizkaiera jagiari erreferentzia zuzena egiten deutso, nahi-ta testu barruan *Kirikiñok* bere edizinoan dakarrenari eutsi deutsagun.

Beraz, laburdurak garatuta:

J. t. Jatorrizko testuan

E. j. Eredu jagian

6.5.2. Geuk sartutako oin-oharririk gehienak lexikoa argitzeko egin dira. Kontuan euki behar da berbea estreinako aldiz agertu izan danean baino ez jakola hori argitasunori emon. Izan leiteke, horraitino, hitzaren azalpen hori egileak berak be, hor barik, handik aurreragoko orrialderen baten emotea. Holakoak, editorearen azalpena egin eta ostean, *egilearen azalpena be aurrerago* esaldia parentesi artean idatzita zehaztu doguz. Esate baterako:

Igali: frutu (egilearen azalpena be aurrerago).

Eta hurrengo orrialdean:

[Igali: *fruta*].

6.5.3. Beste alde batetik, badira gureak barik, egilearenak berare-nak diran oin-oharrak, jatorrizko testuan *Kirikiñok* egindakoak. Horreetariko batzuk testuan bertan sartuta dakarz, parentesi artean, baktxari jagokon berbearen ondoan. Guk holakoak testutik atera eta oin-oharretara eroan doguz, kakotxoeren artean sartuta, ganerakoetatik bereizita egon daitezcan. Konturako:

Testuan: (...) *eskuan aizto* luze zorrotz ikaragarri bat* (...).

Oin-oharretan: **J. t.* (cuchillo)

Egileak egindako oharrotatik, badagoz. testu barrukoak ez diranak be. Halakoak oinean zehaztuta daukaz jatorrizko testuak, eta aurrekoakaz moduan, honeek be berbearen esanahia emoteko eginda dagoz ia beti; batzuetan, euskerazko sinonimoren bat ipinita zehaztu dau egileak esanahi hori, beste batzuetan, ostera,

gaztelaniazko baliokidea jarrita. Jatorrizko testuaren oinean dagozan oharrok, kako karratuen barruan ezarri doguz.

Horretara, jazo leiteke inoiz berbaren baten esangurea edo azalpena hiru biderrez azaldu egitea testuan zehar: lehenengoa, geuk sartu doguna (esaldia edo testua hobeto ulertzeko, halan egin behar genduala eretxi deutsagulako), bigarrena egileak berak emon dauen euskerazko azalpena, eta hirugarrena, gaztelaniaz egindakoa. Bakanak dira baina hamen bat:

Zinaldari: lekuko (egilearen azalpena be aurrerago).

[Zinaldari: testigu].

[Zinaldari: *testigo*].

6. 6. *Puntuazinoa*

Argitalpen honetarako egin diran puntuazino-aldaketak, -moldaketak edo -zuzenketak batu ditugu azken atal honetan. Honeexek dira batez be erabili doguzan erispideak, baina leitekena da, halanda be, egin dan aldaketaren bat-edo agertu ez egitea.

Dana dala, —eta hurrengo honek edizino osorako balio dagian gura dogu— zuzenketok egin beharrekoak diralakoan egin doguz, lehenago esaniko moduan, baina jatorrizko testua ahal danik eta gehien gorde, errespetau behar dala ahaztu barik euki dogula beti be.

—Harridura eta galderen hasierako markak kendu egin dira, gure hizkuntzaren gaurko puntuazino sistemara ekarriaz.

—Apostrofea be azaldu dan kasuetan kendu eta berbeari lotuta ipini dogu.

—Hitz konposizinoaren marrea darabil nahinon. Hori be egungo sistemara bihurtzen ahalegindu gara, baina batzuk zalan-tzako kasuak dira eta horreek jatorrizko testuan agertzen diran modu-moduan ixtea erabagi dogu.

—*Edo* juntagailu hautakariak eta *eta* juntagailu emendiozko-ak galdu egiten dabe erregistro bizian, gehienbat, bigarren junta-

gaia. Halakoak askotan marra barik idatzi doguz, aurreko berbatik solte; ha-ta guzti be, marra horrek esaldiari irakurtzeko erraztasuna edo indarra emon ezkeru, inoiz aurreko hitzari katigaturik be ikusiko dau irakurleak.

—Osterantzeko puntuazino-markak (komak, puntu eta koma, puntuak, kakotxoak, etab.), egokitu behar izan doguz atalean-atalean. Berbarako, kakotxoak kendu egin dira baten baino gehiagotan, testua astundu egiten dabela-ta, ezelako errazoi barik.

Amaitu da berbaurre hau. Aurrera joan ahala, askoz be gauza gehiago esan geinkela begitandu jaku, baina esanak esan, eta barruntau leitekezan hutsuneak diranak dirala, hamen beste gehiagoko barik behartxo hau.

Akabera apaina izan leiteke baina, obraren eta egilearen ganean berba labur-labur bi esatea, orain artean esandako guztiaren huma batuko dabenak.

Obrari jagokonez, A. Irigarairen ahotik entzun doguna ekarriko dogu: «Estas cualidades del euskera de *Kirikiño*, unidas a una gracia poco común, y a un gran ingenio para captar escenas populares vascas hacen que los dos *Abarrak* sean de las pocas producciones actuales que debe leer todo euskeldun (...)»³⁰. Horixe da *Abarrak*.

*Kirikiño*rentzat, Txomin Agirrek *Kresala* liburuan dakarren esamoldea, «ekinaren ekinaz, bideak eregiatz», hartu gura dogu, egin-egina dalako harentzat. E. Bustintzak bere bidea eregi eban, euskereari bidea eregi eutsan. Aintzat hartu eta segidu deiogun geuk be harek egindako bide horri.

³⁰ A. Irigarai: «Bustintza'tar Ebaista (*Kirikiño*). *Bigarrego Abarrak*, Zor-notza, 1930», RIEV, XXII, 1931, 226. or.

7. Bibliografia

• *Obrak*

- BUSTINTZA, Ebaristo (*Kirikiño*): *Abarrak*, Grijelmoren alaígunsemien irafkolean, Bilbao, 1918.
- : *Egunekoa*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1981.
- : *Edo geuk edo inok ez*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1984.
- : *Abarrak*, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbao, 1986.
- : *Guda Nagusia 1914-1918*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1989.

• *Aldizkariak*

EUSKALZALE: 1897-1899.

EUSKERA: 1920.

EUZKADI: 1905, 1908, 1913, 1919 eta 1921.

EUZKERIA: 1929-1931.

GURE HERRIA: 1921 eta 1924.

IBAIZABAL: 1902-1903.

ZERUKO ARCIA: 1966.

• *Bigarren iturrikoak*

- DÍAZ NOCI, Javier: *Euskal kazetaritzaren historia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1999, (www.eusko-ikaskuntza.org/ephtm).
- ETXEARRIA, Igone: «Ebaristo Bustintza Lasuen *Kirikiño*», *Bidegi-leak*, Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz, 1992.
- IRIGARAI, Anjel: «Bustintza'tar Ebaista (*Kirikiño*). *Bigarrengo Abarrak*, Zornotza, 1930», *RIEV*, XXII, 1931.
- LAKA, Itziar: «Euskal Izkindeako aditza (Hiperbizkaieraren historiaz II)», *ASJU* XX-3, 1986.
- : «Sabino Arana Goiri eta Hiperbizkaiera (Hiperbizkaieraren historiaz III)», *ASJU* XXI-1, 1987a.

- : «Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra», ASJU XXI-2, 1987b.
- : «Manuel Arriandiaga: berrazterketarako oinarriak (Hiperbizkaieraren historiaz IV)», ASJU XXI-3, 1987c.
- ONAINDIA, Santiago: «Evaristo de Bustinza *Kirikiño* (1866-1929)», *La Gran Enciclopedia Vasca*, t. II, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1979.
- : *Euskal literatura III*, Donostia, Etor, 1974.
- VILLASANTE, Fr. Luis: *Historia de la literatura vasca*, Ed. Aranzazu, Burgos, 1979.

Miren Atutxa

ABARRAK

Irakurleentzako¹ oharra

Hona hemen *Abarrak* deitu deitsedan irakurgaitxu honeek.

Egurinen sartu naz ni gure euskera ederraren oihanean. Bertan hain ugari dagozan zugatz enbor lodidunak eta euren besanga² eta adar handiak ebagi, eta gertau, eta ekartea izango zan nire atseginik handiena; baina ezin, horretarako beharrak dira ba, beso sendoa eta azkora handi zorrotza. Nire besoa eta azkorea, barriz, bata makala eta bestea sorbatzik³ bakoa dira.

Lan hori ezinik, zerbait, horraitino, egin gura eta, egur meheari, abarrari ekin deitsat eta besarkada hauxe gertau eta ekarri dot. Ahal izan dodana.

Egur mehe hau be zetarako edo hatarako bada. Su handia egiteko, egur lodia ixetuteko, lehenengo abarrari ezarten jako sua, eta honegaz hari gero.

Irakurgaitxu honeek be gogo askotan sortu leie euskeraz irakurteko zaletasuna. Txikiak, meheak, arin-arinak, errazak, barru gitxidunak, gehienak barre batzuk eragitekoak izanik, euskeraz irakurten bape zalea ez danak honakoxeak atseginenez hartu leiz, eta eurok, abarrak lez, bere gogoan sua biztu.

¹ *J. t.* irakurleentzat.

² Besanga: besadar, abar.

³ Sorbatz: zorroztasun.

Euskera zehatzaren zalea bazara, hurrean⁴, sarri musturra okertuko dozu irakurgaitxu honeetan aurkituko dozuzan erderatiko hitz ugariak ikusita; baina gogoratu eikezu⁵ eurok ez dirala idatzi ehun urte geroagoko euskaldunentzako, ezta gaur euskera zehatz-zehatza eta erdal antz apur bat daben hitz bakoa jakin eta erabili ohi daben euskaldun banakarentzako bakarrik be. Ez, eurok idatzi dira gaurko euskaldun gehienak dakien euskeraz, gehienak irakurri eta ulertu ahal dagien euskeraz.

Irakurgaitxu gehienak lehendik argitalduak⁶ dira izparringi⁷ batean edo bestean. Urte asko dala, Bilbon⁸ Azkue abade jaunaren artezkuntzapean⁹ agertzen zan izparringi asteroko eder-ederreen, *Euzkaltzalen* argitaratu ziran «Zerutar bat», «Deun izateko bidean», «Azeri azartuak¹⁰ oiloa daroa», «Aurrerapen ikaragarri bat osakuntzan» eta «Ituxurak zinaldari¹¹».

Geroago uri honetan bertan urte bian bizi izan zan asteroko izparringi *Ibaizabalen* argitaratu ziran «Peru *Makur*» eta «Azeriari, azeria».

Euzkadi ingurtian¹² argia ikusi eban lehenengoz honexek: «Garagarrilean edurra»-k. Eta *Euzkadi* egunerokoan urten dira argitara «Aratoste», «Urtebarri, barri», «Kukua entzuten», «Zinaldari arteza», «Tximistargi barria» eta «Alkar aitu hobe da alkar hil baino».

Hamalau horreexek dira lehenengokoak; beste zazpiak, «Gizon zuhurrak ondo erabagi», «Baltz euskalduna», «Jatorria», «Hor dozu ospea eta betoz diruak!», «Beharrak beharra eragin»,

⁴ Hurrean: seguruenik, segurutik.

⁵ Eikezu: egingo dozu.

⁶ Argitaldu: argitaratu.

⁷ Izparringi: egunkari.

⁸ *J. t.* Bilbaon.

⁹ Artezkuntza: zuzendaritza.

¹⁰ Azartu: ausartu, azarri.

¹¹ Zinaldari: lekuko (egilearen azalpena be aurrerago).

¹² Ingurti: aldizkari.

«Ardaozeak poltsea galdu» eta «Atxuriko milagroa» barriak dira, orain arte argitaratu bakoak.

Irakurgaitxu honeek gehienak jazorikoak dira: batzuk antxi-
nakoak, nik neure aitari entzunak, eta berak bere aititari; beste
batzuk neuk batu dodaz hor-hemen neure aldian; beste batzuk
neuk asmauta be badira, guztitara.

Hor dozuz ba, irakurle; eta ez deusuela gogait eragingo bale-
ki, poz-pozik geratuko litzateke, eta zeuri eskerrak eginik¹³, euron
egilea.

Ebaristo Bustintza, *Kirikiño*

¹³ Eskerrak egin: eskerrak emon.

I

ZERUTAR BAT

Nik orain gomuta ez dodan etxaguntza baten bizi ei zan bigarrenez ezkonduko emakume bat, buru barrua hutsik edo behinik behin ondo beterik ez eukana bera, irakurleak igarriko dauen lez.

Agertu jakon behin ate ondoan eskeko bat, bere soinekoak zaharraren zaharraz danak triskilduta¹⁴, alde guztietatik zulatuta¹⁵, oinetakoak ahoa zabalik barreka, buruko txapela be koipez beterik, erdi-erdian leiho biribil bat ebalá, bertatik ule pilo bat agiri jakola. Bere arpegi¹⁶, ule, bizar eta makilarainoko guztiak, danak ziran soineko, oinetako eta txapelaren antzekoak. Arlote handiagorik, amesetan be, inork ez leuke sortuko irudimenean.

Harriturik, ikusi ebaneko, itandu eutsan emakume harek:

—Ene! Nondik urten zara era horretan? Nondik zatoz?

—Zeutatik¹⁷, andrea —erantzun eban Arlotek.

—Zeruetatik zatozala? Zeruetatik esan dozu?

¹⁴ Triskildu: apurtu.

¹⁵ *E. j.* zulu.

¹⁶ *E. j.* aurpegi.

¹⁷ [Zeuta Afrikako urian oraintsu arte euki dau Espainiako Gobernuak espetxe nagusi edo presilioa].

Oharra: presilio > *e. j.* presidio.

—Bai, andrea, handixik nator.

—Aitearen eta Semearen! Hondino halakorik! Orduan, beharbada, ezagutu izango dozu Juane gurea.

Hauxe zan bere lehenengo senarraren izena. Espetxe nagusitik etorren azeri zaharrak laster igarri eban zelako *lelantoni* eukan aurrean eta, badaezpadan, jarraitu eutsan honen oker-aditzeari.

—Ezagutu ez, ostera! Bai, eta adiskide handiak gara.

—Ene, ba! Eta, zelan dabil bera? Ondo bizi da?

—Gitxi gorabehera neu lez. Han ez da ohi beste bizikerarik¹⁸. Danak arlote, danak zorriz, ardiz, soineko zaharrez eta nekez beterik.

—Ai, ene Jaungoikoa! Juane koitadua! Nork uste izan behar holakorik? Bihurtuko zara bertara barriro?

—Bai, aldi handirik ez da igaroko ni hara joan orduko; uste dot, behintzat.

—Orduan eroan behar deutzazuz gauzatzoren batzuk, nire bihotzeko Juane hain txarto bizi ez dedin.

—Bai, bai, pozik be. Ataraizuz¹⁹, ataraizuz gauzok.

Atara eta emon eutsazan ba, diruren batzuk, soineko barriak tolostuta²⁰ maletatxo baten, eta ganera gorantzi handi eta ugariak Juane koitaduarentzat.

Zerutarrak alde eginda gerotxoago agertu zan, nondik edo handik, emakume haren bigarren senarra. Emazteak esan eutsan:

—Badakizu? Juaneren izparrak²¹ gaur euki dodaz!

—Arranoa! Nondik hartu dozuz, ba?

—Oraintxe hemen egon dan gizon bategandik. Izpar txarrak ekarri dauz.

Azaldu eutsan gero senarrari zelan emon eutsazan Juanerentzako esan diran gauzak. Hau entzum orduko itandu eban gizonak:

¹⁸ E. j. biziera.

¹⁹ E. j. atera.

²⁰ E. j. tolestu.

²¹ Izpar: barri.

—Norantz hartu dau izpardun²² horrek?

—Handixe bidetik. Zer zoaz egiten?

—Ba, Juaneren barri jakin gura dot neuk be eta, joan behar dot izpardunagaz hitz egiten.

Atera eban kortatik zalditxo polit bat, ganera igon, eta tximistea baizen arin aldendu zan.

Baina Zeutako espetxetarrak²³ arima zaharra euki, eta otu jakon baten bat urten litzatekela bere atzean; ezkutau eban maletatxua sasiarte baten eta jesarri zan bide zabaletik urteten zan bidezidor baten hasieran.

Zaldidunak, heldu zanean, itandu eutsan arloteari:

—Adiskidea, ikusi al dozu bide honetan maletadun gizon bat?

—Bai, bidezidor honetatik hartu dau, baso zarratu erditik gorantz. Oinak bizkor daroaz berak, eta bere bila bazoaz, errazki arin ibiliko zara.

Basoa ez zan zaldiz ibiltekoa, eta bere esturan²⁴, senarrak emon eutsan besteari aberea, esanaz:

—Mesedez, zaldi hau eukiko deustazu apur baten?

—Bai, zoaz ardura barik, hemen itxarongo deutsut.

Alde egin eban leloak; atara eban Arlotek maletea eta, zaldia-ri igonda, arinari emon eutsan pozarren.

Besteak, barriz, bota behar zituan gibelak ahotik mendi hare-tako bazter guztiak arakatu beharrez: batera eta bestera, atzera eta aurrera, gora eta behera. Azkenean, arnasestuka, nekatuta, izerdituta, bihurtu zan zaldia-aren eske, eta harrizkoa lez geratu zan inor ikusi ez ebanean.

Ulertu eban guztia, hartu eban eroapena²⁵, eta joan zan etxe-ra lotsatuta.

²² [Izpardun: barridun].

²³ [Espetxe: kartzela]. [Espetxetar: presilario].

Oharra: presilario > *e. j.* presidiario.

²⁴ Estura: estutasun, larritasun.

²⁵ Eroapen: egonarri, pazientzia.

Emazteak, heldu zanean:

—Eta, ikusi dozu?

—Bai.

—Eta zaldiari zer egin jako?

—Emon egin deusats, Juaneri eroateko, beharbada guk baino haren beharrizan gehiago euki lei eta.

—Ai, zu lango gizonik ez dago ludi²⁶ guztian! Zorionekoa zugaz ezkondu nintzan ordua!

²⁶ Ludi: mundu.

II

DEUN²⁷ IZATEKO BIDEAN

Basetxe baten ei egoan, antxina, egundo eleizara izan ez zan mutil bat. Bere ugazabak bidaldu²⁸ eban behin meza entzuten, eta eleizea non aurkitzen zan ez ekian lez, esan eutsan lagun asko sartuko zan etxe handi batera joateko.

Jatsi zan ba, kalera gure mutilori, eta heldu orduko ikusi eban eztegu²⁹ handi bat eleizatik etxerantz joiala. Gomutau eban uga-zabaren esana, batu zan ezteguagaz eta sartu zan danakaz ezkonbarrien etxean.

Inork be ez eutsan ezer esan, senide edo auzokoren batek beragaz ekarri izango ebalakoan; jarri zan mahaian, eta ederto bete eban sabela hango jan-edari ugariakaz.

Pozik bihurtu zan etxera, eta aste guztia joan jakon bere uga-zabari itanduka ea igandea noz³⁰ etorren. Ugazabak erantzuten eutsan:

—Mutil, etorriko dok. Itxuraz ondo ibili hintzan, horrenbeste gurari adierazoten doan ezkerro barriro be joateko.

²⁷ [Deun: Santu].

²⁸ *E. j.* bialdu.

²⁹ Eztegu: eztei, ezkontza.

³⁰ *E. j.* noiz.

—Bai, ondo ibili! Ño! Estuan nago³¹ igandea heldu arte!

—Kristinau guztiak horrelakoxeak izan behar lieukiek³². Asko eta asko jagozak, mutil, mezatarako beti nagi aurkitzen diranak, beste gauzatarako bizkorrak izaten dozak, baina.

—Ez naz ni ba, horreotarikoa. Ha zan atsegina nik euki nebana igandean! Eta, jente nagia dagoala hain gauza ederrera dinozu? Sinestu³³ be ezin leiteke!

—Mutil! Hori dok, hori, kristinautasuna! Hoa, hoa, bide horretatik, eta neuk dinoat deun handi izatera helduko hazala.

Larunbat gauean amesetan egin eban mutilak, okela-zati, bisigu erre, ogi zuri, gaztae³⁴, pitxerkada ardao eta beste hone-lango gauzakaz. Itzartu³⁵ zaneke urten arin ohetik, arrapataka³⁶ jantzi eta bizkor kalerantz, aho guztia gozotuta, gora-goraka atseginarean atseginez.

Kalera heldu zanean, entzun zan mezatarako azkenengo txilinhotsa, eta hagaitik ikusi eban jentea arin eleizarantz; berau be arin-arin joan eta sartu zan erdi ingururaino. Han gelditu zan begira alde guztietara, eta ikusi ebanean etorten ziran guztiak ur bedeinkatu-ontzian sartzen ebezala euren eskuak eta gero arpegi-ra edo (beretzat) ahora eroan, arineketa baten joan zan bera be, eta beso guztia sartuta ibili zan, ea zatiren bat aurkitzen eban; baina alperrik, han saldea baino besterik ez egoalako.

—Ederra jokatu jeustek! —esan eban hagin artean.

Geratu zan gero bazter baten isilik³⁷ eta adi, eta hizkaldia³⁸ hasi zanean alde egin eban gogait eginda.

³¹ Estuan egon: larri egon, gogo biziz egon.

³² *J. t.* laieukiek.

³³ *E. j.* sinistu.

³⁴ *E. j.* gaztai.

³⁵ *E. j.* izartu.

³⁶ Arrapataka: arineketa, arrapaladan.

³⁷ *J. t.* ixilik.

³⁸ Hizkaldi: eztabaida.

Etixeratu zanean, badinotso ugazabak:

—Hona hemen gure kristinau zintzoau be, zintzorik badago inon!

Mutilak arpegi ilunduagaz:

—Gaur ederrak emon deustez.

—Zer ba? Jo egin habe ala? Eta zergaitik? Mezatara joatea-gaitik? Zorionekoa haz, gauza deunakaitik nekeak igaroten hasi hazalako. Esan neban nik deun handiren bat izango hintzala, jarraitzen baheutsan hasiriko bideari. Eta, zelan izan dok?

—Berandutxu heldu naz gaur, bai, eta saldea baino besterik ez deuste itxi. Itxaron dot gero puskatxu baten, baina ezer be ez. Han aurrean hiru gizon, zaku antzeko gauza batzukaz jantzita, ibili eta ibili, batera eta bestera, nik ez dakit zer egiten. Beste bat, ostera, sabai ganean hiru mila txilibitu joten. Alkarri didar³⁹ bat edo beste egiten izan deustie, ulertu ezin leitekean eraz. Geroago igon da beste bat lexibontzi⁴⁰ baten ganera, eta hasi da agiraka eta didarrez guztiz hasarre⁴¹. Hauxe ikusi dodanean, «ezer hartu ez eta, nik zergaitik entzun behar joadaz ba, holango demoninokeriak?» esanda alde egin dot. Hurrengoan, ez naz azkenen joango.

—Badakik nora joan behar doan hik? Kortara! Hantxe daukak lekurik egokiena, astotzar arraiorrek! Ez deusku azkenean *deun* txar-txarrak urten mutil eder honek!

³⁹ *E. j.* deadar.

⁴⁰ Lexibontzi: lexibea gordeteko ontzia.

⁴¹ *E. j.* haserre.

III

AZERI AZARTUAK OILOA DAROA

(JAZORIKOA)

Errioxako uri txiki baten alkar topau eben behin herri bateko euskaldun mutil bik. Bata gaizto samarra, ezergaitik ikaratuten ez zana, edozein esturatan urteera laster asmetan ebana, bide onetik zein txarretik. Bestea, barriz, on huts bat, inori kalterik egin baino lehenago goseak hilgo leukeana.

Ez da zergaitik esan zenbat⁴² poztuko ziran alkar ikusita. Erbestean inoz⁴³ bakarrik ibili danari ez da zergaitik, jakingo dauelako zelan nasaitu eta bigunduten dan bihotza herritar bat aurkituaz, batez be antxinako ezaguna bada. Euskal Herrian edo euskaldun artean beti bizi izan danari be ez da zergaitik, bihotzari dagokiozan gauzak ez diralako errazak azalduten, eta aditu erazoten⁴⁴ be ez, ondo adituteko sentidu egin behar diralako.

Baina aldendu gaitezana adarretatik eta goazen garrira⁴⁵. Gure mutilak ba, alkarri agurrak eta laztanak eginda gero, hasi ziran autuan⁴⁶ era honetan. Esan eutsan okerrak otzanari:

⁴² *J. t.* zeinbat.

⁴³ *E. j.* inoiz.

⁴⁴ *E. j.* adierazo; adituazo.

⁴⁵ Garrira joan: harira joan.

⁴⁶ Autu: solas, barriketa.

—A, mutil! Nondik nora habil? Ze bizimodu darabilk? Nora hoa hemendik?

—Ibili nok Gaztelan lan bila, eta ozta-ozta gosez ez hilteko beste aurkitu dodanean, Goikoari eskerrak. Eta, beraz, orain etxera naioak. Eta hik, ze bide daroak?

—Neuk baneki! Ugazaba galduta dabilen txakurra lez naia-gok, nora jo ez dakidala. Aspaldian ez joat euki lanik, eta ez jaukat lauzirikorik⁴⁷ eta, beraz, ez jaukat non sartu, zer jan eta ez jakiat zer egin be. Heugaitik zerbait emotea mesede egin behar deustak, gitxi bada be. Herrira hoanean, eskatu egiek neure gura-soei eta han kitatuko⁴⁸ haz.

—Bai, ona naiagok ezer emoteko! Hartzeko izan balitz...

—Zer ba, diru barik hago ala?

—Txakur txiki bat edo bi, gehien.

—Hau dok izatekoa! Onak gaiagozak! Ba, zeozer asmau behar joagu, mutil, bestelan galduak gaituk!

—Bai, asmau! Zer asmauko joagu, ba?

—Ze arraiio! Goazen ostatura, bai, eta afaria eskatu eta jan daigun, eta gero atara deiguela urdailean sartu doguna.

—Hik beti izan behar betikoa! Halan jango joagu, baina kartzelan sartuko gaioezak; eta nik, lotsarien ganean etxerako bidea galduko joat. Ez, ez, ni ez naioak horretara.

—Dana dala, hobe dok kartzelan afalduta egon, kanpoan goseak hilik baino.

—Ez, ez holakorik, mutil. Onena izango dok jarraitzea bako-txak bere bideari, eskatu Jaungoikoaren izenean ogi zati bat baino ez bada, eta ea helduten garan ni neure etxera eta hi lana aurkituko doan lekuren batera.

—Lelotzarrori! Bildurtiori! Hator neugaz, eta ez hadi ezeren bildur izan, neuk jabe⁴⁹ urtengo⁵⁰ joat eta. Txarrik etorten bada,

⁴⁷ Lauziriko: txakur txiki.

⁴⁸ E. j. kitutu.

⁴⁹ E. j. jaube.

⁵⁰ Jabe urten: nagusi urten, irabazlea izan.

esango joat hik ez daukaala errurik, neuk dana ordainduko nebalakoan etorri hazala.

—Baina, mutil...

—Ze mutil eta ze arraio! Hator behin, eta ez hadi hain oiloa izan!

Joan ziran ostatura, ba; afaldu eben ederto, behinik behin batak, besteak ez hainbeste eban bildurraz.

Afalostean ekin eutsien barriketan bertan egozan gaztelar mandazain batzukaz, eta autuaren azkena izan zan musean jokatzea gure mutil biok beste mandazain biri.

Lehenengoan ardaoa bakarrik jokatu zan, mandazainak galdu ebela berau, eta honeek zerbait berotu ziran, harrotxuak baziran eta. Jokatu eben gero afaria eta gau haretako ohe-saria, irabazleak izan zirala honetan be euskal mutilak.

Hasarratu⁵¹ jaken haxe mandazainai, eta euren barru guztia irakiten eukiela itandu eben, ea dirua jokatu gura eben, eta mutil okerrak ausardi handiaz baietz erantzun eban. Beste gizagaixoa, barriz, Gokaxoki⁵² edo Purgatorioko bat irudian, larri-larri, aho guztia legortuta, ikara-ikara eta beretzako inoala: «Hau langoakaz batuten danak, berak daukaz erru guztiak. Nori burura etorri lekio bihar arteko ostatua eskuetan euki eta dirua jokatzea, sakelean txanpon bat euki ez eta? Jaungoikoak hobea⁵³, nahaste ederean sartzen goaz!».

Hain larri egoan, apal-apal esan eban hobe izango zala jokoa ixtea, baina lagunak erantzun eutsan:

—Heuk gura ez badok dirurik jokatu, neuri laguntzea baino besterik ez daukak; galdu edo irabazi neuk bakarrik egingo joat.

Itundu eben joko baktzak laurleko⁵⁴ bat balioko ebala, eta horrexegaitik dirurik atara barik ez batzuk ez besteak, lehengo

⁵¹ *E. j.* haserratu.

⁵² Gokaxoki: purgatorio.

⁵³ Jaungoikoak hobea: ai ene!, ene badatxua!

⁵⁴ Laurleko: pezeta.

babakaz jarraitu eutsien zorioneko jokoari. Ohi dan lez, izan ziran jokoan gorabeherak, baina azkenean mandazainek galdu eben hainbat laurleko, ordaindu eben galdu ebena eta oheratu ziran danak.

Biharamonean banandu eben dirua mutilok, eta agur alkarri egiteko egozala inotsan mutil onak besteari:

—Hik egiten doazanak! Nik igaro naioazan larriak bart! Ez geunkan ba, nahikoa afaria eta ostatua irabaziaz? Zertarako sartu diru-nahasteetan? Zer egiteko galdu bagendu? Horixe dok bene-benetan, hegaz dabilen saia⁵⁵ hartzearren eskuko txoriari aindutea⁵⁶.

—Ut, ez zarie ezertarako be eta, lelo ustelok! Nik ez jakiat urteten zarien amandreen gona-artetik, arra beteko⁵⁷ uretan itoten zarie eta.

—Bai, ba! Halan jazo balitz, ez jakiat heu be zelan ibiliko hintzan, heure azartasun guzti horregaz.

—Zelan ibili? Ibili eza! Hasarrea jokoan ataratea gauza erraza dok, eta zeren edo haren ganean laster urtengo zolan matrakea, eta hau neuk eroango naioan burrukaraino hainbat arinen, eta argi, eta edontzi, eta pitxer, eta mahai, eta bazter guztiak aidean ibiliko zoazan, holango jazokeretan izaten dan lez. Gero...

—Gero..., guk ederrak hartu behar!, gu baino gehiago zirala-ko, eta ganera, kartzelara!

—Ze kartzela, gero? Ni hasiko nintzoan orduan didarrez neu ninioiala alkateagana egundoko arinen, hango nahastean garriko-
tik poltsea⁵⁸ ostu eustela, eta han lapurren batzuk egozala, eta...

—Mutilak!

—Ikaratuko naioazan apurren bat, ostatu-jabeari holango gauzak ez joakozak ondo, ezta mandazainai be euren bidea atze-

⁵⁵ [Sai: Euskal Herriko basa-hegaztirik haundiena, abere hilak jaten dauzana].

⁵⁶ [Txoria aindu: txoria askatu, joaten itxi].

⁵⁷ Arra bete: eskuarra (neurria).

⁵⁸ *E. j.* boltsa.

ratuteko gauzarik; eta neure asmoagaz urtengo gintzoazan ezer be ordaindu barik gitxienez, ganera eskupekoren bat isilik egotearren atara ez bagendu.

—Ez hau hi hain arin goseak galduko daukaazan azerikeriakaz!

—Zer egingo deustak, ba? Gibelak euki behar izaten dozak errimeak⁵⁹ bazterrera urteteko; itoten dagoana ezin dok ibili begiratzen alboan agiri dan ontzia gorituta dagoan ala ez.

⁵⁹ Errime: sendo, gogor; trebe.

IV
AURRERAPEN IKARAGARRI
BAT OSAKUNTZAN
(JAZORIKOA)

Behinola, Madrileko akeitetxe⁶⁰ bateko mahai baten inguruan batzen zan ikaslari edo estudiante pilo bat, euren artean lagikari-gaiak⁶¹ edo osalari-gaiak⁶² zirala gehienak; danak *vascongadoak*, bi edo hiru euskaldun kendu ezker.

Esan beharrik ez dago barriketea eurrez⁶³ ibiltzen zala batzar haretan. Gau baten atara eben osalariok eta lagikariok matraka galanta; hareek euren ogibidearen alde, honeek eurena goratu beharrez, bide batez alkarri inon diran txakurkeriak arpegira jaurtinda.

—Zuek drogeaz bizi behar izaten dozue eta...

—Zuek, ostera, osagai berenezkoakaz⁶⁴ eta ganibeta antzeko tresnakaz. Zenbat gizajo⁶⁵ ez ete dozue bidaltzen beste aldera!

⁶⁰ [Akeitetxe: *café-etxe*].

⁶¹ [Lagikari: *abogado*].

⁶² [Osalari: *médico*].

⁶³ Eurrez: ugari.

⁶⁴ Berenezko: pozoitsu.

⁶⁵ *J. t.* gizajo.

—Lumadun gizonak erpe gaiztokoak! Ludian drogarik ez balego, lagikariak goseak hilik!

—Zuek adina edozein atsok daki. Joaten zarie astotzar bat baino motzago ohe ondora, hartu han dagoanaren eskubitorra⁶⁶, buruari alde batera eta bestera eragin, ipini papel⁶⁷ txatal baten hurrengo burura jatortzuen txarrikeriaren bat, lan-sari ederrak kendu, eta hor konpon, osatzen bada ondo eta hiltzen bada, lurra emon degioela eta kito, zuei zer?

Honakoxe irain garratzak alkarri jaurtitera eratsi eben euren eztabaidea.

Alboko mahaian egoten zan zaldun urtetsu bat, ule eta bizar zuriduna, koronel zana edo izana, morroiak esaten ebenez. Ikas-lariak arpegiz ezaguna eben eta agur egiten eutsien bere mahaira etorri edo kanpora joaten zanean, akeitetxean auzokoak ziralako aspalditik.

Gazteen eztabaidea garraztuten hasi zanean, jagi zan halako baten zaldun hori eta begirune handiaz esan eban:

—Inork deitu ez deustan lekura nator, eta azartu naz horrenbesteraino, ustea dodalako parkatuko deustazuela; bada, nik zuen aita izateko beste urte dodaz, zeozer alkar ezagutzen dogu, eta neure bizitza luzean gauza asko ikusita nagoanez, argi apurren bat ekarri daiket zuek darabilzuen eztabaidara.

Mutilak kapelak erantzi eta euren erdian jesarri eragin eutsien esanaz:

—Jauna, ez daukazu zertan parkamenik eskatu, geuk dagitsuguz eskerrak⁶⁸ etorri zaiakuzalako.

Agureak eta ikaslariak alkarri labankeria handiak eginda gero, hasi zan ha hitzaldi bat egiten, guztiz polito, danak poz-pozik entzuten eukazala ahora begira.

⁶⁶ *E. j.* eskutui.

⁶⁷ *E. j.* paper.

⁶⁸ Dagitsuguz eskerrak: eskerrak emoten deusuguz.

Lehenengo azaldu eban lagia⁶⁹ zer dan, honen jatorria, bere beharrizana ludian, zenbat eta zelako onurak dakarskuzan, eta azkenez, zein goratuak izan behar eben lagiak ikasi eta aztertuten dabiltzanak, baita eurak gorde edo jagoteko izentauta dagozan gizonak.

Gero, osalarien aldez be gauza guztiz ederrak esan ebazan: osasuna dala gauza bat bera galdu arte ez dakiguna daukan balioa; osakuntzeak egiten dauela, ez bakarrik gaixotasunari igesi eragin, baita gatxa ekarri leiken gauzea ondo ezagutu eta alden-du eragin be bai, *higiene* deritxan zeraz, eta halan aberriak edo nazinoak osasuntsu eta gogortu, eta edozein aurrerapenetako ger-tu ipini; gauza jakina dala ba, osasun bagako⁷⁰ herriak, ez indar-rerako, ez adimen gauzetarako daukiela ganorarik, eta honeeta-riko asko esan ebazan jas⁷¹ handiaz.

Mahai harek irakastola⁷² bat irudian orduan, eta irakasle bateri lez entzuten egokozan adurra dariola mutil gazteak agure-ari, papau batzuk lez.

Jarraitu eutsan honek bere arloari gitxi gorabehera honetara:

—O! Harrigarri eta entzungarriak dira izan osakuntza gauze-tan urteokaz egin diran aurrerapen, inoz amesetan be gogora eto-ri ez jakezanak gu baino lehenagokoei! Hainbestean dirala-ta, azaldu behar deusuet, zuen baimenaz, hain ardura handiz entzu-ten zagozen ezkerro, neuk Parisko gaixotegi baten ikusi neban osa-kuntza bat.

—Bai, bai, pozarren entzungo jatzu, jauna. Jarraitu eizu —inotsien mutilak.

—Tira, ba. Eroan eben egun baten gizajo bat izterrazurra hausita, burdi⁷³ handi baten txirringeak azpian hartuta edo. Gai-

⁶⁹ Lagi: lege.

⁷⁰ Bagako: bako.

⁷¹ Jas: ganora, grazia.

⁷² Irakastola: ikastola.

⁷³ E. j. gurdi.

xotegi haretako osalari nagusiak eta bere hurrengokoek arduraz begiratu eta ikusi eutsien izterra gizon hari. Gero hasi zan bakotxa bere eretxia edo aburua adierazoten eta gehienak inoen hankea kendu beharko jakola bizia atara gura bazan; nagusiak orduan honetara hitz egin eban: «Izterra ebagiteko astia gero be eukiko dogu eta, badaezpadan, lehenengo ikusi behar da neuk aspaldian daukadan uste bat. Gizajo hau hanka bagarik⁷⁴ bertan behera ixten badogu, hilgo da, hankeagaz bizimodua kenduko deutsalagu eta». Uste hori izan zan, hondatuta eukan izterrazur atala kendu eta ordeztatu, ipini txakur handi baten hazurra, habe edo zugatzai mentua⁷⁵ ezarten jaken antzera, eta ikusi ea oratuten eutsien hazurrok alkarri. Egin zan ba, eta ez dago zertan esan zein ederto zainduko eben gaixoa osalariak; bajoiazan egunak, eta geroago eta hobeto joian gizona. Izterra osatu jakon azkenean; ohetik jagi zan eta hondino makal, baina hankea lurrean ipinten eban: mentua lortu zan, beste beharrianik ez egoan indarra hartutea baino gizona osoro geratzeko.

—Horreek dira gauza miragarriak ikusten doguzanak gaurko egunetan! —inoen harrituta gazteok.

—Baina, gure gorputzean, atal guztiak bardinbageak izan arren, hain alkartuta dagoz danen artean gauza oso bat egiteko ze, batak ezer daukanean, besteak, danak ez badira be batzuk behinik behin, sarritan okertu eta moteldu eta gaixotuten dira. Hau da osalariak *konplikazinoa* esaten deutsalena. Hauxe jazo zan han be. Guntzurrunetara eta puxikara jo eban gatxak, ezin eban txizik egin, puxikeak eztanda egin behar eutsan gizonari eta bizia galdu behar eban, laster osabideren bat hartu ezik. Osalariok ebiltzan gau eta egun zoratu beharrez, zer ete zan ezin igarrita, liburu guztiak aratuaz⁷⁶ ea zer alkartasun eukan hazurretako gatxak guntzurrunakaz. Itxaropena galtzen hasi ziran, ez ekien zer egin.

⁷⁴ Bagarik: b̄arik.

⁷⁵ Mentu: txerto.

⁷⁶ Aratu: aztertu, arakatu.

—Eta, hil zan gizajoa?

—Ez. Dei egin eutsien beste osalari entzute handidun bati. Honek itandu eban zer eukan eta zer egin jakon. Azaldu eutsien guztia, eta erantzun eban: «Ea, ekarrizue hona gizon hori». Eroan eutsien ba, eta besotik heldu eta horma ondora eroanda, agindu eutsan: «Altaiztu hankea gora, ea txizik egiten dozun». Parra-
parra, ederto egin be. Han egozan guztiak ikaratu ziran, eta benetasun handiaz esan eban osalari ospetsuak: «Txakur baten hazurra ipini deusazuen ezkerro, zelan arrano gura zenduen ba, gizon honek bere beharra egitea, hankea jaso ezik horma baten ondora hurreratuta?».

Hau entzunaz hasi ziran gazteak barreka, hain benetan, eurai bai txiza eragin eutsela agureak bere ipuinagaz. Berau, oster, piperra baino benago edo serioago geratu zan.

Berez gogo onekoa zalako edo, mutilak bakean ipintearren edo, ez ekien honeek zergaitik halango gizon urtetsu agurgarri bat joan jaken barregarrikeria haregaz.

V

PERU *MAKUR*

Peru *Makur* agure gizajoa, zaharraren zaharraz ezertarako gauza ez zalako, hemendik destaina, hortik bekoki iluna, handik agiraka garratza, eta beti goseak hilik, guztiz txarto bizi zan bere seme eta erranagaz, eurok etxeko txakurrari aitari baino jaramon gehiago egiten eutsiela.

Hain atsekabez eta hain errukigarri bizi zan aguretxuaren belarrietara heldu zan behin albiste edo izpar hau: Erregeri lapurretan egin eutsiela, txingi edo bitxi eder asko ostu eutsiezala, eta sari handi bat aginduta⁷⁷ egoala lapurrak nortzuk ziran agertzen ebanarentzat.

Peruk bere kolkorako egin eban: «Haraxe joan behar joat, eta hiru edo lau eguneko jan-edana eskuratuko joat edozelan be, eta gero zuzitu⁷⁸ nagielu gura badabe, niri zer? Zer galduko joat, ba? Ez asko, gaur darabildan bizimodua baino heriotza berbera asko txarrago ez dok eta».

Esan eta egin; itxi semea eta errana (pozarren honeek, agurea etxetik aldentu jakenean), hartu errege-uriko bidea, eta bajoian

⁷⁷ *J. t.* abindu.

[Abindu: prometidu].

⁷⁸ [Zuzitu: desegin].

txairo⁷⁹ eta bizkor gure Peru, bere baserritar jantzi zahar ipingitsu⁸⁰ nabarragaz, Jaunari erreguka ahalik ondoen atara egiala arazo haretatik.

Errege eta honen inguruko aurrera agertu zanean, bere arpegi tximur zimela eta bere soineko marroizak⁸¹ ikusi orduko hasi ziran guztiak barre-purrustadaka; batak inoan:

—Zer dakar kaiku zahar honek hona?

Besteak:

—Hau, bere herri koskorreko txinel⁸² nagusia-edo da.

Honek:

—Gizonak, *astronomo* honek izarrai begituta edo igarriko dau, eta katalajo handi bat ekarri egiozue!

Harek:

—Eskumaldea nondik nora dan ete daki, gero, beronek!

Txoriak mozoiloa erabili ohi daben lez, irri eta barre erabilen gizajoa. Erregek, horraitino, barreka-barreka esan eutsan:

—Aitaita, adorerik ba al dozu hartu dozun zeregina bide onera eroateko?

—Bai, jauna —erantzun eban—. Emon bekit hiru edo lau eguneko epea, eta zerbait egingo da.

—Baita emongo jatzu epe hori, eta oraintxe aginduko dot neure jauregiko ezkaratzeko morroiak jan eta edaten⁸³ emon deizuela.

Joan zan ba, Peru *Makur* ezkaratzera, zokondo baten mahaitxo bat ipini eutsien, eta morroi batek bazkari ederra eroan eutsan; argitu jakon gogoagureari, eta urdaila ondo bete ebanean esan eutsan bere buruari, bazkari bat harrapau ebala gogoraturik: «Bat, horraitik, eskuan jaukat, honek ez jeustak igesi egingo».

⁷⁹ Txairo: dotore.

⁸⁰ Ipingitsu: adabakitsu.

⁸¹ Marroiz: zarpail, narra.

⁸² Txinel: aguazil, udaltzain.

⁸³ *J. t.* edan.

Morroia adi-adi eta zurt begira egon jakon zatitxo baten, eta lagunakana heldu zanean, zurbil eta arnasa barik azaldu eutsen agureari entzumikoa, eta ikaratu ziran guztiak, eurak ziran ba, lapurrak eta.

—Agure kaiku horrek igarri egin ete jeuskuk, ba? Afaria beste batek eroan degiola, ea zer urteten dan.

Halan egin eben. Orduan be agureak, afaria amaitueran, esan eban:

—Bi jausi dozak; bihar eta etzi jausiko dozak besteak be, eta ez naioak hain txarto.

Agureak esakune honetan janaldien kontua erabilen.

Morroia joan zan arin besteakana eta esan eutsen:

—Arraiea, mutilak, gureak egin jok, galduak gaituk! Hauxe eta hauxe esan jok agure demonino horrek; dana jakik.

Larritu ziran mutilok, eta azkenez itundu ziran agureari hitz egin behar jakola eta beragaz aitu⁸⁴, ea onean zuzendu ahal eitekean zoritxarreko arazo ha. Hurreratu jakon ba, agureari morroien artean buru egiten ebana, eta autortu eutsan eurak zira-la Erregeri ostu eutsienak, eta gertu egozala atzera emoteko ostu ebana; baina, Jaungoikoarren, ez eizala salatu, bestelan urkamen-dira behar ebela-ta. Peruk esan eutsan ezeren bildur ez izateko, ardura txikienik barik lo egiteko, ezertara be ez ebazala agertuko eta.

Biharamonean Peruk eroan ebazan Erregeren aurrera txingi edo bitxi guztiak, Errege eta bere ingurukoak aitearenka ixten ebazala. Harek itandu eutsan Peruri:

—Eta lapurrak nortzuk dira, ba?

—Ezin esan neikio, jauna, neure hitza emon deutset ez dodazala agertuko eta.

—Baina zuzentasunak aginduten deusku gaizkinak zigortau egin behar dirala.

⁸⁴ *E. j.* aditu.

—Egia handia da hori, jauna, baina damututa dagozan ezkerro, osturikoa bihurtu daben ezkerro, errege guztien Erregeren parkamena daukie eta, Harek parkatu ezkerro, berorrek be parkatu beie, jauna.

—Ez dago txarto esanda, eta bai poz handiaz, aitaita, parkatzen deutset. Orain beste gauza bat igarri behar deustazu: nire emaztea laster sein egiteko dago, eta esan eiguzu mutila ala neskea izango dan argitara urteteko dagoan seintxua.

Peruk erantzun eutsan Erregina ikusi behar ebala horretarako, eta areto edo saloi handi zabal baten, lagun-aldra⁸⁵ handi baten erdian Peru *Makur* gizajoa estu eta larri egoan zer esan ez ekiala; baina zeozer esan behar eban eta, eskatu eutsan Erreginari mesedez ibili eitela alde batera eta bestera areto haretan. Ibili zan ba, eta Peruk esan eutsan Erregeri:

—Jauna, gauza zaila da igarten, ez nago ziur; haruntza doanean mutila iruditzen jat, honuntzakoan, ostera, neskea.

Peruren zorionerako, handik hiru edo lau egun barru Erreginak ume bi egin ebazan, bata neskea eta mutila bestea. Nork adierazo han izan zan harritasuna⁸⁶? Nork azaldu noraino goratua izan zan Peru *Makur* kaikuaren jakintasuna? Lehen barre-purrustadaka hartu eben agure zimela, orain Seneka berbera euren artean agertu bailitzan, lotsa eta itzal handiaz begiratuten eutsien.

Larri egoan, baina, gure Baserri, Errege eta enparaduak⁸⁷ hau, eta hori, eta bestea igarri egiala-ta hasiko jakozala, eta bide honetan laster jausi behar ebala ikusten ebalako.

Halantxe, berak uste izan eban lez hasi jakozan, eta Peruk bere larrialdian urteera polit bat asmau eban. Erregeri *sermoitxo* bat zuzendu eutsan, bertan, beste gauza askoren artean, inotsala:

⁸⁵ Aldra: talde.

⁸⁶ Harritasun: harridura.

⁸⁷ *J. t.* enparauak.

—Gogoratu eikezue, jauna, nik neurez ezin izan dodala euki indarririk edo birtuterik egin dodazan gauzak egiteko; gogoratu eikezue, Jaungoikoagandik euki dodala indar hori, eta Jaunak beharrezana danean bakarrik emoten dauela bere eskerra edo grazia, eta ez gizonen jolaserako. Ez Jesus Gure Jaunak, ez bere jarraile⁸⁸ izan diran santuak egin dabe inoz miraririk munduaren jolasgarrirako. Ez naz ni santua, baina hori gorabehera, santuen bidez mirariak egin dauzan lez, ni pekatarioren bidez Jainkoak berak egin dau zuek nigan ikusi dozuena, eta orain jolasbidean igarkizunakaz hasten bagara, Jainkoa zirikatzea izango da, eta pekatu lotsagalduko hori egin baino lehen, hobe izango da ni neurre etxera joatea, berorren baimenaz.

—Gizona! —erantzun eutsan Erregek—, igarle ona zara baina ez zara sermolari txarragoa. Bai, zuzen zagoz. Ederto esanda. Eutsi ba, zeure zahartzarora hainbat ondoen igaroteko lain, eta zoaz Jainkoagaz.

Hau esanaz batera, Erregek zizkukada⁸⁹ urrea emon eutsan. Bihurtu zan agurea baserrira, eta seme, erran, loba, lehengusu, eta laugarren edo bosgarren mailako senide guztiak, auzokoak, herriar guztiak, txiki eta handi, danak alkarren lehian, berari eder egiten⁹⁰ eutsiela (zizkukada urrearen *milagroak*), eztula baino zaharrago egin arte ederto bizi izan zan Peru *Makur* agure zolia.

⁸⁸ Jarraile: jarraitzaile.

⁸⁹ [Zizku: poltsa, zizkukada: poltsakada].

⁹⁰ Eder egin: koipeztu.

VI ITUXURAK ZINALDARI⁹¹

Prakerre eta *Motroilo* esan, eta txakurra eta katua esan, arribiltarrentzat gauza bardina zan, hain zan handia hareek eukien alkar ikusiezina.

Ezin izaten eben alkar hartu⁹² ezertan be; nahikoa zan batak eguna zala esatea, besteak ezetz. Pelota-jokoan, eta bolalekuan, eta karta-jokoan, eta hauteskundeetan, edozertariko jokotan aurrez aurre beti aurkitzen ziran. Herrikoak esaten ebenez, ardan-degian bertan be, batak ardao zuria eskatzen baeban, besteak ardao baltza. Alkarren ondoan, urrumaka⁹³ eta uleak astinduta otso bi lez egon behar beti!

Euren taiu eta izakeretan⁹⁴ be ezin ziran izan bardingeagoak⁹⁵.

Prakerre, txakur jesarri bat baino handiagoa ez zan; gorputzez argala, samaz luzea, arpegiz estua, sudurra luze eta makotua⁹⁶, begiak txikiak eta barru-barruan sartuak, bizarra meha-

⁹¹ [Zinaldari: testigu].

⁹² Alkar hartu: berbatu, itundu.

⁹³ Urrumaka: kexaka.

⁹⁴ *E. j.* izaera.

⁹⁵ Bardingeago: desbardinago.

⁹⁶ Makotu: okertu.

tza⁹⁷, eta burua txikitxua. Bizkorra zan bera, dantzari nekeba-
gea⁹⁸, barritsu handia, hitz hutsa; pirri⁹⁹ nagusienetarikoa, leku
guztietan lehenengoa beti izan gura izaten eban, eztabaida dane-
tan orioaren antzera berak igon behar inork baino gorago, eta
honetarako bere indarrak laguntzen ez eutsanez, gibel gaizto eta
demontretakoa zan, eta badaezpadakoan, aizto luze bat garriko-
an erabilten eban.

Motroilo, barriz, erraldoi handi eta zabala zan; burutzar ikus-
garria eban, ule-zapa baltz zarratu bategaz estalduta kokotetik
hasi eta begien hur-hurreraino; bepuruak¹⁰⁰, matrailak, sudurra,
ezpanak, handi eta trauskilak¹⁰¹ ebazan, sutegiren baten mailu-
kadaka eginak irudiela. Bizarra be zarratua, buruko ulea lez; aza-
la, baltz-gorritzkea, begirada itzala¹⁰², ahotsa lodi eta astuna. Oso
indartsua zan. Hitzak, gitxi eta neurtuta lez jaurtiten ebazan;
matrakan nekez hasten zan, baina behin hasi ezketino¹⁰³, hitz
asko egin baino lehenago bere besoetako gabi¹⁰⁴ astunak erabil-
ten ebazan, eta orduan bildurgarria zan.

Mutil txikitxuak zirala erne zan euren artean gorrotoa. Zerta-
tik? Batek badaki!

Gizonen bihotzetan hazi txarra ernetea ez da harritzeko.
Euretan landara gaiztoak hain erraz eta ugari urteten dirala iku-
sirik, esan leike hazi barik berez jaioten dirala, edo bertan dago-
zan erro zatiren batetik dakarrela jatorria. Hazitik badatoz be,
nork galerazoko¹⁰⁵ deutso haziari norberen soloan jausten? Hai-

⁹⁷ Mehatz: gitxi, bakan.

⁹⁸ *J. t.* nekegabe.

⁹⁹ Pirri: artega.

¹⁰⁰ Bepuru: betule, bekaine.

¹⁰¹ Trauskil: baldar.

¹⁰² Itzal: ilun, goibel.

¹⁰³ Ezketino: ezkeru.

¹⁰⁴ Gabi: mailu.

¹⁰⁵ *E. j.* galarazo.

zeak dakar, edo urak dakar, edo aberetxuren batek dakar, edo badator arerioa gauzez eta ereiten dau.

Gero, jaio daitezanean lanak egin behar dira! Orduan ondo ikusten dira! Orduantxe bai eskuz edo atxurrez atara behar dira eta garbitu behar da soloa, landara onak emon dagiezan igali¹⁰⁶ eder zoriontsuak!

Haugaitik¹⁰⁷ itandu behar da zelan gehitu zan mutilen gorrotoa, ez zertatik erne zan.

Prakerretxo eta *Motroilotxo* txikitari edozer ezerezkeriagaitik burrukan ibiltzen ziranean, zenbat bider jazo ete zan egotea hurrean gizon piloren bat, eta honeek, mutilak banandu eta bakean ipini beharrean, amorratu eta sututen ebezan, eurari begira alditxo bat emotearren, honeetariko esakerakaz¹⁰⁸:

—Ea, *Prakerre*, gogor, arraioa, ez dagiela esan makalak garrantziak! —bere auzotegitarak¹⁰⁹.

—Ea, *Motroilo*, ez ukatu, heurea dok hori eta!

Nozonoz¹¹⁰ burrukea amaitzen eben, nekatzen ziralako, ez euren amorrua gitxitzen zalako, berau erakusten ebela begirakune eta esakune gaiztoakaz, eta etxeratzen ziran soinekoak lohitu eta urratuta, sudurretik odola dariola, eta arpegitxoetan baltzuneran bat edo beste ukabilkadakaz eginak.

Etxera heldueran, han izaten ziran garrasiak; bakoitzaren amak burura esku biak jasota, samako zanak hasarrez handituta, begiak txingarrak irudiela, urtetan zan semeagana didarka:

—Nork ipini hau era horretan? Nor izan da, neuk neure atzarretan ito daidan? Beti izan izango da urlia txakurtua! Orain-txe, geroko itxi barik, joango naz taraska¹¹¹ horrerri esatera hazi-

¹⁰⁶ Igali: frutu (egilearen azalpena be aurrerago).

¹⁰⁷ Haugaitik: honegaitik, horregaitik.

¹⁰⁸ *E. j.* esaera.

¹⁰⁹ Auzotegitar: auzo, auzoko, auzotar.

¹¹⁰ Nozonoz: noiz edo noiz.

¹¹¹ Taraska: erreputazino txarreko emakumea.

kera¹¹² hobeia emon degiola bere txakurkumeari. Bai eta laster, gero!

Alkar aurkitzen ziran emakume biak eta euren ahoetatik, kerexak bata besteagaz katigatuta otzaratik lez, urteten ziran inork asmau ezin leikezan hitz zikin, irain eta txakurkeriak. Sarri, ondoren, alkarri oratuta lotsagarritzko burrukea egiten eben, eta dana mutikotxoan aurrean!

Hau ezeze, gero, gurasoakandik hartzen ebezan onu¹¹³ deungak¹¹⁴, amorruez emonak:

—Oilanda demoninoori! Inoz haregaz burrukan hasten bahaz, ez hakit ondora etorri burua hausten ez badeutsak, ezpabe¹¹⁵ neuk saihetsok berotuko deudadaz, epel, irabiobako¹¹⁶, ez dakit zelakoori!

Bertan behera itxiaz bakarrik, soloa jorratu eta zainduten ez bada, gehituaz eta gehituaz badoaz bedar galgarriak, eta azkenez, ereindako hazietatik datozen landara onak itoten badabenez, zer ez ete da jazoko, bedar txarrak hainbat lasterren atara beharrean, eurai lagunduten bajake?

Jakina, izan behar leuken eta, izan be, izango zan solo edo barat igali¹¹⁷ eta lora ederrez betea, larra bat egingo da, sasia eta otea, eta arantzea baino besterik ez daukana.

Zelango zenbatza¹¹⁸ emon beharko eben Erabagile Nagusia-ren aurrean *Prakerre* eta *Motroiloren* guraso eta herrikideak, haizea emon eutsielako haren bihoztxueta ixetu zan gar txikiari, putz bategaz itzali eitekeanari?

* * *

¹¹² *E. j.* haziera.

¹¹³ Onu: aholku, kontseju.

¹¹⁴ Deunga: txar, oker.

¹¹⁵ *E. j.* ezpabere.

¹¹⁶ Irabiobako: geldo, odolbako, prakanasai.

¹¹⁷ [Igali: *fruta*].

¹¹⁸ [Zenbatza: kontua].

Arribilgo ardandegian, igande goiz baten meza nagusi ostean, gizon taldetxo bat egoan euren eztarri egarrituak ardao zuriz busitzen. Gehienak lurginak ziranez, autuan eragoien eguraldi eta baso, eta solo, eta abere, eta honeetariko gauzez. Guenean¹¹⁹ gazte batek aitatu eban arratsalde haretan Arribildik ez urrin egin behar zan erromeria.

—Mutilak, errosario ostean erromeriara joan beharko joagu dantzaldi bat egiteko.

—Joan ez, ostera? Hori zertan esan be ez!

—Baina, itunduta zagoze neskatilekaz?

—Bai, *Prakerre* hain ospezalea dan lez, hor ibili dok batzuei eta besteei hitz egiten, gaur handienetarikoa egin behar dala-ta.

—Errotabeko neskatileari be hitz egin izango jeutsak horrek.

—Baina mutilak, egia ete da *Motroilo* be neska horren atzean dabilela?

—Egia dok, bai.

—Handia dok eurena, horraitino¹²⁰! Orain arte ez joek euki ba, sekulan gauza baten nahia eta, horra! Inoz alkartu dozak nahi baten, inoz baino hasarreago geratzeko.

—Eta zeini arpegi emoten¹²¹ jeutsak neskatileak¹²²?

—Ziur ezer ez jakiagu, baina zurrumurrua dok hortik zehar, *Motroilogana* daukala zer gehiago.

—Arraietan, ederra be badok eta!

—Ez dok aingerua, baina beste erkinaren aldean gizon itxurea jaukak behinik behin.

—Bai, gizon itxura ederra! Arimea aldendu ezkeru, nahiz kanpotik nahiz barrutik hori eta astotzar handi bat, harenbaten¹²³.

¹¹⁹ Guenean: azkenean.

¹²⁰ *J. t.* horraitio.

¹²¹ Arpegi emon: erantzün, nahierak egin.

¹²² *J. t.* neskatileak.

¹²³ Harenbaten: bardintsu, antzeko.

—Ba, *Prakerregaz* ezkondu edo tximino bategaz ezkondu, ez jakiat neuk zer gura izango neuken gehiago.

—Arratsaldean han izango dozak biak.

Orduan, ardandegian egoan zahar batek esan eutsen mutilei:

—Jaungoikoarren, eurokaz arduraz ibili zaiteze, ezbehar bat jazo ez daiten danon lotsagarrirako.

—Gogoan hartuko dogu zeuk dinoskuzunori, Juananton, baina ez dogu uste burrukaldi eta zartada batzuk baino gehiago jazo leitekenik.

—Ez jakiat, ba. Neskatilea *Prakerregana* balego, beharbada *Motroilo* errazago baketuko litzatekek, bestea baino gizonagoa dalako; baina esan dozuen erara gauzak dagozan ezkerro, beste kontu bat da. *Prakerrek*, txikia eta ziztrina dalako burla egin deutsiela uste izango jok eta zoratuko jakok, eta edozer ezbehar egiteko bideak hartu leikezak.

—Izan leiteke, baina izanda be, zer? Aiztoa badaroa be, *Motroilo* ez da haren bildur, belarrondoko bategaz urrinera bidal duteko behar dan baino zazpi bider indar gehiago dauka eta.

Arratsaldean, erromeria zan lekuko zelaitxua bete-beterik egoan alboerrietako gazteriaz. Han ebiltzan hauts artean, arpegiak gorri-gorri eta izerdia tantaka eriel, eguzkiak eta ardaok eta eurak erabilen arloak berak emoten eutsen beroagaz, arnases-tuka nekearen nekez, baina hori gorabehera, danak barreka eta pozarren.

Prakerrek auresku bat egin eban, erabili ebazala inon diran hanka-bihorkadak eta kirimilak¹²⁴, guztiz bizkorra zan eta; lagun guztiak berari begira egozan, eta arribiltarrak sokan pizka bat harrotxo ebiltzan halako dantzari urtena¹²⁵ euretarra zalako. Errotabeko Marikruz ekarri eutsien lagun, eta sokan sartu baino lehen, hareek izan ziran txotxolokeriak *Prakerrek* egin ebazanak

¹²⁴ Kirimil: txirinbuelta, kikiribuelta, jauzi.

¹²⁵ Urten: azarri, ausart, adoretsu.

neskatileari eder egitearren! Jaurti eban bere txapel gorria Mari-kruzen oinetara, eta hasi zan artazika eta morapilaka¹²⁶ bere hanka bizkorrakaz txilibituaren soinu arin bategaz lagunduta, atzera eta aurrera, eta gora-goraka, eta mila jirabiraz. Artean, neskatilea irribarreka, pozarren, nasai-nasai eta harro egoan; zelan ez? Ez zan emakumea bestelan izango! *Prakerrek*, hau ikusiaz, bere artean inoan: «Ze *Motroilo* eta ze morroilo! Aurreko honi kendu deusat bihotza; lora kutun hau ez dago astotzar haren ezpanetarako». Eta gero uste hau bide zala pozaren pozaz erdi zoratuta, txoxolotuta ibili zan arratsalde guztian. Txandea berea izan zan.

Motroilo, barriz, erreten egon zan, eta behin baino sarriago ez eban asko behar izan besteagana joan eta bertan ostikoka eihotuteko¹²⁷.

Etixerantz abiau ziranean gure arribiltarrok, *Prakerrek* lortu eban Marikruzegaz bakarrean hitz egitea: bere bihotzeko ondoezak agertu eutsazan, hagin-ataratzaile batek baino barriketa gehiagogaz, otzan-otzan, bildotsa baino apalago. Neskatileak, eskerrak eginaz, hitz eta hitz adierazo eutsan berandu heldu zala, edo besteren bategana hitzez lotuta aurkitzen zala, edo honakoren bat. Orduan, bildotsari uleak zerbait astindu jakozan eta otsotuten hasi zan; ekin eutsan, horraitino, autuari, neskeari atara gurarik ea nor zan hitza hartuta egoana, baina neskeak ez eutsan esan gura. Honek, autuari ebagi bat emonaz, bere lagunakaz batzeko guraria agertu ebanean, *Prakerre* osoro hasarratu zan, eta esan eutsan:

—Hori badakit nik nor dan, ez dozu esan gura, baina.

—Badakizu ba, zertan zabilz jakin gurarik?

—Ziur jakitearren, zeure ahotik entzutearren; baina, itxuraz, orban edo zetakaren bat euki behar dau zozo¹²⁸ horrek, argitara atara gura ez dozunean.

¹²⁶ Morapilaka: txirinbuel'taka, kikiribuel'taka, jauzika.

¹²⁷ Eiho: astindu, ederrak emon, bero-bero egin.

¹²⁸ Zozo: ergel, inozo.

—Orbanik badauka edo ez badauka ez da inoren ardurea, neurea baino.

—Jakingo dogu, geroago jakin behar dan gauzea da eta, Mari-kruz, eta nik susmetan dodana bada zure senargaia, neuk aginduten deusut ez zarala beragaz ezkonduko, nahiz eta galerazoteko ludi guztia erre eta kiskaldu behar balitz be.

—Jesus! Ez da horrenbeste izango, horraitino; zu zaran gizonagaz guzti hori egitea gehiegi dozu.

Hauxe irribarrez esanda, neskeak igesi eutsan bere lagunakana. *Prakerre* geratu zan odola irakiten ebala, ahoa legortuta, bihotza zartadaka¹²⁹, arnasarik hartu ezinik, ikaraka, bere ahotik jaurti gura ebazan irain eta biraoak ezin oguzita¹³⁰. Sartu jakon bihotzaren erdian asmo deunga zitala; nozonoz asmo hau bete ahal izango ebanaren itxaropenak zerbait nasaitu eutsan bere barrua, eta batzartu¹³¹ zan beste gazteakaz. Amorrua sakonago sartu jakon, herrira heldu baino lehenago *Motroilotzar* ikusiaz Marikruzen ondoan, eta hau, ostera, udabarriko goiz bat baino arpegi eder eta argiagogaz.

Arribilera heldueran banatu ziran erromeriakoak aldratxoe-tan, eta bajoiazan baxotxa bere auzotegi aldera abeska¹³² eta zantzoka; aldratxo honeetan emakumeak ziran gehienak; gizonezkoak, ardandegian sartu ziran gehienak azkenengo zurruta edateko.

Prakerre eta *Motroilo* be han ziran. Laster sortu zan matra-kea bien artean, eta *Motroilok* besteari emon eutsan bultzakadeaz txirikilea¹³³ lez zehar bota eban jarleku eta mahai artera. Jagi zan hau suge zitalaren amorruez, edegi eban aiztoa, eta ezpanetatik bitsa dariola bajoian *Motroilori* sartzen. Honek aulki bategaz jo

¹²⁹ Zartadaka: golpeka.

¹³⁰ Oguzi: ahoskatu.

¹³¹ *J. t.* batzau.

¹³² [Abeska: kantetan].

¹³³ Txirikil: umcen olgetea.

eban burutik behera eta *Prakerre* osterabe¹³⁴ lurrera. Orduan sartu jakon *Motroilo*, aiztoa kendu eta beragaz bertan triminduteko¹³⁵ usteaz, baina ezin izan eutsan kendu, katua lez haginka eta ostikoka egiten ebalako. Guzti hau igaro zan aida batean. Banandu ebezan, *Motroilo* esku eta besoetatik odola dariola burrukan ebagi batzuk hartu ebalako, eta *Prakerre* buruan handitu eta zauri batzukaz, besteagandik harturiko plaustadakaz¹³⁶. Honek, gorrotoz hizi-bizi begiak beteta ebazala, esan eutsan *Motroilori* harrapauko eban lekuan garbituko eba.

Alkateak hau entzun ebanean (zeozer berotxua zan bera) esan eutsan:

—Zer garbitu edo ze arraio? Nor garbitu behar dok hik, demoninoorrek? Etxera isil-isilik, eta laster joan be, gero, aizto hori hemen itxita, katu txatxarri¹³⁷!

Prakerrek, azkenengo hitzok entzun ebazanean, alboan eukan edontzi bat hartu eta jaurti eutsan burura alkateari, eta odoldu eban. Orduan, danen artean oratuta, amorratuta egoalako, pizti basati bat izan balitz lez lotuta espetxera eroan behar izan eben.

* * *

Erromeria eguneko jazoerak ondo ospetsuak izan ziran herri txiki haretako biztanleentzat.

Jazoera harek bere ardurapean hartu zituan epaikariak¹³⁸, eta epaitu¹³⁹ eban burrukari biak espetxean gerizpea hartu egiela

¹³⁴ Osterabe: barriro, atzera.

¹³⁵ Trimindu: bero-bero egin, ederrak emon, astindu.

¹³⁶ *J. t.* blaustada.

Plaustada: zapladako, belarrondoko, ahutzetako.

¹³⁷ Txatxar: ziztrin, zital.

¹³⁸ [Epaikari: *juez*].

¹³⁹ [Epai: *sentencia*].

alditxo baten, eta gero *Prakerre* erbesteratu eitela Arribiltik lau legua ingurutik ate¹⁴⁰.

Epaia bete eben. *Motroilo* ezkondu zan Marikruzegaz, eta maizter edo errenteru jarri zan herriko basetxe baten. *Prakerre* joan zan biziten handik bost legua bidean egoan herritxo batera, eta han ipini ebazan bizargintzea eta zapatagintzea.

Arribil haonan¹⁴¹ bake-bakean geratu zan. Bertako notin¹⁴² zentzundunak ez eben asko behar egun haretako odol-isurtzea ia bedeinkatzeko, bere ondoren, inoren kalte handi barik, halako bake dontsua ekarri ebalako; baita uste eben, *Motroilok* eta *Prakerrek* alkarregana eukien gorrotoa, urteakaz bigundu eta azkenez urtu egingo zala. Edozelan be, ondo zan bata besteagandik urrin eukitea.

Horraitino, *Prakerre* beti *Prakerre*, eta *Motroilo* beti kirten handi bat izango ziran, txikitatik ekarren laztasunagaitik: hazikera txarra izan dauen zugatza, lehenengo urteetan okertu zana, eta halan handi eta gogorra egin dana, nork zuzendu? Jaungoikoak bakarrik bere ahalmenaz, beste inork ez.

Baina Jaun Irakasleak beharbada horrelako habe okerrak zuzendu barik ixten dauz askotan, guzti hori ikusi eragiteko zelako ondorenak dakarzan hazikera gaiztoak, eta beraz ikasi daigun zelan eta zenbat umeak zaindu behar doguzan okertu ez daitezcan, eta inoz okerbidean ikusi ezkeru zuzendu daiguzan haretarako eskubiderik badaukagu, eta euki ezik, behinik behin ez emon indarrrik hartu daben bide deungatik jarraitzeko.

Gizon egin zanean gugaitik, Berak irakatsi euskun bere txikitxoan aurrean galbidea emongo eutsen gauzarik egin baino hobe dala samatik errotarri bat estu eta itsasora bota izatea. Guretzat

¹⁴⁰ *J. t. at.*

Ate: kanpora.

¹⁴¹ Haonan: h(a)olan, h(a)olantxe.

¹⁴² Notin: persona (egilearen azalpena be aurrerago).

bere esana bakarrik nahikoa izan behar leuke bide zuzenetik ez urteteko, baina zorigatzez ez da halan, eta Jaun errukitsuak jazo-erakaz egunero bere agintzak gomuta erazoten¹⁴³ deuskuz. Ludiko jazoera guztietan, ondo begiratu ezkerero, ikusi daikeguz gure Jaunaren irakaspen ederrak.

Prakerreri gorrotoa ez jakon gitxitu. Estura handian bizi zan; berak eban errua, ezkondu barik eta ganora barik, ardanetxeetan, erromerietan, eta halakoxe lekuetan aldirik gehiena emoten ebalako. Baina berak, estutasun honen jatorria ipinten eban *Motroilogaz* euki eban hasarrean. Igaroten ebazan atsekabe guztietan bihotza garrez beterik esaten eutsan bere buruari: «Haxe izan dok hire hondamendia, haxek galdu hau sekulako, ez hintzan aurkituko orain hagoan eran, Arribilen bizi izan bahintz».

Haugaitik lehenagoko gorrotoa bizi-bizi egoan bere bihotzean, eta ez bizi erkinaz, eta bai sendo, gogor eta inoz baino handiago.

Motroilok, bere emaztearen nebakaz hasarrerren batzuk ebazan, ogasun izkiren¹⁴⁴ batzuk zirala eta ez zirala, eta hain latza eta kirtena zan lez inork ezin eban beretik atara ezertara be. Euren artean asko garraztu ziran, eta behin edo behin urten zan urten behar zana ha lako kirtenagaz eztabaidetan ibili ezkerero. Berak eta bere koinatu batek alkarri eskuak ezarri eutsiezan, eta *Motroilok* ebazan indartzarrakaz apurtu eban bestea ukabilka eta ostikoka, eta gehiagora be helduko zan, banandu ez balebez arin. Koinatuak, lagun aurrean, hori lako jazokunetan hasarrearen beroak erazoten dauzan hitzakaz *Motroilo* zematu¹⁴⁵ eban:

—Hau ordainduko deustak ba, astotzar, kirten, arraioorrek! Indarra daukaala-ta, errazoiari begiratu barik beti heureagaz

¹⁴³ *E. j.* gomuta arazo, gomuta eragin.

¹⁴⁴ Izki: apur.

¹⁴⁵ Zematu: mehatxatu (egilearen azalpena be aurrerago).

urtengo doala uste dok ala? Sutaustak¹⁴⁶ hik baino indar gehiago jaukak, hire atzamarrak baino zorrotzago dozak aiztoak¹⁴⁷ eta azkorak.

Hurrengo eguna igandea zan. Edurra egoan goietan, eta euria zan behetan. *Motroilok* herriko ardanetxean afaldu eban eta bertan egon zan gaua ondo sartu arte, iganderik gehienetan berak eta beste askok ekandua¹⁴⁸ eben lez. Urten zan bakarrik etxerantz, eta atzean gizon bat joakon, jausten zan euriaren ardura gitxigaz. Haizeak eta euriak batera egiten eben hotsaz *Motroilok* ez ebazan entzuten bere jarrai joianaren oinkadak; hau noizik behin hurre-ratzen jakon, eta berehalaxe gelditzen zan bide-ertzean, egin gura ebana egiten azartuko ez balitz lez. Gero, itxuraz, beste asmoren bat hartu behar izan eban, bidetik aldendu eta gehiago agiri ez zalako.

Inor bizi ez zan etxe txiki erdi apurtu baten ondotik igaro behar eban *Motroilok*. Horma ondotik joiala, saihetsetik zartada bat susmau eban. Bihurtu zan, baina indarrak huts eginda, aiene-ka lurra jo eban. Etxearen ilunbean ezkutaunik egoan gaizkinak aizto zorrotza sartu eutsan; *Motroilo* lurrean ikusi ebanean urten eta esan eutsan:

—Bizirik hago hondino, tximisteori? Ezagutzen al nok? Nor nazan ba al dakik? *Prakerre* nok! *Prakerre* makilatua, *Prakerre* ostikopetua, *Prakerre* erbestetua; *Prakerre*, bai, estu-estu eta larri-larri, ia eskean ibilteko eraz aurkitzen dana heugaitik! Ai, nozonoz jausi behar hoan¹⁴⁹ neure eskuetan, arraioorrek!

Motroilo gizajoa azkenetan egoan, izerdi larritan, zotinka, eta bildurturik heriotza ikaragarria hain hurrean ikusita. Gomutau zan Jaungoikoagaz, eta emazte eta semetxoakaz; bere goralpe-

¹⁴⁶ [Sutausta: *pólvara*].

¹⁴⁷ [Aizto: *cuchillo*].

¹⁴⁸ Ekandu: ohitura.

¹⁴⁹ *E. j.* heuan.

nez¹⁵⁰ esan behar dogu, sendiaganako maitasunak bere gorrotoa betu¹⁵¹ ebala, eta beraz, *Prakerri* esan eutsan:

—Jaungoikoarren, itxi naik! Egin deustaan zauria garbitu eta estaldu eidak! Ez naik hil!

—Ezta! Hementxe hil behar dok, hementxe guzti-guztiak ordaindu behar deustazak!

—Teilatutik behera datozen ituxurak izan daitezala hik nigaz egiten doan gaiztakeriaren zinaldari —esan eban *Motroilo* errukarriak, ia zer esaten eban be ez ekiala.

—Izan daitezala, ba! —didar eginda *Prakerre* otso gogorrek bertan erail¹⁵² eban.

Baina, zelan izan erailea *Prakerre*, handik urrun bizita? Oraintxe azalduko da.

Motroilok larunbatean bere koinatuagaz izan eban burrukea eta honek zelan zematu¹⁵³ eban, igande goizean heldu zan *Prakerri*ren belarrietara, eta *Motroilok* ardanetxean gauaren zati bat igaroten ebala igandeetan baekian lez, erabagi eban egitea egin ebana.

Bera bizi zan herriko ardanetxean aurkitzen zan igande ilun-tzean mus-jokoan; eta buruko min handia eukala-ta, txarto egoala-ta, jokoari itxi eutsan eta bertan egozan batzuk lagun egin eutsien etxeraino. Han larranbilo-ura¹⁵⁴ hartu, eta euren aurrean oheratu zan. Gerotxoago, zerbait hobeto egoala-ta, bidaldu eban esanaz biharamon goizean, badaezpadan, heldu eitezala, baldin txartoago baegoan, bakarrik eta gaixorik bere burua ikusi ez egian.

Lagunak alde egin eta gerotxoago jagi zan, urten etxetik, eta basorik baso bideak asko laburtuaz, arin, deabruak bere hegoak

¹⁵⁰ Goralpen: gorespen, alabantza.

¹⁵¹ [Betu: *vencer*].

¹⁵² [Erail: *matar*].

¹⁵³ [Zematu: *amenazar*].

¹⁵⁴ [Larranbilo: *manzanilla*].

emon izan baleutsaz lez, hartu eban Arribil aldera, eta heldu zan hondino *Motroilo* ardanetxean egoala, eta gau hutsez, bakartadean, atzetik eta gogorkeria handiaz esan da zelan egin eban heriotza madarikatua.

Berehalaxe bihurtu zan etxera. Gau luzea zan lez, eguna zabaldu baino lehenago heldu eta oheratu zan, lagunai itxaroten. Honeek, etorri ziranean, aurregunean¹⁵⁵ baino askozaz gaixoago aurkitu eben; egun batzuetan aiene guzurrezkoak ugari ebazala lotu zan ohean.

Hurrengo goizean jakin eta zabaldu zanean *Motroilo* erailda¹⁵⁶ topau ebela, herri guztia zurtuta¹⁵⁷ gelditu zan. Herrian halako egitada¹⁵⁸ deungarik ez eban inork gomutetan, ezta zaharren artean be.

Epaikaria¹⁵⁹ etorri zan, agindu eban aratuteko eraildakoaren soineko sakelak ea lapurretan egitearren erail ete eben; ez, aldean eukazan diru eta baliodun enparadu gauzak. Itandu eban ea inogaz hasarrerik izan eban; baietz ba, koinatu bategaz zala hasarre eta hiru egun aurrerago alkar joten ibili zirala. Beraz, hartu eban koinatua, eta epaiterki¹⁶⁰ buruko espexera eroan eben. Epaikariak egiten eutsazan itaunetara, garratz ukatzen eban. Agindu eutsan azaltzeko non egon zan gau haretan, eta berak erantzuten eban etxean egon zala eta etxeakoai itanduteko; baina etxeoen esanak ez eutsan balio eta, ostera, burukea ikusi eben guztiak esaten eben zelako hitz gogorraz zematu eban *Motroilo*.

¹⁵⁵ Aurregun: bezpera.

¹⁵⁶ Erailda: hilda.

¹⁵⁷ Zurtu: harritu.

¹⁵⁸ Egitada: ekintza.

¹⁵⁹ [Epaikari: juez].

¹⁶⁰ [Epaiterki: *Distrito judicial*].

Epaikariak, horraitino, itandu eutsan *Prakerre* bizi zan herriko alkateari ea alde egin ete eban hak inora erailtza egin zan egunetan; ezetz erantzun jakon, igandean ohean sartu eta eguenera arte gaixorik egon zala.

Beraz, epaikariak eta danak, eskiertzat¹⁶¹ edo ziurtzat eukien *Motroiloren* erailea bere koinatua izan zala, honen ukamenai jaramon barik. Epaia¹⁶² bere kaltez izan zan, urte askotan espetxean egoteko nekea ezarri eutsien, errubako gizajo handia!

Prakerreri, bihotz gogorduna izan arren, sortu eta jaio jakozan bihotzaren erdi-erdian hartxo bi, txiki jaio arren handi egin-go ziranak, non jan baeukien eta: bata, egin eban heriotzagaitik; bestea, espetxean egoan errubako gizajoagaitik.

Aldia aurrera joian, eta harrak hazi eta hazi, urte batzuetan heldu ziran eurai egokien handitasunera, eta *Prakerreren* izakeran¹⁶³ aldakuntza handia egin zan apurka-apurka. Ez zan ikusten erromerietan eta beste jolas-lekuetan. Itzala egin zan; lehen barriketa hutsa zana, isila eta hitz beharrekoak baino esaten ez ebazana bihurtu zan. Itxi eutsan jokoari, dantzeari, barre egitea sekulako joan zan bere ezpanetatik: beste gizon bat zan. Bere auzo, adiskide eta lagunak barri ona emoten eutsien esanz:

—Behin edo behin gizon guztiak burua jarten dabe; zuri be heldu jatzu aldia. Ekin ba, lanari, emaztegaia bilatu, eta onerako izan daitela.

Ez eben barrutik ikusten! Egunez, ahal ebazanak egiten ebazan lagunuen aurrean zelan edo halan estalduteko bere barruko larritasun eta atsekabea, bildurrez susmau ez egien zertatik etorren. Gauez, bildur hutsa zan gizajoa: eukiten ebazan ames ikaragarriakaitik, lo egiten bildur; itxarrik¹⁶⁴ ilunean, bildur; argiagaz,

¹⁶¹ Eskier: seguru (egilearen azalpena be aurrerago).

¹⁶² [Epai: *sentencia*].

¹⁶³ *E. j.* izaera.

¹⁶⁴ *E. j.* izarrik.

berak horman egiten eban gerizeaz, eta argiak egiten ebazan zirkinakaz bazterretako ilununeak be zirkin egiten ebenean, nonor gelan egoalakoa, bildur; gaueko isiltasunean zaratatxo batek ule guztiak zutunduten eutsazanean, bildur; etxetik kanpora urtete-ko, bildur; etxean egonaz, bildur. Egunez nahiz gauez, lagun aurrean nahiz bakarrik, beti-beti bildur.

Otu jakon behin, esaten be gatx¹⁶⁵ dan bide bat, atsekabe hain izugarriei iges egiteko; baina beste aldetik susmau eban Jau-naren arpegi hasarre ikaragarria, eta bildur handiagoa sartu jakon bere haragi eta hazurren barru-barruraino.

Halan, jausi behar, eta azkenez jausi zan gaixorik. Abadeak eta alkateak emakume bat bidaldu eben, gaueko ordu batak baino bakarrago egoan errukarria zaindu egian. Osalariak¹⁶⁶ agin-duriko osakaiak¹⁶⁷ baino laguna eukiteak on gehiago egin eutsan, eta egun batzuk igarota jagi zan ohetik; hondino makal eta zurbil egoan, baina.

Haonan, gaixo ostean egoala, eurite handi bat etorri zan. Arratsalde batean, euri-zaparrada luze bat zala, baegoan *Prakerre* leihoan, begira zelan ura jausten zan hodeietatik lurrera, gela barruan emakume laguntzailea kaltzetaginen jesarrita egoan artean. Baegoan *Prakerre* begiak zabal-zabalik, geldi-geldi, gauza guztiakaz ahaztuta, burutik oldozpen¹⁶⁸ guztiak iges egin baleutsie lez, itsaso, eta erreka, eta enriaren aurrean askori jazoten jaken antzera. Ituxurak itxartu eben eta ekarri eutsien gogora bere betiko gomutea, eta esan eban:

—Ez joazan ba, ituxurak ipini zinaldaritzat *Motroilok* gau haretan hil nebanean?

¹⁶⁵ *J. t. gaitz.*

¹⁶⁶ Osalari: osagile, sendagile.

¹⁶⁷ Osakai: osagarri.

¹⁶⁸ Oldozpen: pentsamentu, burutazino.

Emakumeak hitzok entzun ebazan, zurtu zan eta jarraitu eban bere lanean zirkinik egin baga¹⁶⁹. *Prakerre* be ez zan higitu¹⁷⁰ bere lekutik zati baten; ez jakon burutik igaro, bere oldozkuna inork entzuteko eraz urten jakonik.

Geroago laguntzailea urten zanean handik, alkatea kalean aurkitu eban, eta azaldu eutsan entzun ebana. Alkateak «ezin izan leiteke» inoan, baina badaezpadan epaikariari izparra bidaldu eutsan; etorri zan hau, hartu eban bakarrean *Prakerre*, eta eraso¹⁷¹ eutsan guzti-guztia.

Zabaldu zan izparra inguruetakoko herri guztietan. Askok eta askok ez eben sinestu gura, *Prakerrek* gauzez Arribilera egin eban joakundea zertzelada guztiakaz jakin arte. Gero, itanduten eben zelan jakin zan hain ezkutu egoan gauzea, eta ituxurak zinaldaritzat hildakoaren aldetik ipiniak agertu ebela guztia azalduten jakenean, harrituten ziran eta Jaungoikoa goraltzen eben, bere bildur osasuntsua bihotzetan ebela.

Hainbat lasterren agindua bidaldu eben espexera, bertan egoan gizajo errubakoa askatu egiela. Laster joan zan *Prakerre* haren lekua betetera; hara joan ziran beragaz atsekabe guztiak. Han, urte askotan, soinean burdinazko lokarriak eta barruan gomuta larrigarriak narras¹⁷² eroan ebazan; han, urte askotan, erdi gaixorik erdi osaturik bertako bizikera gogorrak, eta gehiago, askoz gehiago, bere bihotzean josita eukazan untzeak ez eutsien itxi une bateko alaitasunik; han, urte askotan, eroan eban bizitza bat, irudimen azkarrenak asmau leikeana baino itzalagoa eta bildurgarriagoa, Jaunaren itxarokunea¹⁷³ gizajoak galdu ebalako. Ez egoan haren bihotzean samurtasunik, ez egoan haren begietan

169 Baga: barik.

170 Higitu: mobidu.

171 Eraso: atera.

172 Narras: arrastaka.

173 Itxarokune: itxaropen.

negar-angepulurik¹⁷⁴. Haxe zan nekea! Nork azaldu daike zelakoa dan negar bagako atsekabea?

Heldu jakon behin edo behin ludi hau ixteko ordua, berak gura baino lehenago, hainbeste larritasunen erdian bizi arren. Zorionez euki eban ondoan abade jaun on bat, haren bihotzera Jaunaren itxarokunea ekarteko benetan nekatu behar izan ebazana burua, bihotza eta mihina. Azaldu eutsan jaunaren erruki neurri bagea, eta hoben edo pekatu handi eta ikaragarrien azpian aurkitu arren, bere itxarokunea galdutea, bere ontasuna ez eza-gutzea dala hobenik galgarriena. Hitz egin eutsan bihotzetik damutasunaz, geure Jesukristo Jaunaren heriotzeaz, eta abar. Ekin eta ekin lortu eban argi-izpitxo bat sartzea iluntasun hain sendo haretan. Apur-apurka negar eragin eutsan, eta atondu eban Eleiza Amaren azkenengo Ikurtonak¹⁷⁵ edo Sakramentuak hartzeko; hartu ebazan eta hil zan.

Gaurko egunetan askoren artean dabilzan usteakaz baten batek azalduko leuke *Prakerrek* eta *Motroilok* izan eben gorrotoa, honetara: «Hori euren taiu eta izakera hain ezbardinetatik nahitaez datorren gauzea da».

Horreri erantzun leikio katua eta txakurra be, txikitatik irakatsi ezkeru, alkarren adiskide izaten dirala; irakatsi ezkeru ba, errazago lortuko da hori gizonen artean, adimendunak diralako, anaiak eta, beraz, alkar maitatzeko ginak diralako.

¹⁷⁴ *J. t. negarpulu.*

¹⁷⁵ Ikurton: sakramentu.

VII

GARAGARRILEAN EDURRA

Otalarreko Txomin baino gizon isilagorik eta bakarzaleagorik ez da inon izan.

Lagun artean inoz egon behar izaten ebanean, isil-isilik egoten zan, entzun eta entzuten besteak esaten ebena. Bere gogoaz zertara egoan inork ezin igarri eikion, ikara txikerrenik be eragiten ez eutsalako bere arpegiko narruari. Noizik behin begiak erabili ez baleuz alde batera eta bestera, edonork hartu eikean harrizko, edo zulezko, edo argizaizko¹⁷⁶ gizon taiutzat.

Gitxitan, oso gitxitan, hasten zan bera hitz egiten; gehien-gehienetan berari egin behar izaten jakon, eta orduan be, hiru edo lau hitz laburregaz amaitzen eban bere erantzuera. Gurata be, ahaleginak eginda be, ezin eban inork euki haregaz hizketa luze-rik. Gizon legorragorik!

Ezerk ez eban ikaratzen. Urira inoz jatsi zanean bere menditik, menditar batentzat beti ikusgarri izan ohi diran gauzen ondolik igaroten zan ezeri begiraka ibili barik, gauza hareek egunean-egunean ikusten ohituta egon balitz lez. Lehenengoz *automobil* bat igaro jakonean ondo-ondotik adarroska, hautsa eta hatsa

¹⁷⁶ *J. t.* argizarizko.

dariola, txakur bat igaro balitz baino jaramon gehiago ez eutsan egin. Kirio edo nerbio bagako gizona irudian.

Bere izakereari alagala¹⁷⁷ etorkion bizibidea eban Txominek. Ardizain¹⁷⁸ ebilen mendian, artaldea ugazabak eta berak erdi-rantza edo erdi bana eukiela.

Alperrik izaten zan hari esatea: «Txomin, zuk hau, edo hori, edo bestea egin behar zeunke; hauxe datorkizu ondo; horixe egingo bazendu...». Ha ez zan inoz ibilten inoren esanetik, bere gogotik baino; gizon askeagorik¹⁷⁹ ez egoan inguru haretan.

Honako baten agertu zan herrian Matxin *Kaixku* barritsua, Ameriketean urte bi edo hiru ibilita gero, eta herriko ardanetxean igande arrasti baten gizon pilo handi bati eragoion edesten edo kontetan, guzur eta abar, itsasoaz handiko gauzak. Txomin *Otalar* be entzuleen artean zan.

Ameriketako lurraren gorralpen handiak esan ebazan Matxin *Kaixkuk*; eta batez be, abeltzainak edo unaiak¹⁸⁰ ederto irabazten dabela, gitxik joan gura izaten dabelako basamortura eta gehienak urietan gelditzen diralako; eta haugaitik Euskadiko baserritarrak, bakarrean bizi izateko higuinik ez daukielako hango basamortu zabaletan, laster aberastuten dirala. Eta abereak hazteko zabal izugarriak dagozala; badirala han Euskadi guztia besteko zabalak bedar gozatsuz estalduak, gizon bakar bat bizi ez zala...

Honeek guztiok entzun ebazanean Txomin *Otalarrek*, esan eutsan bere buruari: «Horreexek dozak, Txomin, heuretako aginduta lako lekuak; horixe dok abeltzaintza hori, bizibide eta irabazpide egin-eginekoa¹⁸¹ hiretzat. Hoa Ameriketara».

Biharamon-biharamonean bere ugazabari Txomin agertu jakon, eta esan eutsan:

¹⁷⁷ Alagala: aukeran.

¹⁷⁸ Ardizain: artzain, pastore.

¹⁷⁹ [Askeago: libreago].

¹⁸⁰ [Abeltzain edo unai: *pastor*].

¹⁸¹ Egin-egineko: erazko, berenberégiko, apropos.

—Ugazaba, zeugaz berba batzuk egiten nator.

—Mutil! Berba egiten etorteko zeozer jazo dok. Gure ardiak otsoak jan al jozak?

—Ez, osorik dagoz. Neureak erosiko zeunskidaz?

—Baina, zer dala-ta?

—Neu banoa.

—Nora, gero?

—Ameriketara.

—Zoratu egin al jak? Zer darabilk heuk? Badakik zer dan Ameriketara joatea? Ez eik uste hor Anboto ostean dagoala.

—Neu banoa bai, eta bilatu eizu nire ordezeko bat ardiak zaintzeko, eta esaidazu neureak erosiko deustazuzan ala ez.

—Buru horretan sartu bajak hara joatea, alperrik ibiliko nok hiri ezer esaten. Ludiko gizon jakintsu guztiak baletoz hire burutik asmo hori ataraten, ez leukiek ezer egingo. Tirok ba, erosiko deudad ardiok, eta hoa heuk gura doan lekura.

Saldu-erostea egin eben, eta bagileko hamabigarren egunean Bilbon ontziratu zan gure Txomin.

Dagonileko azken egunetan agertu zan barriro Txomin bere herrian, eta beti lez, isil-isilik, atzera zergaitik etorri zan inori esan barik. Goiz baten ugazabagana joan zan.

—Bagilean saldu neutsuzan ardiak atzera erosiko deutsudaz, gura badozu.

—Bai, pozik be. Heure ordezh hartu dodan ardizain barriak gauzonik ez jeustak egiten; hainbat ardi galdu jozak... Bidaldu behar joat, eta heu ipiniko haut lehen lez. Baina, esaidak, Ameriketara heldu haz heu?

—Bai.

—Ez dok egin han egote handirik, ba!

—Egun bat. Buenos Airesen. Ontzitik urten, eta biharamonean etorren beste bat honantza, eta hantxe sartu nintzan.

—Zergaitik hori?

—Garagarrileko hamargarrena zan.

—Eta?

—Edurra zan gogoz. Urtarrilean lez, hotzak bazter guztiak hondatu behar.

—Eta bildurtu egin hintzan, ez dok?

—Bai, ba! Garagarrilean eguraldi modu hori zanean, neguan nor atondu han?

—Ondo egin dok. Hemen hobeto biziko haz.

Handik egun batzuetara herrian zabaldu zanean zergaitik hain laster etorri zan Txomin *Otalar* Ameriketatik, Matxin *Kaixkuk* barre-zantzoka inoan:

—Kirten handia, hemen udea danean han negua izaten dok, eta hemen negua danean han udea. Hori dok, ostera, idia!

—Ez baekian, zer egingo joan, ba?

—Arrainak baizen mutua ez balitz esango geuntsaan; baina horixe jagok ba, ez jok inogaz hitz egiten eta, bere burutatik ibiltzen dok eta..., pekorotza!

Txomini esan eutsienez *Kaixkuk* inoana, erantzun eban:

—Zortzi urteko umetzat hartzen nozue ala? Alde batean negua eta bestean udea? Nork entzun jok inoz hori lako astakeriarik? Niri ez zakidaze etorri horreetariko barriketakaz, zeuen amamai joan zakieze eurokaz, txatxu handiok halakook!

Bere ugazabak be ez eban atara gura okerretik, barriro alde egingo ete eutsan bildurrez, eta sakatu eutsan gehiago bere ustea. Eta halan gelditu zan Txomin: Buenos Airesko alde hori hotzaz bazter gaiztoa dala, garagarrilean¹⁸² edurrez zuritzen dana, eta beraz, ea zer izango dan neguan!

¹⁸² [Bizkaian «garilari», urteko zazpigarren hilari deitzen deitsagu «garagarrila»].

VIII ARATOSTE

Mutiko zoztor¹⁸³ pilotxo bat agiri da, hobeto esateko, ezkute-tan da beresi barruko ikaztobi-zuloan.

—Mutilak, gaur aratoste dok, eta koko jantzita joan behar joagu herrira.

—Ederto asmau dok.

—Hori, hori!

—Aupa, mutilak!

Han da poza koko jazteko. Zuzendu dabez nondik edo handik zapi zahar batzuk eta papel¹⁸⁴ zati handi batzuk; norbaitek, etxera ostera bat eginda, ekarri dau haril bat amari ostuta edo.

Zapi zahar eta papelok banandu dabez, hamaika agiraka¹⁸⁵ eta hasarre alkarri eginda gero. Begietarako zulutxo bina egiten deutseez, eta kokote aldean hari pusketagaz lotuta, egin eta jantzi dabez karatula dotoreak.

Gero, arkondarea¹⁸⁶ praken ganetik imini¹⁸⁷, txapela eta jakea itzulietara jantzi, praka-barrenak tolestu eta jaso ia belau-

¹⁸³ Zoztor: koskor.

¹⁸⁴ *E. j.* paper.

¹⁸⁵ Agiraka: erretolika.

¹⁸⁶ *E. j.* alkondara.

¹⁸⁷ *E. j.* ipini.

netaraino..., eta horra kokomarro jantzita nire herriko mutiko koskorrok.

Eurok baino hobeto marrotuko¹⁸⁸ dira urietakoak, baina inor ez da izango pozago, jantzi polit ederrak erabili arren.

Hareek egiten dabez barre-algarak alkarri begiratuta!

—Mutilak, ikusi egiozue honi arkondarea! Laster ezagutuko habe hi, txarritoori!

—Heuk al daukak garbiagoa, zotza lakoxe txanka mehe horreekaz?

—Honi, barriz, karatuleak ezin jeutsak hartu arpegiaren erdia be, hain jaukak aldaba¹⁸⁹ handia!

—Aitu dok, hi, barritsu? Ez nieukek trukauko ba, hik daukaan gaztaina txikol¹⁹⁰ horregaitik.

—Barriketak itxi eta, tirozue¹⁹¹, goazen herrira.

—Gaur atso guztiak ikaratu behar joaguz!

Piper-pote hutsitu batzuetan harri-koskorrak sartu eta zarata eraginaz abiau dira nozonoz oihuka eta zantzoka.

Euren bidean lehenengo aurkitzen daberen etxe ondoko errekatxuaren ertzean ezkaratz-tresna batzuk dagoz legortzen, garbituta gero; hartzen dabez handik sarten¹⁹² bi eta maskilu bat, honeek be zarata egiteko, eta abarrots handiagaz sarten dira herrian.

Inon katurik ikusten badabe harrika egiten deutesie, katurrasi handiak eurak egiten dabezala. Txakur guztiak arrapaladan doaz igesi etxe-osteetara edo etxe-barruetara, ahal daberen lekura, handik hasten dirala ahausi isildu barik bildurrez. Batu jakez etxe artean olgetan ibili diran herriko ume txiki guztiak, eta danak batera jarraitzen dabe.

¹⁸⁸ Marrotu: mozorrotu.

¹⁸⁹ Aldaba: surra (irudia).

¹⁹⁰ Txikol: huts, ikol.

¹⁹¹ Tirozue: ea, ba!

¹⁹² Sarten: zartagin.

Harrapau dabe, geroago, errota osteko gaztainadian belarri handidun asto zahar-zahar bat; igon jako bat bizkarrera, eta badabilz poz-pozik alde batera eta bestera, itxita aurkitzen dabezan ate guztietan harrika eta makilaka zarata handiak atararik.

Atso guztiak barre-zantzo baten dagoz eurai begira, bizi-bizi eta pozik daukiezala euren begi tximurrak, eta hagin lokaren bat edo beste agiri jakezala euren aho zahartuetan.

Baina ludi honetan poz iraunkorrik ez dago, eta han dabilen pozak be egundoko arinen alde egiten dau.

Inork igarri barik bertaratu dira: alde batetik, errotaria bere astoaren bila; beste aldetik, sartenak eta maskilua hartu dabezan etxeko gizona bere tresnen eske.

Kokoteko bi galantak hartzen dauz asto ganean harro-harro dabilen *zaldunak*; eta tresnakaz dabilzananak, baita beste enparadua be, hartzen dabez ostikada eta zapladako dezenteak..., eta hortxe amaitu da gure herriko aratosteetako poz guztia!

Uxatu eta sakabanatu dira mutiko koskortxuok herri bazterretara, imini dabez jantziak egunoro lez, eta kito.

Itandu egiezue mutiko honeei aratosteetan olgau diran ala ez, eta erantzungo deusue alboak minduta daukiezala hondino barrearen barreaz.

Ez Bilbon, ez Parisen, ez Nizan, ez inon ez dira olgau mutiko koskor horreek baino gehiago.

Gizon egin daitezanean be gomutauko dabez eurok aratoste egunetako jazokuneak. Errotariaren kokotekoak eta beste gizonaren ostikadak eta zapladakoak euren bizitza guztian pozarren gogoratu jakez.

Poztasuna ez dago honetara edo horretara jaztean, asko edo gitxi eukitean; poztasuna norbere barruan dago, norbere gogoan.

IX

URTEBARRI, BARRI

Ene irakurleak, azaldu gura deusuet nire baserriko ekandutxu bat.

Hara, hor doaz estartea¹⁹³ gora mutil koskor batzuk, txor-txor-txor; guztiak batera barriketan, une bakartsu baten be isiltzen ez dirala, musturrak gorri-gorri hotzaren hotzaz, oinetakoak eta praka-barrenak lohi-lohi eginda lupetzez.

Heltzen dira basetxe baten aurrera, eta:

—Hemen kantauko ete joagu, mutilak?

—Bai behin! Igaz be emon jeuskuean eta!

—Tirozue, ba!

Erreskadan¹⁹⁴ jarten dira eta ben-ben, gauza handiren bat egiten balinardue¹⁹⁵ lez, hasten dira:

Urtebarri, barri
daukanak eztaukanari,
nik eztaukat eta niri
emoten ezteustana...,
txarri-belarri!

¹⁹³ Estarta: gurdibide.

¹⁹⁴ Erreskadan: bata bestearen atzean, errenkadan, segidan.

¹⁹⁵ *E. j.* balihardue.

Orain arteko abesti hau euskeraz dago, eta zeozer esan gura dau; baina hemendik aurrerakoak erdi euskeraz erdi erderaz esaten dabez, eta zentzunaren apurrik ez daukie, tentelkeria hutsa.

Don Nikolas *karamelo*,
konfessore Mariandres,
alarguna dontzeilea,
cantaremos alegría.

Lau bentana, bost ate
sei etxe eta suete,
sí, sí, sí,
no, no, no,
otzara bete solomo.

Aingeruak gara
zerutik gatoz,
una limosnita
por amor de Dios,
aquí estamos cuatro
cantaremos dos.
Agilando, agilando,¹⁹⁶
matxinarrando!

Abesti honeek asmau ebazana zororen bat izan behar; baina ez ebazan inork asmauko, abesti askoren zatiak-edo dira, mutikoak erabili eta erabili, alkarregaz nahastu eta itxulastu¹⁹⁷ dabezanak.

Ondo izango litzateke barriak egin polito eta egoki, eta mutil txikiak irakatsi, eta saritxuak emon ugari eurak abestuten jator-kuzanean, poztu daitezcan, eta ekandu zahar hori bere lohietarik garbituta ipini.

¹⁹⁶ Agilando: gabonsari, *aguinaldo*.

¹⁹⁷ Itxulastu: azpikoz gora ipini, iruli.

Nire herriko mutikoak ez dabe ondo abestuten, baina sari handirik be ez dabe hartzen: gaztaina txikolen batzuk, sagar txatxarren bat, intxaurren batzuk, tremes-ogi¹⁹⁸ zatiren bat..., dirurik ez, horixe bai, ez! Han dirua baino lehenago belarri bat emongo leukie. Esaten dabe, inoz, eta ez dakit zein etxetako etxandereak, behin lukainka mutur bat emon ebala. Orain jakizu¹⁹⁹ noz izan zan jazopen harrigarri hori; ba, ni mutiko zoztorra nintzala «Urtebarri» abesten ibili ohi nintzanean, eta hamai-ka zaparrada jausi da ordutik hona! Gu baino handiagoak ziranak esaten eben eurak be entzun ebela lukainka mutur horren ipuin hori.

Oraintsu, lehengo urte baten jazo zan gauza harrigarria, inoz amesetan be uste izan ez ebena nire herriko mutikoak: karameloak emon eutseezan basetxe baten.

Bai. Heldu zan mutiko-aldratxua *Zinko* deitzen jakon²⁰⁰ baserritar baten etxera, eta ohi dan lez, abesten ekin eutsien gogorik onenagaz «Urtebarri, barri».

Euren abeskundea amaitu ebenean, agertu zan *Zinko* etxeko atean, barreka-barreka, eta esan eban:

—Mutilak, ba, ez gozuez harrapau gauza handirik emoteko moduan; horraitino, gura bazenduez, atzo Durangotik ekarrita hortxe daukaguzan karamelo batzuk emongo geunskizuez.

—Bai, bai, hartuko doguz, bai pozik be!

Karameloen bila *Zinko* barruratu zan bitartean, mutikoak ikotika²⁰¹ pozaren pozaz; noz hartu eben ba, inoz halako saririk gizajoak? Karameloak!

¹⁹⁸ Tremes-ogi: ogi baltz.

¹⁹⁹ Jakizu: kontizu, kontuak atera eizuz (jakin eizu).

²⁰⁰ [Izen hau da «Nicomedes». Nire herriko baserritarrak «Inkomedes» esaten dabe, baita «Inko» bakarrik be; eta gero, maitasunez, «Txinko» eta «Zinko», «Txander», «Txanton», «Txartolo», «Txorke», «Txomin» eta honeetarikoen antzera].

²⁰¹ Ikotika: saltuka, jauzika.

Urten zan *Zinko* esku biak bete karamelogaz, ingi²⁰² zuri-zurietan ederto bilduta bakotxa, eta hiruna emon eutsezan mutikoei, barreka-barreka esanik:

—Gauza merkeak ez dozak honeek eta bakotxari hiru emonda be, pozik izango zarie.

Izango ez ziran, ba! Ondo pozik hartu eutsiezan! Estartea behera bitxabalerantz²⁰³ joiazala, esaten eben:

—Horixe *Zinko* lako gizonik garaunik be ez jagok herrian.

—Holakoxe gizonak gura nieukezak.

—Sekulako *Zinko* dok hori, gero.

—*Dies*²⁰⁴ izatea be merezidu jok.

Honetan, euretariko batek zabaldu eban karamelo-ingia eta..., zer zan ha! Barruan marraskilo-masala²⁰⁵ eukan! Besteak hau ikusirik, zabaldu ebezan ingiak, eta guztietan egoan marraskilo-masala.

Hasi ziran barre-purrustadaka alkarri begira, eta erabagi eben herrian ez egoala *Zinko* baino gizon burletia gorik.

Bitartean, han agiri zan bera, muna-goienean, mutikoei begira barreka.

Gabonzahar gauean jandako marraskiloen masak ingi txatal zurietan bilduten egon ei zan luzaro, mutikoei trankart²⁰⁶ egi-tearren.

²⁰² Ingi: paper (egilearen azalpena be aurrerago).

²⁰³ [Bitxabal: *camino real*].

²⁰⁴ Dies: hamar (erderatik hartutako esaerea).

²⁰⁵ Marraskilo-masal: marraskiloaren oskol, maskal edo mokolari esaten jako.

²⁰⁶ Trankart: tranpa, iruzur.

X

KUKUA ENTZUTEN

Igande goizean lehenengo mezea entzunda, Bilboko Goenkaleko²⁰⁷ Txomin *Porru* etxeratu zanean, bere emazteak esan eutsan:

—Zein gosari iminiko deusut, berakatz-zukua ala sardina zahar errea?

—Ez, gaur basora noa, eta imini eidazu gaztaia-edo, ogi zati bategaz.

—Bai, eta lukainka muturtxu bat be iminiko deusut. Egun ederra daukazu basorako. Perretxiko bila zoaz ala?

—Ez, ba! Orrilean²⁰⁸ sartuta gagoz eta hondino aurtengo kukua entzun barik nago eta gaur joatea otu jat, eta entzun arte ez nator etxera. Badakizu, lehenengoz txori udabarritar hori entzuten danean sakela²⁰⁹ *bero* badago, urte guztirako *bero* egon ohi dala.

—Bai, gure izeko, Jainkoak zeruan euki dagiala, Mari *Baltzek* be, horixe esan eroian²¹⁰, eta beste askok be bai, eta hainbestek dinoanean..., «kea dan lekuan sua da».

²⁰⁷ [Goenkale: *calle Somera*].

²⁰⁸ Orril: maiatz.

²⁰⁹ [Sakela: partikaria, *bolsillo*].

Oharra: partikari > *é. j.* patrikera.

²¹⁰ Esan eroian: esan ohi eban.

—Ekazuz²¹¹ ba, atzo harturiko asteko alogerak eta...

—Bai, bai, ene gizontxua, eutsiz²¹². Afaiteko²¹³ libra-lauren gibel ekarteko dirua izan ezik, etxeko guztiok hor daroazuz.

—Banoa ba, ea zori on bat izaten dogun.

—Badago beharra. Zoaz ondo. Ea kukutxu hori entzuten dozun.

Eguerdi aurretxean horra non sartzen dan Txomin *Porru* bere etxean arpegi ilunagaz.

—Eta? Entzun dozu kukua?

—Entzun dot.

—Tira, ba! Behintzat geuretu dogu aurtengo lapikokoa eta...

—Aste honetako gosea be bai, geuretu dogu...

—Zer dinozu? Ez dot ulertzen.

—Hara, emaztetxu, hor, Iturigorri aldetik Buiarantz joan naz, astiro-astiro, eta beti, ahal izan dodala, zugatz arterik zugatz arte, txori zorioneko hori noz entzungo ete dodan ba, ibili nabilela, jan dödazala ogi eta lukainka-mutur, eta gaztae-zatia. Deun Erroka azpiko iturritxuan hil dot egarria, ur garden eder hotz haretatik dangada batzuk eginaz eta..., bapez! Ludian kukurik ez balego lez! Neure artean, «handia dok!» esanda jesarri naz Buia barreneko zugaztian sasi moltso handi baten ondoan; eta asmau egin dot hantxe arratsaldera arte be geldi egoteko, leku hoberik ha baino amesau²¹⁴ be ezin leike ba, kukuentzako eta. Zigarrotxu bat ixetuta banago zabal-zabal arkoloka²¹⁵ bedar ganean, gerizpe gozatsu haretan, ipar haizetxu bigun hozkirria²¹⁶ arnasatuten izan dodala, ha zan aroa!, eta honetan sumetan dot sasi ostean abarrotsa, begiratzen dot eta...

²¹¹ Ekazuz: ekarri eizuz.

²¹² Eutsiz: eutsi eizuz.

²¹³ Afaiteko: afaltzeko, afarirako.

²¹⁴ [Amesau: *soñar*].

²¹⁵ Arkoloka: nasai-nasai, patxadan.

²¹⁶ Hozkirri: freskotxu.

—Kukua izango zan!

—Bai, zereko kukua! Gizon itzal bat, eskuan aizto²¹⁷ luze zorrotz ikaragarri bat eballa!

—Ene Jesus!

—Eta erderaz esan deust emoteko berari aldean neukazan diru guztiak eta agudo eta txitik be atara barik, bestelan gibelak eguzkitara atarako eustazala. Bildurraren bildurrez haginak alkar joten izan deustela, isil-isilik emon deustadaz diruak. Zer egingo zeuntsan?

—Ai, bai, ondo egin dozu, Txomin. Zeuri ezer egin ez deustunean, Jainkoari eskerrak!

—Gizon hori arin joan da gorantz, eta ni gelditu naz *praile*²¹⁸, aldean lauziriko barik eta, deabrukeria ez bada! Orduantxe, etxerantza abiau nazanean hasi dira kukuak alde guztietatik, alkarren lehian letxerik²¹⁹, kuku eta kuku! Esan eikean neuri burla egiten ebiltzala... Zer egingo jako! Txarragorik be ikusi leike eta!

—Ez estutu, ene gizon, atonduko gara zelan-halan, Jaungoikoa lagun. Alde batera, jazo jakun hori ondo irabazita euki dogula esan leike.

—Zergaitik, ba?

—Horrelako sineskeriarik euki behar ez dalako. Urte guztirako jana edo ondoizatea Jaunak emongo deusku, geure aldetik lan eginaz ahalegintzen bagara.

Eta Txomin *Porru* zintzoak eta bere emazte on-onak, bakerik osoenaz bazkaldu eben euren lapikokotxua.

²¹⁷ *J. t. (cuchillo).*

²¹⁸ *E. j. fraile.*

²¹⁹ Letxerik: legetxe, lez.

XI

ZINALDARI²²⁰ ARTEZA

Udagoieneko arratsalde epel-epela da.

Baserrietxe bateko atarte aurrean auzoko emakumeak batuta dagoz, bata galtzetaginen, bestea baba-urkultzen²²¹, hau bere gizonaren prakai ipingi²²² bat ezarten, hori galtza zaharren batzuk errepasetan, beste bat etxe ondoko pozutxuan tresnak garbitzen...

Danak darabile esku artean zeregina, inor ez dago alper, baina inor be ez isilik.

Hego-haizea dabil, eta ohi dan lez, guztiz urduri dagoz emakumetuok, inoz baino barritsuago, beti barritsuak izan arren.

Ez dakigu zertatik, ez zelan (jakizu!), euren artean hasarrea sortu da eta alkarri destainaka²²³ hasi dira, guztien aurrera inon diranak ataraten dabezala.

—A, bestelako zera! Hik heure modukoak garala danok pentsauko don.

—Ez nain asko zirikatu, hasten banaz hasi ba, atarako deunadaz ezkutuan daukazan trapuzahar guztiak eta!

²²⁰ [Zinaldari: *testigo*].

²²¹ Urkuldu: garandu.

²²² Ipingi: adabaki, txatal.

²²³ Destainaka: biraoka, irainka, zirika.

—Niiri? Geldi, geldi, gero! Lotsearen izpirik baheuka, ondo isilik egon behar heuken!

—Hik ez dakin lotsea zer dan be eta, neu isilik? Ez, horixe!

—Ez haz isilduko, ez. Hi beti izango haz betikoa; hire ondolan ezin bizi leiteken inor be eta, gaiztoori!

—Ni gaiztoa? Ea, beste behin esain²²⁴!

—Gaiztoa, bai; barriro be esango jonat, hazalako. Gizona be jo egiten don eta.

—Aitearen! Hau da emakumearen lotsabakoa! Gizona joten dodala?

—Bai, bai, joten don, egia don.

—Ez don! Eta laster guzurtauko haut, gonerre²²⁵ pesteeori!

Jagiten da bizi-bizi, altzoan daukazan gauzak hurrera bota eta hartzeko asti barik, eta inguruan olgetan dabilen mutiko bati deituta:

—*Purtoso*²²⁶, hator ona, politori! Errekadu bat egingo deustak? Neuk saria emongo deuat. Joadi²²⁷ etxe-osteko solora, hantxe jabilk gure Praisku beharrean, eta esaiok datorrela arin-arin hona, neuk esan dodala-ta.

Handik lastertxu agertzen da Praisku etxe alboko horma ganean eta badino:

—Ze denganino²²⁸ behar deustazue, barritsuok halakook?

—Hara, Praisku, esaiguzu hementxe argi eta garbi: nik inoz jo zaitut?

—Inoz bakarrik? Bai behin baino sarriago be, arraioorrek!

Entzuten egozan guztiak barre-zantzoka eztandak egin behar ebezan.

Gau hatan, seguru be, Praiskuk ez ei eban hotzik izan bizkaraldean.

²²⁴ Esain: esan ein.

²²⁵ Gonerre: zarpail, arlote.

²²⁶ Purto: purrustoso?, purruti?

²²⁷ Joadi: joan hadi.

²²⁸ Denganino: demonino, demontre.

XII

TXIMISTARGI BARRIA

(JAZORIKOA)

Hemen irakurriko dozuena lehengo urte baten Durangon jazo zan.

Merkatu-eguna zan, eguraldia ilun-ilun egoan. Emakumetxu bat sartu zan Artekaleko saltoki edo denda baten, eta ikusirik tximistargi-makatz²²⁹, apur baten argiari begira-begira egon eta esan eutsan etxekoandreaki.

—Ene! Hau da argien ederra! Egundo honakorik²³⁰!

—Gustetan jatzu, Ana Mari?

—Bai. Polito dago kristalezko bere ontzitxo horretan. Zenbat kostetan da honako bat?

—Bost erreal.

—Bat erosiko neuke. Non saltzen ete dira...

—Neuk daukadaz hementxe. Gura dozu bat ala?

—Bai, iminidazu bat. Sekulako ikarea hartu behar daure²³¹ Kosanton gureak eta mutilek, gaur gauean argi dotore hau imini daidanean gure suetean.

²²⁹ Tximistargi-makatz: bonbilla.

²³⁰ Honako: holako; honelako.

²³¹ *E. j.* dabe.

Imini eban argi-makatzza polito-polito bere zimeratxuan²³² eta agur esanaz joan zan Ana Mari ona, lau urteko umeak baino gaiztotasun gehiago ez eukan emakumetxu zintzoa.

Hurrengo merkatu-eguna zanean, horra non agertzen dan bera Artekaleko denda haretan, eta badinotso etxeoandreari:

—Hara ba, lehengo egunean eroan neban argi-ontzitzua ez zan ona izan edo...

—Ez?

—Neu pozarren heldu nintzan etsera²³³, eta estuan nengoan gaua noz etorriko zan gure gizonok ikaratuta ixteko, eta esakerea dan lez, «nire poza, pozure joan zan». Imini neban argitxu hau eta, lehen beste ilun! Burla egin eusten sano gure gizonok, esaten eurela²³⁴ erretxinearen²³⁵ alderako ez dagoala argirik hondio-ko²³⁶ eta. Ene, ene!

—Fundiduta egon ete zan, ba? Ekarrri dozu bonbillea?

—Zera, argi egitekoa? Bai, hara...

Saltoki-andreak hartu eta imini eban beste makatzaren lekuan, berau kenduta, eta ederto argi egin eban.

—Ikusten dozu, Ana Mari, zein polito?

—Handia da, gero!

—Zelan imini zenduan, ba?

—Nik ba, hortxe dagoan lez, goiko kuartuko untze batetik abarka-kordelaz dingilizka²³⁷.

—Baina, Ana Mari, Jaungoikoak parkatu deidala: *letrizidaderik* ez badaukazue, honek ez deutsue balio!

²³² *J. t.* (zestellatxuan).

Zimera: otzara.

²³³ *E. j.* etxera.

²³⁴ *E. j.* ebela.

²³⁵ Erretxina: erretxinazko kandlea.

²³⁶ Hondioko: hondinoko.

²³⁷ Dingilizka: txintxilika, eskegita.

Hartu eutsan argi-makatza saloskari²³⁸ edo dendariak, eta emon eutsazan atzera bost errealak, eta inon diran atzalgundekak²³⁹ be egin eutsazan aditu erazoteko tximista barik, edo *letrizidade* barik, dendariak esaten eban lez, ez zala gauza argi egiteko etxera eroandako makatza.

Ez eban ezer ulertu, eta lehen bestean joan zan, edo lehen baino txartoago, buru barruan nahaste ilun bat eroialako.

²³⁸ Saloskari: saleroskari.

²³⁹ *J. t.* (esplikazinoak).

XII

GIZON ZUHURRAK ONDO ERABAGI (JAZORIKOA)

Gizon zuhurrik inon izan bada, Mañariko *Galtzada* deitzen jakon ostatuko jabea bazan bat.

Hemen edesiko²⁴⁰ doguna antxina jazo zan, burdinbideak asmau ziran aldia baino askozaz lehenago. Aldi haretan, Bizkaia-ren zati handi batek Araba eta Gaztelerrriagaz eukan saleroste, hartu-emon eta joan-etorri guztia. Mañaritik igaroten zan, eta horregaitik, hango ostatuan irabazpide ederrak izaten ziran, eurentan arradaka²⁴¹ lez dirua sartzen zala, ostatukoak bidaztiei abegi²⁴² ona egin, eta mahai ugaria eta ohe garbia emoten baetuseen batez be.

Orduko aldietan ez zan ezagutzen, gure Bizkaia honetan behintzat, txindetxe²⁴³ edo bankurik, eta bakotxak bere lanagaz edo aurreztu ahal izaten eban dirua, ezkutau egiten eban polito polito bere etxeko zirkilueta²⁴⁴: hemen zati bat, eta hor beste bat, eta han beste bat.

²⁴⁰ [Edesi: kontau].

²⁴¹ Arradaka: txorrotadaka.

²⁴² Abegi: harrera.

²⁴³ Txindetxe: banketxe.

²⁴⁴ Zirkilu: gordeleku.

Galtzadako ostatu-jabe harek be holantxe eukazan ezkutau-
ta urrezko diru pilotxuak.

Morroi bat eukan ostatuan; mutil gazte, bizkor eta zolia, lane-
an zindo-zindoa. Arabarra zan berau.

Igande arratsalde baten, herriko jaia zalako edo, *Galtzadako*
eta inguruko etxeetako biztanleak kale aldera ziran guztiak, osta-
taria izan ezik. Honek, bere burua bakar ikusi ebanean, asmau
eban diru pilotxu bat sartzea ezkutaleku²⁴⁵ baten. Sartu kortan,
sardeagaz eragin alde batera bazterreko sats piloari, eta lurrean
egoan harlau edo loza bat jaso, eta agertu eban ezkutalekua; zen-
batu²⁴⁶ ebazan ardura handiz han eukazan urrezko diruak, eta
euroi generaturik eroiazan barriak, itxi eban zuloa harlauagaz,
satsa lehen lez ipini eban barriro, eta alde egin eban kortatik
eskuei igurdika eta barre-barreka..., inork ikusi ez ebalakoan.

Baina ikusi eben ondo beste aldeko bazter iluneko aska gane-
tik begi adikor eta bizi-bizi batzuk. Arratsalde hatan, eguerdi-
ostetxuan, kortako mando eta beste abereei jatekoa askara bota
ondoren, arabar mutila bertan gelditu zan, buruko min pizka bat
ebala eta uste izanik, kale aldera joatea baino hobeto izango jak-
o la loalditxo bat egitea. Eta holantxe ba, korta-bazter ilunenean
askan bigungarritzat ira-besarkada bat ipinita, nasai-nasai, etxun
zan. Ugazabak ez eban uste ha etxean zanik, herriko zelaian dan-
tzan ebilela baino.

Handik egun bi edo hirura, morroiak esan eutsan ugazabari:

—Zeugaz hitz bat egin gura neuke.

—Esaik, ba.

—Etxera joateko gogoia dodala-ta, nire ordezeko bat zuzendu
beharko dozula.

—Hiru edo lau hilabete baino ez dok etorri hintzala-ta, zer-
gaitik hoa, ba? Nire zeresanik daukak ala? Gehiago irabazi gura

²⁴⁵ *J. t.* ezkutuleku.

²⁴⁶ *J. t.* (kontau).

dok ala? Hara, gertu naiagok heuk eskatzen deustaana emoteko, aspaldi baten ez joat euki heu lako mutilik eta.

—Ez, zeresanik ez dot. Ondo hartu izan nozue, eta irabazi, edonon irabazi neikean beste morroitzan. Baina, neure etxea beti gomutan daukat, neure ama alarguna eta anai-arrebak beti gogon dodaz eta...

—Tirok ba, tirok. Ondo damu joat ba, heuk alde egitea; ez dok heu leusintzearren²⁴⁷, baina ez jakiat heu lako beste bat idor ahal izango dodan.

Egun batzuk geroago joan zan bere herrira arabar mutila, urre-dirutan zati polita eroiala: ugazabak kortako ezkutalekuan euki ebana oso-osorik. Ezkutalekuaren jakitun egin zan egunetik hurrengoan, goiz-goizetik jagi eta ahal eban isilen ibilita, ostu eutsazan ugazabari han eukazanak. Honek, oster, ez eukan horrelako gogorapenik, eta batek badaki zenbat aldi igaroko zan ha zuloa barriro ikusi orduko.

Bere herrira heldu eta laster, mutilak errota edo bolu bat erosi eban, toki egokian egoana, eta harri barriak ipini eta beste tramankuluak barriztau, laba eder bat gehitu, eta etxe guztiari barri antz handia emonik, hasi zan ale²⁴⁸, urun eta ogi-saleroskuntzan²⁴⁹. Horrez ganera, erosi ebazan soloak eta oihanak²⁵⁰ be. Irabazte arazoetan garratz abiau zan.

Bere herrikideak hainbeste dirugaz mutila ikusirik ikaratu ziran; ba, lau hilabete aurrerago itsu bati soinua jo eragiteko txanpon baten jabe ez zan, eta ezin ulertu eben zelan atondu zan hain aldi laburrean hainbeste diru egiteko. Hasi ziran marmar, eta gehienak txarrera jota, ohi dan lez, ustea egin eben lapurretan-edo beregandu ez ete ebazan diruok. Bat edo batek izparra bidaldu

²⁴⁷ [Leusindu: *halagar*].

²⁴⁸ *J. t.* (garaun).

²⁴⁹ [Saleroskuntza: *comercio*].

²⁵⁰ [Oihan: baso, zugazti].

eutsan, mandazainen bitartez, *Galtzadako* ostatudunari, lehengo bere morroi mutilak diru arazo handiak erabilzala, eta mutil zindo eta ona irudi arren, ezin ulertu ebela hainbesteren jabe egitea morroitzean eta hain aldi txikian, eta badaezpadan jakitun ipinten ebela.

Izpar hau hartu ebanean, «arraio bat!» jaurtinda, urduri-urduri jarri zan ostataria. Hurrengo bakarraldian arakatu ebazan bere ezkutaleku guztiak, eta kortakoa hutsik aurkitu eban. «Eder-rak emon jeustazak harexek! —egiten eban bere artean ostatari zuhurrak—. Zelan igarri ete joan hor dirua egoala? Hauxe dok ona! Eta orain, zer egin? Bere atzean hasten banaz epaikarien aurrean, horra beste buruhauste bat orain daukadanaren ganera, eta ezer egiteko beste zulo bat hutsitu beharko joat, eta berak erodan dauen dirutza hori ez dok izango ez beretzat, ez niretzat: idazkizonak²⁵¹ dana jango joek. Zer egin? Ardura handiz eta hotz-hotzean oldoztu²⁵² behar arazo hau...».

Egun batzuetan gogoan erabili eban bere morroiaren egitadea, lorik be asko gehiago egin ez ebala, eta jan eta edan egiteko be lehia barik. Gau baten erabagia hartu behar izan eban; horraitino ba, goiz-goizetik jagi, ondo gosaldu, mando bat gertau, eta beronen ganean arpegi argiagaz, trapa-trapa, zuzendu zan Arabarantz Urkiolatik zehar.

Heldu zan morroiaren herri eta etxera, eta honi, ikusi orduko, esan eutsan:

—A, mutil, hitz egin behar joagu biok eta bakarrean. Etxean gela egokirik badaukak horretarako, etxean, eta ez baderitxak, beste edozein lekutan, basoan-edo.

—Hementxe, errota osteko gelan sartu geintekoz, inork entzungo deuskun bildur barik.

²⁵¹ *J. t.* (idaz-gizonak).

[Idaz-gizonak: luma-gizonak].

²⁵² Oldoztu: pentsau, gogoan erabili.

Joan ziran hara, atea ondo itxi, eta alkarren aurrez aurre jesarri ziranean:

—Hik niri lapurretan egin deustak —esan eutsan ostatariak mutilari.

—Bai, ukatu zertarako.

—Zelan eta zergaitik izan dok?

—Hara ba, ugazaba, neuk gura ez nebala behin ikusi zindudazan kortako ezkutalekua agertzen eta halan jakin neban diru pilo polita zeunkala bertan. Haxe hartzea neure eskuan neukalata ziltzan²⁵³ jausi nintzan, ostu neutsuzan urre-diruak. Badakit hoben²⁵⁴ egin dodala; parkatu eidazu hobena, eta hartu eizuz diru horregaz erosiriko etxe eta lurrak eta enparadu geratu jatan dirua. Nik ustea baneban inoz ordaintzeko ostu dodana, arazoak ondo bajoiatazan.

—Hara, mutil, ondo arduraz harturiko oldozpenagaz²⁵⁵ etorri nok heugana. Nik hi salatu eta espetxera²⁵⁶ bildaltzeaz ez joat ezer irabazten. Hori lortu ahal izateko ba, uste joat ostu deustaan diru guztia, edo gehiago beharbada, eralgi²⁵⁷ beharko dodala. Hi mutil azkarra haz, behargina eta zindoa, nire diruakaz polito abiau haz irabazte arazoetan... Ba, hauxe dinoat: egin daigun idazkagiri²⁵⁸ bat, nik hiri palagau²⁵⁹ deudazala diruok ehuneko biaren saripean eta hi lotzen hazala diru hori osoan nire eskuetara bihurtzeko hamar urteko epe barruan; eta lapurreta horren barri ez deigula jakin Jaungoikoak, heuk, eta neuk baino. Zer deritxak?

²⁵³ [Ziltza: *tentación*].

²⁵⁴ [Hoben: *pekatu*].

²⁵⁵ [Oldozpen: *pentsamentu*].

²⁵⁶ [Espetxe: *kartzela*].

²⁵⁷ Eralgi: *gastau*.

²⁵⁸ [Idazkagiri: *escritura*].

²⁵⁹ [Palagau: *prestau*].

—Zer deritxadan dinostazu? Gertu nagoala hori egiteko, eta zeu zarala ludian danik gizonik onena!

—Horretara ezkerro, mando bat hartu eik, eta goazen oraintxe bertan Gasteizera, zinaltz-idazkariak²⁶⁰ geure egiunea²⁶¹ atondu dagian.

Halantxe egin eben. Hain azkarra izanaz ganera, mutilak bere irabazte arazoetan zori ederra izan eban, eta diruaren saria eta dirua berbera osorik ordaindu eta bihurtu eutsazan bere lehengo ugazabari, bera aberastuta edo ondotxu, behintzat, geratu zala. Bere herrian ez eban inork jakin mutilaren lapurretea.

Ea, ostatari ha gizon zuhurra eta zindoa ez bazan!

Bera gizon zahar-zaharra izatera heldu zan, eta niri edeski²⁶² hau esan eustanak berari entzun ei eutsan, azaldu barik, horraitino, nor eta nondarra izan zan bere morroia; baita be esaten ei eban agure zoli harek, morroi izana eta biak beti adiskide handiak izan zirala.

²⁶⁰ [Zinaltz-idazkari: *notario*].

²⁶¹ [Egiune: *contrato*].

²⁶² [Edeski: *relato*].

XIV

BALTZ EUSKALDUNA

(JAZORIKOA)

Orain hirurogeta hamar urte inguru dala, Hego Amerikatik Afrikako itsasbazterrerantz etorren hiru mastadun ontzi ederra; oihalduna, aldi haretan itsaso zabaletan ibiltzen ziran gehienak lakoa.

Bilbokoa zan, eta bere barruko guztiak, ontzi-burutik²⁶³ hasi eta azkenengo txoraino²⁶⁴, bizkaitar euskaldunak ziran, mundakar, bermeotar, elantxobetar, lekeitiar, ondarrutar, algortar, eta abar.

Sierra Leona izena dauen Afrikako alde horretan, ekatx²⁶⁵ hasarre eta indartsu batek harrapau ebazan. Egun eta gau osoan haize eta itsaso gogorrakaz burruka itzela erabili eben euskaldunok; baina, eginahalak egin arren, itsasbazterreko hondartza zabal batera jo eban ontziak, haizeak eta uginak²⁶⁶ bultzaka eroanda, eta bertan josi jaken, karrakada handi bat eginda birrin-

²⁶³ *J. t.* onzpuru.

[Onzpuru: kapitan].

²⁶⁴ Txo: itsasontzi-mutil.

²⁶⁵ *J.t.* ekaitz.

²⁶⁶ [Ugin: olatu].

gatzen²⁶⁷ hasi zala. Ez eben izan astirik txanela bi uretara eratsi eta eurentan arin-arin sartzeko baino, uginen zartadak²⁶⁸ ontziori berehala hausi eta purrukatu eben eta.

Eguna zabalduta, laster jazo jaken gizajo hareei ontzia galtzea eta han ibili ziran txanelokaz barregarri goizik gehiengan, hondartzak iparraldera eukan ukondo bat harrapau ezinik, itsasoak noz iruntsiko ebazan bildurrez. Ibili eta ibili, horraitino, eguerdi inguruan lortu eben hondartzaren ukondoa igarotea eta aurkitu ziran galzoritik²⁶⁹ aske, leku haretan ba, itsasoak ez eban hain gogor joten, aurrerik hara ez etorrelako. Urten ziran lehorrera aldean eroien jantzia baino besterik atara ez ebela.

Itsasoari iges egin eutsien, baina beste arerio txar bat agertu jaken: gosea. Hondartza haren inguru guztietako lurrak elkor-elkorak²⁷⁰ ziran; ez zan agiri han ez biztanlerik, ez abererik, ez zugatzik, ez ezer, lur igarra baino. Onak egozan gizajoak! Ia egun bi baziran ezer sartu ez zala euren urdailetara eta..., ha lako maurtuan²⁷¹ euren buruak ikusi!

Gaua bertan egin eben aharrausi eta aharrausi, eta biharamonean, itsasoa baretu zalako, ontzi-buruaren agindupean txaneletan sartu eta abiau ziran iparralderantz itsasbazerretik. Arratsalde erdian ohartu²⁷² eben ibai txiki baten iztaho²⁷³, eta bertara heldurik, ibaia gora hartu eben bidea, norbait aurkituko eben itxarokuneaz, edo behintzat, nonon zer jan agertuko jakelakoan. Honetan, heldu ziran ibaia beste bitan urkultzen zan toki batera eta hantxe egozala asmau ezinik zeinetatik joan, afrikarren txane-

²⁶⁷ Biringatu: birrindu, zatitu.

²⁶⁸ Zartada: zarrastada, kolpe.

²⁶⁹ [Galzori: arrisku].

²⁷⁰ Elkor: lehor.

²⁷¹ [Maurtu: *desierto*].

²⁷² [Ohartu: erreparau].

²⁷³ Iztaho: ibai-aho.

[Iztaho: ibaiak itsasora daukan aho edo desenbokadurea].

la antzeko *piragua* deitzen jakonetariko bat ikusi eben eurak egozan alderantz etorrela ibai batetik behera, gizon baltz pilotxu bat ganean ekarrela.

Honeek hurreratu ziranean, gure euskaldunok ohartu eben *piraguan* igali²⁷⁴ asko ekarrela, eta euren goseak eraginda hasi jakezan baltzai didarka eta kinuka gelditu eitezala adierazoten. Gelditu ziran; bitzuak alkarri bizi-bizi begira jarri ziran. Euskaldunen ontzi-buruak kinuka adierazo gura eutsen emoteko igalietarik zerbait, gosez ahulduta aurkitzen zirala-ta; baltzok be kinuka erantzun eben, baina ez jaken ondo ulertzen esan gura ebena, behintzat ezer emoteko antzik ez erakusen²⁷⁵. Honan²⁷⁶, alkarri kinuka inarduela²⁷⁷ ontzi-burua eta baltzok, euskaldun batek esan eban gogor:

—Zertan gabilz honetan astia alperrik galtzen! Heldu horreei eta jaurti uretara, eta kendu hor dakarrezan jateko horreek!

—Geldi, geldi! Geu be gizonak gara, gero! —erantzun eban euskeraz hareetariko baltz batek.

Harrituta, kokolotuta lez geratu ziran bizkaitarrak. Ontzi-buruak gero esan eutsan euskaldun baltz hari:

—Ez eizue horren esana aintzat hartu. Onean eskatzen deutsuegu²⁷⁸ jatekoa, ia zutunik egoteko gosearen gosez gauza ez garala gagoz, bada eta!

—Neure anaiak lez maite dodaz nik euskaldunak —esan eban baltzak—, eta behar dozuen guztia emongo jatzue. Hartu eta jai-zue²⁷⁹, gizajook.

Eta *piraguan* ekarrezan igalietarik emon eutseen euskaldunei guraina²⁸⁰, eta gero:

274 [Igali: *fruta*].

275 Erakusen: erakusten eben.

276 Honan: holan.

277 *E. j.* iharduela.

278 *J. t.* deskatsuegu.

279 Jaizue: jan eizue.

280 Guraina: gura adina.

—Orain goazen nire herritxora, eta han aurkituko zarie zeuen etxean lez.

Ibaitarteko zorrotza igaro, eta beste ibaiadarretik gora joan ziran danak baltzen baserrira. Han egon ziran euskaldunak ederto hainbat egunean. Biztanle guztiak abegi gozo-gozoa egiten eutseen, ikusirik baltz euskaldunaren adiskideak zirala; honek, barriz, bere bihotza be emongo eutsen²⁸¹, behar izan balebe: bere gogo guztia zan euskaldunak poz-pozik eukitea.

Baltz euskaldun zindo harek, ganera, itsasaldeko goiune baten ipini eban zaintzailea, ontzirik igaroten ikusten baeban iza-ra handi bategaz ikur egion²⁸², gelditzeko.

Eta holantxe, nozbait ontzi bat gelditu erazo²⁸³ eben²⁸⁴, eta bertan etorri ziran Europara euskaldunok.

* * *

Orain, irakurleak itanduko dau Afrikako baltz harek euskeraz hitz egiten zelan ekian.

Edeski²⁸⁵ polita da. Baltz euskaldun ha ume txiki-txikia zan aldian, gizon zuri bihotz gogordunak joaten ziran Afrikara, eta baltzok harrapetan ebezan abereak balitzaz²⁸⁶ lez, eta gero Amerikara eroan han saltzeko. Gizonak gizona horretara erabili! Jesukristoren irakatsiak ekiezan gizonak lan deunga hori egin edo laketu²⁸⁷! Guzurre dirudi, baina halantxe jazoten zan. Lotsagarria Europako laterrientzat²⁸⁸ hori!

²⁸¹ *J. t.* leuskioen.

²⁸² [Ikur egin: seinalea egin].

²⁸³ *E. j.* geldiarazo, geldituazo.

²⁸⁴ *E. j.* ontzi bati gelditu erazo eutsien.

²⁸⁵ [Edeski: *relato*].

²⁸⁶ *E. j.* balira.

²⁸⁷ Laketu: galarazo ez, baimena emon, itxi.

²⁸⁸ Laterri: estadu.

Horreetariko baltz-harrapaketa baten gure baltzau be hartu eta eroan eben Habanara, hamar urte inguru ebazala bakarrik. Uri ospetsu haretan mutiko hau erosi eban euskaldun batek eta eroan eban bere etxera. Euskaldun hori eukiduna²⁹⁰ zan, lugintza handitxuaren jabea. Ingegozo²⁹¹-arlotxo handiak ebazan, eta bai olea be, gozarri edo azukerea egiteko. Ola ondoan eukan bera bizi izateko etxe ederra, bere lurren erdian, eta bertan eukazan emazte eta seme-alabak. Eurok, eta etxeko otseinak, danak ziran euskaldunak. Etxe haretan ez zan beste elerik²⁹² erabilten euskerea baino.

Euskaldun zaldun harek bere idazkelea²⁹³ garbirik eta eraz eukiteko ardurea emon eutsan mutiko baltzari. Hau guztizko esangina, bizkorra, apala eta bihotz onduna zan eta bere ugazabak eta bai etxeko beste guztiak maitasun handia izan eutsien, eta euren arteko bat lez, etxeko lez, hartzen eben. Mutiko baltz hau laguntzat euki eben ugazabaren mutikoak eta alkarregaz hamai-ka olgeta egin eben hango bazterretan.

Eta hantxe ikasi eban baltzak euskerea, hantxe bizi izan zan bere sendian lez hogeta bost urtera arte.

Orduan, bere ugazabak erabagi eban bere sendi guztiagaz Euskadira bizi izaten etortea, eta bere morroi baltzari askatasuna emon eutsan lagien aurrean eta, honez ganera, dirutza-mutur polita be bai eskura.

Mutilak bere burua aske eta dirudun ikusirik, bere aberrira joateko asmoa hartu eban. Euskaldunen etxean ondo eta pozik egon zan arren, beti izaten eban bere guraso, anai-arreba, eta bere jaioterriaren gomuta bizi-bizia. Eta barrero harrapau eta salduko

²⁸⁹ Eukidun: dirudun, aberats.

²⁹⁰ [Ingegozo: *caña de azúcar*].

²⁹¹ Ele: berba, hizkuntza.

²⁹² [Idazkela: *escritorio*].

eben bildurrik ez eban, ordurako ba, Ingelandako²⁹³ gudontziak²⁹⁴ ibili ebiltzan Afrikako itsasoetan, baltz-harrapatzaileak harrapetan, eta samatik eskegiten, eta galerazoten honantxe gizonak gizona aberea lez saltzea.

Ontzi galduko itsastarrei baltzak berberak edesi²⁹⁵ eutsezan jazokune honeek. Esan eutsen, eurei on eginagaz ordaindu gura ebalá zelanbait beste euskaldun batzuk berari egin eutsien ona.

Hor idatzi doguna, baltz euskaldun horrezaz²⁹⁶ esan doguna, jazorikoa da eta ez inork asmaurikoa. Itsasbazter hatan ontzia galdu ebenak aberrira bihurtu ziranean edestu edo kontau eben han jazo jaken gauza harrigarria baltz haregaz. Eta euretariko bati entzun eutsanak niri edestu eustan, eta nik zuei, irakurleak.

Onegintzeak²⁹⁷ beti dauka bere ondorena, gaitzegintzeak²⁹⁸ lez. Zaldun euskotar zintzo harek eta bere sendikoak baltz gazteari egin eutsien ona, ibili eta ibili, euskaldunakana barriri etorri zan.

Euskerea, bere abenda²⁹⁹-elea, etxean beti erabiltzetik sortu zan euskaldunak geroago aurkitzea laguntza ederra Afrikako mairtu³⁰⁰ baten. Holantxe, irakurlea, gorau eizuz beti zeure aberrí-elea, aberri-ekandu onak, eta aberri-izakera osoa, eta egon eskier³⁰¹, zeure oinordeko edo aberkideren³⁰² bat edo bati on handia etorriko jako hortik.

²⁹³ Ingelanda: Ingalaterra.

²⁹⁴ [Gudontzi: gerrako barku].

²⁹⁵ [Edesi: kontau].

²⁹⁶ *J. t.* horretzaz.

²⁹⁷ Onegintza: ondo egitea, mesede egitea.

²⁹⁸ Gaitzegintza: txarto egitea, kalte egitea.

²⁹⁹ Abenda: erraza.

³⁰⁰ [Mairtu: *desierto*].

³⁰¹ [Eskier: seguru].

³⁰² Aberkide: herrikide.

Norbere oinordekoentzako edo norbere herriarentzako onegintzak bildu eta ixtea onuratsugoa³⁰³ da onegintza bako diruak bildu eta ixtea baino, lehenengo begiradan irudi ez arren halan.

303 [Onura: *provecho*].

XV JATORRIA

Mirutorre deritxan etxeak bere ateburuan ikurdi edo armarría dauka, nahikoa dotorea. Bertan agiri da miru bat hegaz, oilo edo txita pilo baten ganean.

Torretxe honen jabeak armarrí hori maite-maiterik dauka; berau ba, asaba ospetsu batena da, Don Iñigo Gómez de Orroeta y Sánchez de Munguru zanari Gaztelako errege batek emonda, berak egindako gauza asko eta handien saritzat.

Etxeko areto edo saloiko burualdean agiri da jatorri-zugatza: enborrean³⁰⁴, Don Iñigoren izena eta bere hiru semeenak, lehenengo hiru adarretan; seme nagusiaren adarretik urteten dira beste lau adar eta eurretan, bere lau semeen izenak. Eta honetara, adarrík adar (edo belaunik belaun, lehenago esaten zan lez), beti seme nagusietatik, Don Kazinto gaurko etxagunaganaino; beronen izena eta bere anaienak dagoz jatorri-zugatzaren azkenengo abarrean.

Jatorri kontu hau aitatu ezkerro, harro-harrorik hasten da Don Kazinto Don Iñigoren gorralpenak esaten: bere aldian gizon handienetarikoa izan zala, Espainia guztian ezagutua, baita European

³⁰⁴ [Enbor: *tronco de árbol*].

be... Ha lako gizonik! Eta goralpenen azkena izaten da Don Kazintok esatea bera dala harexen jatorrikoa, artez-artez, seme nagusirik seme nagusira; eta edonor eroaten dau etxera bere jatorri-zugatza ikusi dagian.

Hasi jakon behin horretantxe *Etvetvikiko* mutilari. Herrian alogerean ibiltzen zan gizon apal baten semea da. Txikitan alde egin eban herritik urrinetara bizimoduaren bila, eta zuhurra eta behargina izanik, baita be zori onak argi eginik, bihurtu da herri-
ra eta etxera diru moltso polita aldean dauela; eta askok uste ez arren, diruak baino gehiago balio dauenagaz: adimen landuagaz, jakitun eginda, asko eta asko irakurri eta ikusita.

Honexen aurrean behin hasi zan ba, Don Kazinto bere jatorria goralduten, eta *Etvetvikiko* mutilak dirautso:

—Zenbat maila dagoz haregandik zueganaino?

—Hamabi maila. Hamaseigarren gizaldiaren³⁰⁵ hasieran bizi izan zan.

—Zeuk ez dozu inoz oldoztu izango zenbat asaba, edo zenbat aitita-amama izan zenduzan Don Iñigo horren aldian.

—Ez, ez dot inoz pentsau horretan.

—Neuk oraintxe esango deusut.

Ataraten dauz sakeletik ingi edo papela eta lapitza, eta bertan operazino txiki bat eginda, dino:

—Lau mila eta larogeta hamasei (4.096) aitita-amama. Erdiak aititak, 2.048, eta beste erdiak, amamak.

—Horrenbeste? Ezin izan leiteke!

—Bai, Don Kazinto. Lehenengo mailan bi daukazuz, aita eta ama, ez ba? Bigarren mailan lau, aitaren aita eta ama, eta amaren aita eta ama, ez ba? Hirugarren mailan zortzi, bigarreneko lauen aita-amak. Laugarren mailan hamasei, eta zoaz aurrerantz honetara eta ikusiko dozu hamabigarren mailan 4.096 asaba dirala.

³⁰⁵ *J. t.* gizaldi hamaseigarren.

—Halantxe da. Nork uste holakorik?

—Horra ba, zure asaba ospetsu Don Iñigo de Orroeta hori lau mila eta larogeta hamaseitik, bat izan zan. Tira, emon daigun Don Iñigoren andrea be ona izan zala... , eta beste lau mila eta larogeta hamalauak, zelakoak ziran? Ez ete egoan hainbesteren artean deunga, edo lapur, edo sorgin, edo honakorik?

—Begira, gero, zer dinozun!

—Ez zirala danak onak, ez gitxiagorik be, ziur esan daikegu. Eta ez doguz aintzat hartu hamabigarren mailakoak baino. Ordu-tik honako maila guztietakoak, zeure gurasoetaraino, batuko bagenduz, 8.190 asaba izango zeunkez, hamabigarren mailaraino. Hainbesteren artean, gaiztoak asko izan behar! Ez ete eben urkatu bat edo bat bere egintza madarikatuakaitik?

—Baina ez dakigu, bestearena dakigun lez.

—Jakintzat, Don Kazinto. Urkaturikoen egintzak eta gomutea ez dira jagoten behin be sendi edo familietan.

—Eta ekin urkatuakaz!

—Ez zaitetz hasarratu. Urkatuak dinot gaiztoak esatearren. Ondo da, Don Kazinto, norbere asaba handi eta ospetsu baten gomutea zaindutea, zuk Don Iñigorena lez. Baina ez harrotu horregaitik, milaka eta milaka jente ezezagunen jatorria daukagu bakotxak eta. Jakizu zelakoak izan ziran hareek! Jatorri-zugatza bestetara egingo balitz, norberagandik hasi eta atzerantza, sustarrak agirian ipini, ikaratuta geldituko gintzatekez zelako jentetxoen jatorria dogun ikusita. Honetara, sustarrrik sustar urrintxo jatsi ezkerero, uste dot handikiak eta txikikiak ez geunkela alde handirik izango; harenbaten danok.

—Zuk *Mirutorre* eta *Etvetxiki* bardindu egin gura dozuz.

—Bardindu? Alderik badago *Mirutorre*rena ez da behintzat. *Mirutorre*koak bizi dira inork itxi deutesnaz, ez eurak egindako lanaz. *Etvetxiki*koak, ostera, eurak ondo irabazirikoaz bizi dira. *Mirutorre*koak, ilargia lez, inork emondako argiagaitik agiri dira ilunean; eurak argirik ez dabe, hilak edo ilunak dira. *Etvetxiki*koak, ostera, agiri dira edonon; ez inork emondako argiz, euren argiz

baino, eguzkia eta izarrak lez. Beraz, ez etorri nigana destainaz. Zu, jatorriduna eta ni, jatorribakoa gara eta, horraitik, edozein gizontasun bideetan zeugaz neurtzeko gertu nago, nahiz adimene-ko nahiz gorputzeko arazoetan; eta orain arte daukaguzan egita-dak zeinek gehiago eta hobeak nahinoz³⁰⁶ jokatuko deusut.

Don Kazintok alde egin eban purrustadaka eta bere etxeran-tza joan zan, hasarrez inoala:

—Gaur egunean ezeri be ez deusie hartzen errespetorik; inoz ezer izan ez diranak geure parera heldu gura dabe, dana dago itxulastuta. Ai, lehenagoko denporak! Non ete zarie?

Etzetxikik esan eutsan barreka urrineko aldetik:

—Horreek lehenagoko aldiok, Don Kazinto, joan ziran seku-lako!

³⁰⁶ Nahinoz: noiznahi, edonoiz.

XVI
ALKAR AITU HOBE DA
ALKAR HIL BAINO
(JAZORIKOA)

Naparroako herri txikitxu baten da, 1876garren urtean, Karlisten oraintsuengo guda³⁰⁷ azkenean.

Inurriak lez, ugari dabilz bertan gudamutil³⁰⁸ karlistak, aurreragoko gauean etorrita, Frantzia aldeko Euskadira igaroteko ustez.

Euretarik ia guztiak gaztelarrak dira; euskotarrik, banakaren bat izan ezik, nekez aurkitu lei han.

Diru askorik ez dago gudamutil hareen sakeletan baina, horraitik, jokoan daragoie alde guztietan. Eleizearen ondoko zugatz handiaren gerizpean agiri da aldra hazitxo bat; bertan dabilz gogor jokoan, txapeta-jokoan.

Han dira ainenak³⁰⁹, didarrak, eztabaida handiak, begirakune itzelak, eskua baionetara eroateak...! Otsoak txapetan jokatu ahal balebe, ez leukie hainbeste urrumada eta hagin-erakuste egingo.

³⁰⁷ [Guda: *guerra*].

³⁰⁸ [Gudamutil: *soldádo*].

³⁰⁹ [Ainen: *maldición*].

Baina zemaikun³¹⁰ asko izan arren ez dira eskuetara sartzen, bertan dagoalako euren *oilarra*, andaluztar sarjentu bat, mutil morrosko handia, baltza, begirakune itzalduna, belearen lumea lakoxe patilla baltzak daukazala arpegi-alboetan.

Honexeri deustie bildur, berau egin da ugazaba, beronek epaia emoten dau eztabaidetan; bere nagusitasunaren ikurkia³¹¹ han dauka lurrean sartuta, arra bete eta erdiko aizto³¹² zorrotza, birrist³¹³ argi egiten dauena. Jokatu gura dauenak, beroni emon behar deutso honenbesteko bat.

Joko honi begira dagoz euskaldun bi, bata markinarra eta bestea Durango aldekoa.

Ikusirik markinarrak sarjentu *oilar* harek dirua kentzen deustela jokalariei, berak jokatu barik, itanduten deutso bere lagunari ea zergaitik dan ha.

—Hori dok —darantzutso³¹⁴ lagunak—, *baratoa kobretea*; halan esaten joek eurok. Inork emon gura ez badeutso, berorregaz bizia jokatu behar jok aitzokadaka. Berori dok itxuraz errimeena horretan, bere bildur dozak, inor ez dok azartzen, eta isil-isilik egiten joek bere esana. Inork gura baleu hori *oilartzatik* kendu, beste aizto bat sartuko lieukek berearen ondoan, eta holantxe adierazoko lieuskiok, narrua jokatu gura dauela eta bere nagusitasuna kendu gura deustala.

—Aiztorik badok hor? —esan eban markinarrak.

—Ez jaukat, baina eskatu neiok neure ezagun bati. Zer ba? Horretan sartzeko ustea daukak ala?

—Bai mutil! Hementxe gaiabiltzak txanpon barik, barruak huts-hutsik ia hiru egun honeetan, eta hortxe ikusten joat gosea hilteko bide erraza.

³¹⁰ *J. t.* (amenazu).

³¹¹ *J. t.* (seinalea).

³¹² *J. t.* (*cuchillo*).

³¹³ Birrist: brist, dir-dir (onomatopeia).

³¹⁴ Darantzutso: erantzuten deutso.

—Bizia galtzeko bide erraza be izan leitekek.

—Dana dala, ekarridak³¹⁵ aiztoa eta ikusiko joagu!

Zuzendu dabe nondik edo handik aizto eder bat; hartu dau markinarrak, eta sartu beste aiztoaren ondoan. Behingo baten isildu dira guztiak, euli baten burrundadea entzun leike. Markinar mutilari begira-begira dagoz ikaraturik, han zerk jazo behar dauen; sarjentu andaluztarra harrituta lez geratzen da unetxu baten eta berehala, arpegi eta begiak ikaragarriro jarririk, hasten da didarka:

—*Corro, corrol! Mardita zea! Oigasté comparito, oté zabe bien que é lo que ezo zenefica?*

—Barriketa gitxi jo niri! —esan dau markinarrak bere aiztoa lurretik hartu eta bestearen aurrean jarririk edozertarako gertu.

—*Oté? No jabla en cristiano? Güeno! Vamoj a vé zi noj enten-demo... Zu jakin..., hori..., zer?*

—Bai, bajakiat; nahi badok hementxe, edo nahi doan lekuan...

Andaluztarrak igarri dau haregaz *hordago* jokatu behar dala, hil edo erail egin behar dala, beste biderik ez dagoala; haren begietan agertzen dan gogo sendoa ez dagoala atzeratzerik. Orduan, didar eta beso-erabilte eta aiko-maiko handiak eginik, zabaldu dau asko gudamutilen arteko hutsunea eta beronen erdi-erdian geratzen dira *oilar* biak. Baina aitzokadaka narruak zulatu beharrean, txutxu-putxu³¹⁶ hitz egiten deutso andaluztarrak markinarrari, honek baietz dinoala buru eta guzti, eta gero:

—*Vá a zegí er juego..., ezte cabayero y menda cobramoj er barato..., er que no eté conforme que lo iga, y ze le dará lo zuyo.*

Andaluztarrak isil-misil³¹⁷ esan deutsana markinarrari da, alkar hiltan ibili barik, *baratoa* erdi bana hartzea hobeto ez ete deritxan eta besteak, «baietz, ba».

³¹⁵ Ekarridak: ekarri eidak.

³¹⁶ Txutxu-putxu: marmar, txutxu-mutxu, autu-mautu.

³¹⁷ Isil-misil: isilean, inork ez dakiala.

Honantxe bildu eben hainbat txanpon euskaldun mutil biak. Herri bertatik bihurtu ziran euren etxeetara, eta biderako nahikoa euki eben. Berrizen alkarri agur egin eutsiengan, askari³¹⁸ on bat eginda; hondino be apurren batzuk banakatu ebezan.

³¹⁸ *J. t. (merienda).*

XVII

HOR DOZU OSPEA ETA BETOZ DIRUAK!

(JAZORIKOA)

Edonork daki, buru pitin baten jabe bada behintzat, ospe onak uste dan baino diru gehiago balio izaten dauela. Ospearen bila ikusten doguz dabiltzala gizonak euren ahalegin guztian, eta ospe hori diruaz erosi ahal badagie, sarri jazoten dan lez, bape zalantza barik emongo dabe dirua, eta ugari, ospearen ordeztu.

Arau³¹⁹ honek, horraitino, hauste bat izan eban, nik orain edestuko deusuedan jazoeran. Bertan ikusiko dozue ospearen ordeztu dirua hartu zala, eta pozik hartu be, gero!

Karlisten Lehenengo Gudatea³²⁰ da. Naparroako herritxu baten, goizeko hamaikak inguruan, karlisten Durangoko batailoia sartzen da. Bada herrian ugari usubiloa³²¹ eta zaratea: mutikoteri guztia batailoitari bidera urten jako, eta bere aurrean dator urduri; herrian, ate eta leihoak beterik, emakume eta gizonak begira dagoz poz-pozik; txakurrak, etxe-barruetara arinetan sartuta, bertatik ahausika dabilz garratz.

³¹⁹ [Arau: *regla*].

³²⁰ [Gudatea: *gerratea*].

³²¹ Usubilo: *zurumuru*.

Sartu dira ba, Bizkai mutilok txairo eta lerdin; gelditu dira plazan, beronen lau aldeak euren erreskadakaz³²² beteten dabezala eta bertan, korneta-hotsera, lerroak³²³ hausi, eta sakabanututen dira herrian. Herriko nagusiak banakatu deutsezan okela, ogi eta ardaoaz bazkaria atondu dabe, baita iruntsi be egundoko arinen.

Pelota-leku polita dago herrian, eta eguerdi ostean hasi dira gudamutilak bertan batzen. Han dabilz eurak euretara pelotan. Nahastau dira eurakaz herriko gizon batzuk be. Honeek, ikusirik gudamutil hareen artean pelotarako zaletasuna badala, esan deutsee herriko abadea dala eskuz pelotaririk bikainena, ez zala agertu hondino hari irabazi deustanik.

Hau entzunda hasi dira mutilok euren artean esaten ez ete leion ba, jokatu abade hareri, badagozala mutilak han ederto jokatzen ekienak, ipini egin behar jakola partidua..., eta honan. Adierazo deutsee ba, herriko gizon hareei, abadeari nork jokatu eta nork irabazi badagoala, eta gura izan ezkerro, eurak gertu dagozala.

Herrikoak ezin dabe sinestu hori, eta joan dira abadeagana; etorri da berau be pelota-lekura eta laster asmau dabe partidua, honantxe: abadea alde batetik eta Durangoko mutil bat bestetik, eskuz, biak bardinean, hogeta lau tantura.

Partidua ikustera batzartu dira bertan herriko gizonik gehienak eta ia batailoi osoa. Abadeak esan deutse gudamutilai zenbat-nahi diru, bi bati jokatuko deustela; eta honeek erantzun dabe, aldean daroiezan diru apur guztiak batu eta jokatuko dabezala. Hauxe egin eben: gudamutil bik batu eben euren lagunen diru guztia: batak, zorrotxu baten harturik eta besteak, bakotxarena zenbat dan ingi edo papel baten ezarririk. Hamaseiko bat izan da batu dana. Abadeak bere aldez jokatu dauz hamaseiko bi.

³²² Erreskada: ilara, lerro.

³²³ [Lerro: *línea*].

Pelotakea³²⁴ hasten da. Biak dira onak. Abadeak indar gehiago dau, bizi-bizi jaurtiten dau pelotea, batez be eroso hartzen dauenean, kea ataraten deutso. Bere besagain-joteak zelan txalotzen dabezan bere herritarrak! «*Vaya, qué bracico!*» dinoe, erdal-dunak dira ba, herri haretan.

Durangarra azeriagoa da. Honek egiten dauena da eutsi eta eutsi, ahalik gitxien indarrak erabili, geroko gorde bere indarrak eta bere trebetasun edo abilidadea, bere aurkaria nekatu.

Abadea heldu da hamasei tantura, eta mutila dago sei tantuan hondino. Honi bere lagunak dinotsie:

—A, mutil, zer darabilk? Holan uste dok irabaztea?

Eta berak darantzu³²⁵:

—Erabiliko joat.

Hasten da mutila guztirajokoa egiten, eta indartsu: horma biak, zehar-pelotak, itxiak, luzeak, horma hurreratuak..., joko ederra, eta beti pelotea leku txarrean ipini besteari! Alditxu bat oso neketsua darabile biak eta jesarten dira puska baten arnasa apur bat hartzeko, abadeak 18 tantu dauzala eta mutilak, 15 eta ataria. Igarten hasi da abadea mutila bera baino gehiago dala edo, behintzat, irabaziko ete deutsan bildur handia sartzen jako; eta bestela baitakoan³²⁶, badinotso mutilari, ez leukela partidua galdu gura ezertara be, herrian eta inguruetan daukan pelotari ospea ez galtzearren, eta beraz, irabazten ixten badeutso, beste hama-seiko bi, jokatuen ganera, emongo dauzala, guztira, lau hamaseiko. Mutilak darantzutso bere aldetik gertu dagoala horretarako, baina lagunak jakitun ipini behar zituala.

Isil-misilka ibili barik, durangarrak esaten deutse didarrez bere lagunei:

³²⁴ Pelotaka: pelota partidu.

³²⁵ Darantzu: erantzuten dau.

³²⁶ Bestela baitakoan: ez jakinarena eginaz, disimulan.

—Mutilak, honek hauxe eta hauxe jinok. Zer deritxazue? Galdu egingo joat partidua ala zer?

Danak gogo batez³²⁷ erantzun eben:

—Galduik³²⁸! Galduik! Guk ospea zertarako behar joagu? Lotuiozak³²⁹ hamaseikook!

Ituntze edo alkar aitze hau, jakina, euskeraz izan da, eta herrikoak ez dabe ezer ulertu, lehen esan dogun lez napar erdal-dunak diralako hangoak.

Durangar mutilak adierazoten deutso abadeari ba, nasai jokatzeko eta nasai egoteko, partidua irabaziko dauela-ta.

Asko gogortzen da abadea orduan; eta besteak, ezinantzak³³⁰ eta guzur-ahaleginik asko erabilirik, amaitzen dabe partiduori, abadea hogeta laura heldurik, mutilak hamazortzi daukazanean.

Herrikoak hamaika txalo-eta, gora jo-eta egiten deutsiez euren abadeari, ha lako bat ez dagoala Bizkaian esaten dabelarik. Poz-pozik geratu dira.

Gudamutilak, ostera, ipini daben dirua jaso eta ganera, lau bider gehiago hartu dabelako, pozaren pozaz praktetan hartu ezinik dabilz, ospeagaitik bape ardurarik ez deutsela.

Abadea bera be pozik, lau ontzako kosta jakon arren, bere pelotari ospea zutunik daukalako hondino.

Horra danok pozik, arazo baten danak pozik gelditzea gauza ezina dala esaten dan arren.

³²⁷ Gogo batez: aho batez.

³²⁸ Galduik: galdu eik.

³²⁹ Lotuiozak: lotu egiozak.

³³⁰ Ezinantzak: gehiago egin ezinik dabilen plantak.

XVIII

AZERIARI, AZERIA

Bere etxearen ortuko txoko edo bazter baten zoratuta lez ebi-
len Anton *Berakatz*, urrumaka, esku biakaz buruari helduta, ila-
rrak lakoxe negar-anpuluak begietatik jausten jakozala, atzera eta
aurrera inon geldi ezin egonik, zeinda lurak erre baleutsazan bere
oinazpiak, eta intziri eta urruma bitarteetan, erdi tartaka, mihin
motelaz esaten ebala: «Ai, ene bada eta ni! Ai, nire errukarria!
Zertarako nago ni orain munduan? Neure Jaungoiko laztan, Aita,
eta Seme, eta Espiritu Santua, Ama Birjina bihozberea eta erru-
kiorra, neure izeneko santu Antonio miraritsua, eta zeruko santu-
santa guztiak, arren! Erruki zakidaze eta lagundu eidazue neure
ordu gorri eta larri honetan! Zein txakur izan da nik hemen hain
ondo gorderik neukan okela-zatia sumau dauena? Nor arraio, bai,
nor mila arraio izan ete da niri hemendik diru biribil polit ederrak
ostu deustazana? Hainbeste urtetan apurka-apurka eta nekearen
nekez aurrezturiko ehun ogerleko zuri ederrak non ete zagoze?
Esakerea da osturiko gauzea bere jabearen dei egoten dala, baina
nik ez dantzut³³¹ inondik be deirik. Ai, banentzu³³²! Laster nino-

³³¹ Ez dantzut: ez dot entzuten.

³³² Banentzu: entzungo baneu.

ake zuekana, ogerleko maiteak, oilo lokea bere txitakana baizen agudo! Mila eta bostehun tximistak birrinduko ahal habe, lapur deunga, zital, madarikatua!».

Esakune honeekaz aterabidea³³³ emon eutsanean bere atsekabe eta hasarrearen lurrinari, nasaitu jakon zerbait bere barrua, eta jesarri zan iko-zugatz baten azpian, eta ordura arte baino arte gehiagogaz hasi zan gogoketan: «Zoritxarreko nire arazo hau ez da zarataka zuzendutekoa; isil-isilik eta bestela baitakoan atrapau behar da atrapatakotan! Nire diruakana heldu dan azeri zaharra...; nor ete da bera? Uuum! Egingo neuke horixe, geure alboko belarrimotza izan dala, demoninoa! Horixe izango da, bai! Horren etxeko teilatupeko leihotik agiri da diruak gordeten nebazan tokia; inoz ikusi egingo ninduan horrek, lurra aztertu eta ogerlekoren batzuk hantxe ipinten ibili nazanen baten... Bai! Horixe da, berori da bai, ziur.

Arnasa luze bat eginda, ezkerraldera gorputza okerturik ipini eban luze-luze eskumako hankea eta beronen praka-sakeletik atara eban toxa edo tabakorri-ontzia. Zabaldu berau eta hartu eban barrutik zigarro-papel liburutxu okertu eta tximurtu bat, kendu eutsan orri bat eta ipini eban dingiliz beheko ezpanetik; itzuli eban gero ezkerreko eskura zigarro batentzako lain tabakorri eta ganean eskumako eskua jarririk, erabili ebazan apur baten esku biak errotarren antzera; biribildu eban gero taketa lakoxe zigarro lodi eta gogor bat, eta ezkerreko praka-sakeletik ardaia, galtzairua eta suarria atara eta, kaisk eta kaisk, zati baten inarduan eta gero, ixetu eban ardaia eta honegaz zigarroa, pautadaka, eta musturra luzatuta.

Zigarroa egiteko eta berau ixetuteko behar izan ebazan tresna guztiak gordeta gero, ipini ebazan besoak gurutzatuta³³⁴ belauanganetan eta, pauta eta pauta, beti be zigarroari ke moltso

³³³ Aterabide: urtenbide.

³³⁴ E. j. kurutzatu.

handiak ataraten eutsazala, zati baten geldi-geldi egon zan, aurrealdeko harri-koskor bati begira-begira. Arraioren bat hagin artean esanda jagi zan nozonoz, eta alde egin eban handik. Anton *Berakatzek*, belarrimotzaren etxerantza begiratuta, esanaz: «Iku-siko joagu ba, nor nor garan».

* * *

Diruak ostu eutsiezan egunetik aurrera, inoz baino kantariago eta argiago ebilen Anton *Berakatz*, batez be auzoko belarrimotzagaz; honegaz barrukotasun³³⁵ handia hartu eban, eta barriketaldi luzeak izaten ebezan alkarregaz, antxinako adiskide eta lagun zaharrak izan balitzaz lez.

Gau baten, afalduta gero, ate ondoaren freskuran, sillea atzerantz horma ondora eginda, bere oinak aurrealdeko gorengo zotzean ipinita, beso-hutsik eta eurok ehunduta, burua horman, eta ezpanetan zigarro-mutxikin bat ebala, Sánchez belarrimotza *petenera* bat hagin artean kantetan inarduala, heldu jakon Anton *Berakatz* eskuetan silla bategaz, eta bere ondoan jarten zan artean esan eutsan:

—Kaixo, Txantxes. Gauaro ederra dago!

—*Hola, Berakatz. Ederra gaua!*

—Eta, zer dinoe ba, papelok?

—*Gitxi gauza. Bilbon bankeru bat egin kiebra, eskapau Amerikara, palmo bat sur itxi akredoreak.*

—Hartzekodunak ahobete haginegaz³³⁶ geratu dirala esan gura dozu, ezta?

—*Bai, hori.*

—Neu ez nindukie harrapauko horreetariko banku eta drogeatan; ez, ez, dirua norberak gorde.

³³⁵ Barrukotasun: konfiantza, hurkotasun.

³³⁶ Ahobete haginegaz itxi: aho zabalik, harrituta.

—*Bilboko Banku edo Espainiako Banku edo Caja de Ahorros ez dago bildur, gizona.*

—*Baina, Txantxes, norberak eukitea da onena, ez deritxazu?*

—*Han be seguru egon, eta ademas interesa hartu. Etxean lapurrak sartu eta...*

—*Ez euki etxean, beste leku baten baino! Nik neuk behintzat aurreztu izan ahal dodan diru apurra, ondo gordeta daukat, inork jakin ezin daiken tokitxu baten.*

—*Bai? Asko diruak e, Berakatzaz? (Este no sabe nada.)*³³⁷

—*Asko ez. Zugaz badot sinestasuna, eta esango deusut ehun ogerleko daukadazala toki hoiretan. Lehengo egunean salduriko txahalaren hogeta bost ogerlekoak be, bihar hartuko dodaz eta hantxe ipinteko ustea dot. Korridurik ez dot hartuko baina ez deust ardura. Banku baten ipini, eta gero ez korridu eta ez diru barik geratuko ete neintekean bildurrez lorik be ez neuke egingo eta...*

—*Bai, Berakatzaz, asko arrazoia euki zu. (Rediez, hay que animarle.)*³³⁸ *Poblazinoetan pillo asko egon, aldeanoak engainau, atara dirua, esan interesa emon, gero dana hartu dozu eurentzat, egin kiebra eta bapez itxi zuri. Bai, Anton, gorde ondo dirua (para mi)*³³⁹.

—*Bai, ba. Urteak dira hasi nintzala dirua gordeten halantxe, eta bihar edo etzi hogeta bost ogerlekoak ipintera joango nazan lez, inoz diru zati bat ipintera noanean bakarrik begiratzen deusset; nasai-nasai dot neure gogoia, ezeren bildur baga, seguru dagoalako.*

Apurtxu baten barriketean egonda gero, alkarri «gabon» esanda aldendu ziran bakotxa bere etxera. Sánchez-ek, oheratu orduko, ahots zorrotz-zorrotzagaz *malagueña* luze bat bota eban bere

³³⁷ [Honek ez daki ezèr].

³³⁸ [Arranoa, adoretu daidan].

³³⁹ [Niretzat].

etxe-barruan, eta Anton *Berakatzek* inoan: «Pozik habil..., jausi behar dok, hurrean!».

* * *

Biharamonean, bere ortuko txokoan zoro-zororik ebilen Anton, artazika dantzan zatitu beharrez; jaurti eban zantzo bat, hiru kilometroen inguru-barruan entzun izan izango zana. Hak eukan poza!

Eukiteko zan; eguna zabaldu orduko jagita, joan zan bere diruen gordelekura eta hantxe egozan ehun ogerlekoak, Sánchezek gau haretan ipinita, txahalaren hogeta bostak be hartzeko uste-an.

XIX

«BEHARRAK BEHARRA ERAGIN» (JAZORIKOA)

«Bizkaiko baserritarren esakera honi deritzat egokiena *Abar* honeen burutzat. Jakina da Bizkaian lanari 'beharra' esaten jakola; beraz, esakera horrek dino: beharrak, edo beharrizanak, lana eragiten dauela.»

Gaztetxua nintzala (18 urte) Madriler a neure ikaskuntzak has-teko heldu nintzan egunetan, bizi-bizi gomuta dot, iluntze baten bertako *Café de la Iberia* (Carrera de San Jerónimo) akeitetxean ikusi nebala neu baino seiren bat urte zaharragoa zan mutil polit, argi-argi, guztiz begikoa, bere lagunei alde-agurra egiten, bere abe-rrri Euskadi honetara etorrelako bere karrera amaituta.

Txera handia egin eutsien danak, pozarren erakutsi eutsien euren zorion-opea, ez zan besterik entzuten, «hori da mutila, hori!», «mutil adimen argiduna», «oso lagun artekoa», «lagun maitekorra», «behargina», eta honelako esakerak baino. Bertan aurkitzen ziran guztiak alkarren lehian ebiltzan haxe mutila goralduten. Neure ezagun bati itandu neutsan ea nor zan ha mutila, eta erantzun eustan:

—Mutil horrek bere karrera zelan egin dauen bazenki, ikaratu egingo zintzatekez.

—Pozik entzungo neuke, eta inora joan beharrik ez badozu, arren, edestu eidazu —esan neutsan nire ezagun hari.

—Horra, ba, mutil hori gipuzkoarra da, hain herritakoa. Bere gurasoak ogasunetan ondotoxo dagozanak dira. Adimen argi-argia dau mutil honek, zuhur-zuhurra da, eta batxiler ikastaldian beti gorengo mailea, *sobresaliente*, harrapetan eban, urtean-urtean saria bereganaturik. Batxiler-agiri edo -titulua be duarik³⁴⁰ atara eban. Jakina da: bere gurasoak txotxatuta³⁴¹ egozan beragaz.

—Egoteko da, horrelako seme bat euki ezkerol

—Eta ikasten zolia eta azkarra izanaz ganera, mutil hau zan ekandu onak ebazana, etxeratua, esangina... Ez eukan akatsik.

—Zein karrera egin dau?

—Osakigina edo botikarioa. Aitak ekarri eban Madrilera lehenengo urtean, ostatu-etxe on bat idoro eutsan, eta adiskide bankeru bategana mutilagaz joanda, beronen aurrean esan eutsan hari: «Ikastaro edo kurtsoaren amaieran kontuak egingo doguz eta artean, beronek eskatzen dauen beste diru emongo deutzazu honi». Bankeruak adierazo eban hori gehiegi izango zala, behar-bada, gazte batentzako, eta aitak erantzun eutsan: «Ez dago bil-durrik, neure buruagaz baino sinespen gehiago dot beronegaz». Halan itxi eban mutila Madrilen, bereburu³⁴² zala, eta dirua noz-gura eta zenbat-gura atarateko eskubideagaz.

—Arranoa! Hego handiak dira horreek...

—Handiegiak. Gaztea zan lez, mutilak ez eukan diruaren maitasunik eta eskuetatik igarri barik joaten jakon. Hainbarik³⁴³ geratzen zan baktotxean, bankeruagana joan, eskatu, hartu eta kito. Lehenengoetan lotsatzen zan pizka bat; gero, ekanduan sar-

³⁴⁰ *J. t.* dubarik.

E. j. doarik.

Doarik: doan, doanik, dohain, dohainik.

³⁴¹ Txotxatu: memelotu, lelotu.

³⁴² Bereburu: independente, aske.

³⁴³ Hainbarik: ezer barik.

tu zan apur-apurka eta erruki barik eskatzen eban dirua. Handik hile bigarrengo, handiki bat lez bizi zan. Jakina, ikasteak asko galdu eban bizimodu hain ederragaz.

—Eta ustel atarako eban, beharbada, azterketetan.

—Ez, ba! Bere ikaste-atalak³⁴⁴ ondo atara ebazan, baina ez gorengo mailan, batxilerrean lez, beherengo mailan baino; ozta-ozta ondo urten bakarrik. Ikastaro guztian dirutza handia eralgi eban; berak ez ekian zenbat, behin be ez eban inongo ingi³⁴⁵ edo idaztitan³⁴⁶ jarten bankeruari eskatzen eutsana. Diru asko zala baino ez ekian, asko. Joan zan etxera eta han bere aitagaz jazo jakona sarritan berak edestu deusku.

—Bekoki ederra ipini izango eban aitak urteko gastuen kontua ikusi ebanean.

—Etxera helduta, bildurrez ei ebilen berau, itxaroten noz aitak hartuko ete eban zarataka. Handik lastertxu aitak bere idazkelara deitu eta esan ei eutsan: «A, mutil, Urlia jaunak (bankerua) bialdu jok urteko hire kontua, eta oker egon behar jok, hainbeste ezin izan leikek! Idazten naioak berari kontua barriro egin dagiala, baina idatzi orduko, itandu egin gura deuat. Hara bere ingia. Zer dinok?». Eta mutilak orduan esan eutsan: «Nik ez dakit zenbat dan, ez dot erabili konturik eta. Berak hori ipini badau, egia izango da». Aitak, hau entzunda, badinotso: «Konturik erabili ez arren, gitxi gorabehera gomutauko dok, horraitino, aldi ezagunetan zenbat eskatu heuan. Esaterako, hemen jagozak Aratoste egunetan eskakizun bi: bata, mila laurlekokoa eta bestea, bostehunekoa». «Bai, hori egia da», esan eban mutilak apal. Aitak orduan igarri eban ez egoala okerrik bankeruaren kontuan eta esan eutsan semeari hotz-hotzik, ezer jazo ez balitz lez: «Horixe jakin gura izan joat. Honek ez jaukak ordaindutea baino besterik. Tirok, joan haiteke».

³⁴⁴ *J. t.* (asignaturak).

³⁴⁵ [Ingi: *papel*].

³⁴⁶ [Idazti: liburu].

—Gizon hotza da benetan aiteori. Beste askok bere lekuan, hazelako agirakak³⁴⁷, eta agiraketan bakarrrik geratuko ez litzatekezanak ez gitxi!

—Mutilak uda guztian ez eutsan ikusi aitari hasarrearen izpirik be. Harrituta egoan. Heldu zan irailaren azkenaldea; hurrengo hilaren lehenengokoan ikastaroa hasi ohi dan lez, aldi horretantxe joan ohi dira ikasleak euren ikastetxeetara. Gure mutilau bere aitari Madrilerako joatea aitatuten³⁴⁸ bildur eta lotsa zan; baina esturan, hilaren 25garren eguna heldu zanean, lotsaka bazan be, zuzendu zan aitagana eta: «Aita, honezkero bost egun baino ez daukadaz matrikulak egiteko eta Madrilerara joan beharko dot». «Bai, ene semea —esan eutsan aitak—, matrikulau behar badok errazki arin ibiliko haz». «Orduan, baderitxazu, gaur arratsaldeko trenean urtengo naz». «Heuk nahi doanean». Mutil horrek poz-pozik gertau ebazan fardelak³⁴⁹, eta barriro aitagana joanda, dirua eskatu eutsanean biderako-eta, aitak erantzun eutsan barreka: «Dirua nik hiri emon? Lotsarik badok eske etorteko, igazko ikastaroan bost mila laurlekotik gora ostu heustazan eta? Ez, ez, nire dirurik ez dok ikusiko!». «Orduan, zelan joango naz, ba? Zelan biziko naz han?». «Hori heure ardurea dok; hor konpon». «Baina horretara karrerea laga behar!». «Laga edo eutsi, heuk egingo dok nahi doana. Hor konpon hadi! Neu bizi nazan artean behintzat, ez daukak nire txanponik». Estutu zan mutila honegaz, eta zolia dan lez, laster erabagia hartu eban. Bere ama, izeko, osaba, adiskide eta enparaduak diru eske arakatu ebazan, hamabost-hogei bat ogerleko halan baturik, eta biharamonean Madrilerara etorri zan. Lehenengo aldia txarra igaro eban, baina «beharrak beharra eragin» eutsan. Botika-mutil jarri zan eta ganera, ostatu edo fonda bateko idazkigintzea³⁵⁰ bere gain hartu

³⁴⁷ Agiraka: erretolika, purrustada.

³⁴⁸ *J. t.* aipatu.

³⁴⁹ Fardel: maleta.

³⁵⁰ *J. t.* (*correspondencia*).

eban, eta honetara ataraten eban nahikoa jan eta jazteko, baita bere ikasteak egiteko behar ebazan liburuak-eta erosteko be. Honantxe, egun guztia zereginenez beteta eukirik, ez eukan txarretarako astirik, eta asko zindotu zan. Bigarren ikastaroa amaieran, batxiler-aldiko mailak barrero harrapau ebazan. Lehenengo ikastaroan estalduriko lehengo mutil zoli adimen argiduna eta, era batez, ikasizalea barrero agertu zan.

—Balioko mutila da, horraitik³⁵¹.

—Bai, behin! Beronek egin ebana ikusita, amak, eta izekoak, eta senitarteko enparadu emakumeak eskatu eutsien aitari, lehen-goak ahaztu eta lagundu egin behar jakola mutilari. «Gizajoa!—esaten eben—. Aurten harek egin dauen lana, bere ikasteak *sobresalientegaz* amaitu eta bizi izateko behar izan dauen guztia berak irabazi, etxetik txanpon bat bialdu ez jakola; ahulduta egon behar gizajoa!». Baina aitak erantzun eban barreka: «Bai, zera! Lehengo urtean ipini genduan mutilori zer nahi eta haxe eukala, eskura dana emonda eta polot egin³⁵² euskun; aurten, ezer emon barik, bizkortu da eta goitik jarri. Zein da biderik onena? Esan beharrik ez dago. Kirten osoa izango nintzateke, eta semeari kalte handia egingo neuskio, orain daroan bide artez hori hausiko baneutso. Ez holakorik!».

—Zuzen egoan aiteori, bai.

—Emakumeak otoika, eta hasarreka, eta negarka ibili jakozan arren, aita gogor egoan, ezin izan eben bigundu, ez eutsan semeari dirurik bialtzen. Eta mutil azkar honek karrera guztia honantxe egin dau: berak bakarrik, etxeko laguntasunik бага, eta ederto, beti goiko mailetan. Osakigin-agiria be, batxilerrekoa lez, duarik atara dau saria irabazita.

—Asko balio dau, bai, mutil horrek, berori lakoak ondo urri izango dira; baina bere aitak be balio dau.

³⁵¹ *J. t.* horraiti.

³⁵² Polot egin: porrot egin.

—Mutilak berak dino aitari zor deutsalana; bigundu balitz eta dirua emoten hasi balitzako³⁵³, beharbada bide txarrera barrero jota, ez ebala gauzonik egin izango.

—Orain danak pozik.

—Mutilak esan deuskunez, aitak jakin eragin deutso gertu dagoala behar dan dirua emoteko mutilak gura dauen tokian edo urian osakitegi³⁵⁴ gorengoetariko bat ipinteko.

—Edesti polita da.

³⁵³ *J. t.* balitzakio.

³⁵⁴ *J. t.* (*farmacia*).

XX

ARDAOZALEAK POLTSEA GALDU

(JAZORIKOA)

Burdinbideak asmau baino lehenago, Bizkaiaren zati handi batek (Bermeotik Ondarroarainoko itsasaldea, Gernika eta Markina aldeak, Zornotza eta Durango aldeak) Araba eta Gaztela aldeakaz euki ohi eban saleroste, hartu-emon eta joan-etorri guztia Durangotik Gasteizera doan bidetik egiten zan, Urkiola, Otxandio eta Legutiano (Villarreal) zehar.

Orduko aldietan bide horretatik oinez, mandoz, zaldiz eta burdiz, atzera eta aurrera, guztiz ugari ibiltzen ziran notinak³⁵⁵.

Urkiolatik Legutianora bitartean, bitxabalaren³⁵⁶ alde bietatik urrineraino, oihan edo baso zarratu zabal handiak egozan, eta orain baino askozaz etxe gitxiago. Oihan handi horreetan ugari ezkutetan ziran basalapurrak, eta ahal eben aldi guztietan bidera urten, bidaztiak³⁵⁷ gelditu, eurekaz eroan baso-barrura, behar bazan, eta jakinal, aldean txanpon barik ixten ebezan murri-murri³⁵⁸.

³⁵⁵ [Notin: *persona*].

³⁵⁶ [Bitxabal: *carretera*].

³⁵⁷ [Bidazti: *viajero*].

³⁵⁸ Murri-murri: ezer be barik, aldekoagaz baino ez, guztiz lumatuta.

Aldi haretan goardazibilik³⁵⁹ ez egoan, baina baegozan mikelleteak bideak zaintzeko. Honeek gehienetan bidez bide ibiltzen ziran lez, ondo zainduak izaten ziran. Lapurrak beti jakiten eben mikelleteak nondik nora ebiltzan.

Horregaitik, mikelleteen uste handirik euki ez eta, burdidunak ahalegintzen ziran alkarregaz batera ibilteko, halan indar gehiago eginik lapurrai aurre emon ahal izateko. Sarri ibili ohi ziran alkarri tiroka lapurrak eta burdidunak.

Egia da, beti be, lapurretak asko eta lotsabakoak izaten zira-nean, eta batez be, notin ezagun edo handikiren bati ostuten baeutsien, etorten ziran mikelleteak indar handiagaz; ahalik zehatzen arakatzan ebezan baso guztiak, lapurren bat edo beste hil edo harrapau, eta enparaduak uxatuten ebezan urrinetara. Horreeta-riko garbialdi baten ondoren bake gehiago izaten zan bideetan; baina gero, apur-apurka, bat orain eta beste bat gero, agertzen ziran barriro lapurrok eta, ibili eta ibili, azkenerako, lehengo moduan.

Eta gauza ohargarria³⁶⁰: ez ei zan ibiltzen hor lapur erdaldunik, danak ziran euskaldunak. Erdaldunik inoz oharkabe³⁶¹ etorten bazan alde horretara, egundoko arinen alde egin behar izaten eban, narrua zulatuta bertan itxi³⁶² gura ez baeban. Mutil onak ei ziran ba, gure lapurrak horretan!

Beste gauza ohargarri bat: nahiz Durango aldekoak izan, nahiz Arratiakoak, nahiz Orozkokoak, nahiz Larrabetzukoak, nahiz Bizkaiko edozein aldetakoak, berehalaxe ikasi eta erabilten ei eben gipuzkerea (Gipuzkoako euskerea). Euren hizkeratik danak giputzak ei irudien. Hori izango zan, gure ustez, urrinekoak zirala sinestu erazotearren³⁶³.

³⁵⁹ *E. j.* guardia zibil.

³⁶⁰ [Ohargarri: *notable, digno de nota*].

³⁶¹ [Oharkabe: *inadvertido*].

³⁶² *J. t.* utzi.

³⁶³ *E. j.* sinistarazo, sinistuaizo.

Guk zaharrai entzunda dakigunetik, Napoleonen gudaetik Karlisten Lehenengo Gudatera arte izan ei zan lapurraldi itzela. Euliak baino ugariago ei ebiltzan. Azkenerako alkarren aurka³⁶⁴ jarri ziran, danentzako beste zer ostu ez egoalako, eta burruka eta zarraparra askotxo euki ondoren, hiru edo lau aldratan banatu ziran, aldra bakotxak eukala bere menpean bidearen zati bat hantxe lapurretan ekiteko; eta aldra horreetakoa ez zanari ez eutsien ixten han lapurretan egiten. Han ez zan laketzen lapurrik euren aldretakoa baino.

Lapurren artean inon baino agintari behar gehiago izaten da eta beraz, aldra bakotxean buru edo nagusia eukiten eben, eta honen hurrengo beste maila bat egiten eben bik edo hiruk, bere barrukoagoak ziranak; eta enparadu guztiak egiten eben beheerengo mailea, «lapur lauak» esango bagendu lez.

Honeek aldrok, gehienetan, honetaraxe lan egiten eben euren lapurrerietan: lapur lauak edo beheerengo mailakoak jarten ziran hor-hemen bitxabala jagoten, batez be zeharbiderik hasten zan tokietan; gelditu erazoten ebezan bidazti guztiak³⁶⁵, eroan baso-barrura, lotu hantxe zugatz-enborrai eta honan, batzen ebenean talde hazitxua, etorten zan eurakana aldra-buruua zan lapurra, manta bat zabal-zabal ipinten eben lurrean, bidazti harrapatuei agintzen eutseen botateko haraxe euren poltsak, eta gero arakatu-ten eutseezan ondo euren sakelak eta jantziak, badaezpadan.

Honetara lumatuta gero, edontzi edo basu betena ardao eski-
ni eta emoten eutseen ostutakoei, atsekabea zelanbait arinduteko-
edo.

Lapurrak honeetariko ekandurik inon daukienik, edo euki dabenik, ez dogu entzun sekula. Antza danez, honetantxe be, lapur izaten be, euskaldunak berarizkoak izan dira, euren antza eta ez inorena euki dabe, inor ez lakoak izan dira.

³⁶⁴ [Aurka: kontra].

³⁶⁵ *E. j.* gelditu erazoten eutseen bidazti guztiei.

Ardaoa eskini, diruak kenduta gero! Asmakizun errukiorra! Beste leku batzuetan diruakaz batera bizia be ardura asko barik kentzen ei dabe.

Bai, hantxe lapur-tokian polito-polito eukiten ei eben zaragi ederra (hau be ostua izango zan, zeresanik ez dago), bere asto-txuan dotore.

* * *

Ba, honakoxe aldi baten, bidazti-taldea batu ebenean, eta poltsak eskatu eutseezanean, eta gero sakelak eta jantziak zehatz arakatuta, ardaoa emoten hasi ziralarik, jazo zan gauza barregarria... Hara, bidaztien artean egoan aguretxu bat txiro jantzita, buruan tximela³⁶⁶ ebala, aldi haretan ohiturea zan lez; berau etorren Legutianotik, han eukazan etxe bien urtesari edo errentak hartuta. Poltsak botatea agindu zanean, beronek esan eban ez eukala ezer, bera txiro bat baino ez zala; sakelak eta jantziak arakatzea izan zanean be, ez eutsien ezer idoro; ez eutsien ezer kendu, ba. Ardaoa emotordua³⁶⁷ heldu zanean, lapur bi hasi ziran alde banatatik pitxerkada ardaoa eta edontziak eroiezala, edontzia bete eta emon bidazti bakotxari. Aguretxuaren txanda edo aldia izan zanean, lapurra aurrera igaro zan honi ardaorik emon baga, eta hau ikusi ebanean agureak, ardaozalekeriak jota, esan eutsan:

—Lapur *jauna*, niretzako ez dago ardaorik ala?

Lapurrak, orduan, emon eutsan belarrian itzulietako bat, esanaz:

—Lapurra ..., eta *jauna*? Hor dezu hori, ba!

Zartadeaz tximela burutik lurrera bota eutsan, eta hantxe agertu zan aguretxuaren poltsea! Gizajoak hantxe eukan polito

³⁶⁶ Tximel: txano.

³⁶⁷ Emotordu: emote(ko) ordu.

ezkutauta, eta izan ez balitz bere ardaozelekeriagaitik ez eutsien kenduko. Jakina, agertu orduko eskua ezarri eutsien lapurrak poltseari barreka, eta orduantxe bai eskini eutsien ardaoa, esanaz:

—Oraintxe bai emango zaizu ardoa gogo onarekin. Har zazu, aitona, har zazu!

Agurea negar baten egoan eta ez eban entzun gura ardaoaren izenik be. Bera negarrez egoan artean, lapurrak eta beste bidazti guztiak barreka egozan.

Zalekeriak ez dakar behin be gauzonik eta.

XXI
ATXURIKO MILAGROA
(JAZORIKOA)

Hemen edestuko doguna jazo zanetik hona urte asko igazi³⁶⁸ dira.

Orduan Bilbok hogeï mila inguru biztanle baino askoz gehiago ez ebazan: geroago Begoñari hartu deutsazan zatiak ez eukazan hondino; Abando be aske zan, herri banakoa. Beraz, Bilbo herri txikia zan, eta biztanle guztiak alkarren ezagunak ziran. Ez egoan orain dagoan beste *guardia municipal*, nahikoa ziran hiru edo lau txinel herria zaintzeko, gauezko *sereno* kantari batzukaz.

Honelako herri baten aituten da erraz egin leitekela hemen edestuko dogun barrabaskeria, herri guztia barre baten hainbat egunean euki ebana.

Billbotar barregarri batzuk iragarri eben bertako izparringi baten, ez dakit nongo herritan hil zala atso aberats bat eta mila ogerleko batzuk itxi ebazala Bilboko herren edo kojoei³⁶⁹ bananduteko, atsoa be herrena izan zalako eta Bilbon jaioa; diru hori

³⁶⁸ Igazi: igaro.

³⁶⁹ E. j. koxo.

bananduko jakela Atxurin, etxe bateko atarian. Bertan aurkeztuko ziran herren bilbotarrai, honen egunetan eta honen ordutan.

Bilboko txiro eta gosekilen artean ikara handia eragin eban iragarki horrek eta egun batzuetan ez zan izan beste hizketagairik haxe baino.

Heldu zan eguna. Atxuriko etxe haretan agiri zan atarian mahai bat, beronen ganean tintontzia eta ingiak, hiru jesarleku, bazterrean zorro batzuk zerez edo harez beterik, eta hiru edo lau gizon, piperra baino serioago, alkarregaz hizketa isiltxuan, atarian batera eta bestera ibili ebiltzala eperdi ganean eskuak alkartuta.

Goitzxo hasi ziran kojoak agertzen kalean. Gehienak etozan makulu bigaz eta hanka bata dingiliz; baziran etozanak eperdi ganean erdi tatarrez³⁷⁰, baita burtxoeetan³⁷¹ etozanak be inork bultzaka eroanda. Danak zurbil eta arpegi ahulagaz, edonor errukituteko lez.

Iragarrita egoan ordurako, kale guztia aurkitzen zan herrenez beterik.

Balkoietan eta leihoetan egoan jenteak harrituta esaten eban: «Nork uste izango eban Bilbon honenbeste kojo egoanik?».

Atarian egozan gizon serioak adierazo eutseen kalekoei diruak gertu ipini behar ebezala eta horregaitik pizka baten atea itxiko ebela eta, asko belutu³⁷² barik, laster hasiko zala dirubanandutea.

Itxi eben atea ba, eta gerotxoago barriro zabaldu zanean, tximistea baino arinago urten zan handik..., zer uste dozue? Zezentxu bat!

Nork azaldu han izan zan usubiloa? Hasi zan zezentxua topeka, hau bota eta hori bota, eta... hango arineketea, kojoak izan

³⁷⁰ Tatarrez: arrastaka, dandarrez, tarraz.

³⁷¹ *J. t.* burtxoi.

E. j. gurtxoe.

Gurtxoe: gurditxo.

³⁷² Belutu: berandu egin, berandutu.

arren! Egundoko arinen, minutu bat baino lehenago, garbitu zan kalea, makilaz eta burtxoez beterik gelditu zala. *Milagroa* izan zan: zezena agertu zan orduko kojo guztiak osasunera etorri ziran.

Balkoi-leihoetako jentea, barrearen barreaz tripa guztia minduta geratu ziran.

Deabrukeria hau ikusi eben bilbotar zaharrak barre-zoroka hasten izan jakuz berau aitatu dogun aldi guztietan.

Hamaika gizon gogaldi ederreko jaio eta bizi izan zan lehena-goko Bilbon!

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlan eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlan: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlan: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterrri maitia*
Aurkezlan eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlan: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-
Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzailea: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria

26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. Mikel Zarate: *Haugintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa

SUTONDOAN SORTA

Azkenengo liburuen zerrenda

21. GRIMM ANAIEN BERROGEITA
HAMAR UME IPUIIN
Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi*
Sarrera, oharrak eta moldaketa:
Miren Atutxa
22. BERBALAJAREN KULUNKAN
PROSA LANAK • 1
Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. BERBALAJAREN KULUNKAN
PROSA LANAK • 2
Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. EUSKALDUNAK MADRILEN
Jose Basterretxea *Oskillaso*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. EUSKERA NIRE BIZITZAN
Karmelo Etxenagusia
Testuaren ardura: Igone Etxebarria
26. NI KAZETA-EGILEA NAIZ.
ARTIKULU, BERRI, ISTORIO
Jean Hiriart-Urruti
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. HAURGINTZA MINETAN
Mikel Zarate
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. KRESALA
Domingo Agirre
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. ZORIONA. 31 ETA ESKU
Xipri Arbelbide
30. ABARRAK
Ebaristo Bustintza. *Kiriklño*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa



LABAYRU IKASTEGIA

bbk



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE
CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saletordeta



Bizkaiko Foru
Aldundia

Kultura Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura



Miluriko Elizateen Landa

ISBN 84-89816-28-X



9 788489 816282